

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Doktorego Tesia

**ERRESISTENTZIAK DITUZTEN KORRONTE ZUZENeko ZIRKUITUETAN
EREMU ETA POTENTZIAL KONTZEPTUEN INGURUKO IKASLEEN
ZAILTASUN ETA ARRAZOIKETAK**

Tesigilea:
Ane Leniz Ereño

**Fisica Aplikatua I Saila
Euskal Herriko Unibertsitatea**

Zuzendariak:
Jenaro Guisasola doktorea eta Kristina Zuza doktorea

Abstract

Explaining simple DC (direct current) electrical circuits with resistors is a complex subject in physics, involving physical laws, the microscopic model of matter, and coherence to link different concepts of electricity (Arons, 1990). When students reason about electrical circuits, they have to integrate and apply basic concepts like electric charge, electric potential, electric current, and electric field. Most of the previous research on the explanatory models of students about fundamentals of DC circuits has been developed at primary and secondary education levels (Fredette and Lochhead., 1980; von Rhöneck, 1981; Millar and King, 1993; Barbas and Psillos, 1997).

There are increasing studies at the last level of high school and introductory physics college courses reporting that students use electricity in a fragmented manner, without linking electronics and electrodynamics. Students tend to consider the chapters on electrostatics and DC circuits as two separate areas (Eylon & Ganiel, 1990; Bensheguir & Closset, 1996; Guruswamy et al., 1997; Bagno & Eylon, 1997; Hazelton et al., 2013) . These studies (as well as our teaching experience) highlight that many university students enrolled in their first physics course cannot conceptualize an electrical circuit as a complete system and have great difficulty in representing a real circuit schematically: their physical interpretation changes, depending how physics questions are asked and how circuits are drawn (Engehelhardt & Beichner, 2004). Often university students learn the rules for solving simple circuit exercises, but without understanding the physical meaning of what they are doing. Even when students are able to handle resistances, potential differences, and electric currents, it is as if they are simply solving a puzzle (Smith & van Kampen, 2011). In fact, in most standard courses, electrical circuits remain a separate part of the entire electromagnetism program, much more technical than formative and, moreover, not even adequately connected to the laws governing the behaviour of the electric field. Therefore, clarifying students' understanding of electrical circuits is a very relevant topic in Physics Education Research (see, for example, Shipstone et al. 1988 or Guisasola, 2014).

In previous studies, it is well established that electric potential is one of the concepts that produces the greatest difficulties for students when interpreting electrical circuits. Furthermore, students do not know how to consistently differentiate between current and potential, and do not clearly discriminate between them. Students often do not understand that the potential difference between two points in a circuit depends on its topology (von

Rhöneck, 1981; Closset, 1983; Guisasola et al., 2010). Härtel (1985) showed that students think of a DC circuit battery as a device that supplies "constant current" rather than one that keeps the potential difference between its poles constant. Several studies of students' ideas about electrical circuits found that many of the students' explanations are often based on electricity as flux, describing macro-level phenomena. These types of explanations do not refer to the nature of the charges and the electric field acting on them (Thacker et al., 1999). The above difficulties are exacerbated when university students try to relate the study of electric properties in circuits and the concepts of field and potential defined in Maxwell's equations (Guisasola et al., 2008b).

Previous studies lead us to ask what the students' learning difficulties are specifically like and their relationship with the forms of reasoning. It will be necessary to investigate what are the forms of reasoning that allow the construction of an explanatory model suitable for students of introductory physics courses. Thus, this work addresses two fundamental aspects on which the research has been based. On the one hand, the relevance of the relationships between electrostatics and electrokinetics and, in particular, between electric current, electric field and potential difference in the teaching / learning of electricity in introductory physics courses for the first year of Science and Engineering at the University. On the other hand, the influence of the forms of reasoning that students of introductory physics courses at university level use, in the construction of explanatory models about fundamentals of electrical circuits and their relationship with the concepts of electric field and potential difference.

This study has allowed us to gain deeper insight into how students make sense of dc circuit situations in which the concepts of electric field, potential difference, and current may all appear to be pertinent. After standard instruction, a small fraction of students provided error-free answers that do not focus on the relations between charge distribution, electric field, and potential difference. The vast majority of the students propose an explanatory model in one of three ways:

- (i) A relational form of reasoning that sets up a relation between current and resistance producing the electric field and/or potential difference;
- (ii) A linear causal reasoning that regards the battery as the cause of the potential difference and, this in turn, the cause of the electric field. This same line of

reasoning is followed at the microscopic level, replacing the battery with a charge density distribution in the wire of the circuit;

(iii) A simple causal line of reasoning that states that the current or the variation in charge concentrations produces the electric field and/or the potential difference. Moreover, the vast majority of the students use explanations at macroscopic level, although they study and apply to circuits Ohm's law at the microscopic level during the teaching of the electric circuit chapter. It seems that students have more difficulty describing the model of current at the microscopic level than at the macroscopic level. This might be because most traditional teaching focuses on solving problems with quantitative relationships at the macroscopic level.

The difficulties encountered could be due, as some studies have suggested (, to a failure to bring the syllabus up to date by focusing teaching on dc circuits, not just on the relations between the magnitudes of the circuit at the macroscopic level (Kirchhof's laws) but also looking into the explanatory mechanisms of the production of current at the microscopic level. The presentation, for instance, of the potential difference in a circuit as the battery's capacity to do work, as energy per unit of charge, involves an orientation that is in part mathematical (Härtel, 1985). This traditional approach sidesteps the relation between potential difference and the charge distribution throughout the circuit. This may influence students to attempt to arrive at their own tentative explanations inductively to establish the macro-micro relations in the circuit.

In the last decade, Chabay and Sherwood have proposed, for electricity introductory courses at university, a change in the syllabus that emphasizes the crucial role played by charges on the surfaces of the elements of the circuit, which makes it possible to describe circuit behavior directly in terms of charge and electric field. This approach is a more fundamental description of the circuits that allows one to unify the treatment of electrostatics and circuits. However, the new curricula proposals based on a gradient surface charge microscopic model require an elaborate mechanism underlying relational and multilevel reasoning. Our study shows aspects, little mentioned in education research at the university level, of the types of reasoning used by students when establishing macro-micro relations and possible difficulties with the multilevel reasoning processes. We find that the types of reasoning deployed by students are of low explanatory power; even those students who use a relational form of reasoning only apply it to the macroscopic level and incorrectly induce similar consequences for the microscopic level. This lack of

resources for students to develop complex reasoning may constitute a major obstacle in teaching high-demand models of reasoning, such as the gradient surface charge microscopic model. Such models represent micro-macro relations as a multilevel form of reasoning. It will, therefore, be necessary not only to change the curriculum, but also work with students explicitly on ways of scientific reasoning leading to macro-micro relations in a dc circuit. Not only explanatory mechanisms at the level of atomic dynamics should be presented to students, but also the opportunity to apply complex forms of reasoning that can stimulate discussion. We therefore suspect that this could be one of the reasons why reforms of the course content curricula of introductory electrical circuits do not progress as rapidly as research results would lead one to expect.

The types of reasoning used by students have been found to be of low explanatory power; even those students who use relational reasoning only apply it at the macroscopic level and incorrectly induce similar consequences at the microscopic level. This lack of resources they have to develop complex reasoning can be a major obstacle in teaching more complex explanatory models such as the gradient surface charge microscopic model. Those models represent macro-micro relationships with a form of multilevel reasoning. Therefore, we conclude that it will be necessary not only to change the curriculum, but also to work explicitly with students on the types of scientific reasoning that lead to macro-micro relationships in DC circuits.

Sarrera orokorra eta aurkibidea

SARRERA OROKORRA ETA AURKIBIDEA

Erresistentziak dituzten korrante zuzeneko (KZ) zirkuitu elektriko sinpleen azalpena gai korapilatsua da fisikan. Bere gain hartzen ditu lege fisikoak, materiaren eredu mikroskopikoa eta elektrizitatearen inguruko kontzeptu ezberdinak lotzeko koherentzia (Arons, 1990). Ikasleek zirkuitu elektrikoaren inguruan arrazoitzen dutenean, karga elektrikoa, potentzial elektrikoa, korrante elektrikoa eta eremu elektrikoa bezalako oinarrizko kontzeptuak bateratu eta aplikatu behar dituzte. Orain arte ikasleek korrante zuzeneko zirkuituen funtzionamendua azaltzeko dituzten azalpen ereduaren inguruan garatu diren ikerketa gehienak lehen hezkuntzan eta bigarren hezkuntzan egin dira (Fredette and Lochhead., 1980; von Rhöneck, 1981; Millar and King, 1993; Barbas and Psillos, 1997).

Geroz eta ikerketa gehiagok ondorioztatzen dute batxilergo eta unibertsitateko oinarrizko fisika ikastaroetako ikasleek elektrizitatea modu zatituan erabiltzen dutela, elektronika eta elektrodinamikaren arteko loturarik egin gabe. Ikasleek elektrostatika eta KZ zirkuituen kapituluak aparteko bi arlotzat jotzen dituzte (Eylon & Ganiel, 1990; Benscheguir & Closset, 1996; Guruswamy et al., 1997; Bagno & Eylon, 1997; Hazelton et al., 2013). Ikerketa hauek (eta baita gure irakaskuntza esperientziak ere) fisikako lehen ikasturteetan izena eman duten unibertsitateko ikasle ugari ezin dute zirkuitu elektrikoaren sistema oso gisa kontzeptualki aztertu eta zirkuitu erreal bat modu eskematikoan irudikatzeko zailtasun handiak dituzte: haien fisikaren inguruko interpretazioa aldatu egiten da, fisikaren inguruko galderak planteatzen diren eraren arabera eta baita zirkuituak irudikatzeko eraren arabera ere (Engehelhardt & Beichner, 2004). Maiz, unibertsitateko ikasleek zirkuituen inguruko ariketa sinpleak ebazteko arauak ikasten dituzte, baina egiten ari direnaren esanahi fisikoak ulertu gabe. Erresistentziak, potentzial diferentziak eta korrante elektrikoak erabiltzeko gai direnean ere, puzzle bat ebazten dabiltzala dirudi (Smith & van Kampen, 2011). Izan ere, ikastaro estandar gehienetan, zirkuitu elektrikoak elektromagnetismoaren programa osoaren aparteko zati gisa agertzen dira, hezigarri baino teknikoagoa, eta gainera, ez dira ezta modu egokian konektatzen eremu elektrikoaren portaera gidatzen duten legeekin. Beraz, zirkuitu elektrikoaren inguruan ikasleek duten ulermena argitzea garrantzi handiko gaia da fisikaren irakaskuntzaren ikerketarako (ikus, adibidez, Shipstone et al. 1988 o Guisasola, 2014).

Aurretiko ikerketetan ondo ezarrita dago ikasleengan zirkuitu elektrikoak interpretatzeko orduan zailtasun handiak eragiten dituen kontzeptuetako bat potentzial elektrikoa dela. Gainera, ikasleek ez dituzte funtsean korrante eta potentziala desberdintzen, eta ez dakite haien artean bereizten. Ikerketa desberdinetan ikusi da bi punturen arteko potentzial diferentzia zirkuituaren topologiaren araberakoa dela ez dutela ulertzen (von Rhöneck, 1981; Closset, 1983; Guisasola et al., 2010). Härtel -ek(1985) aurkitu zuen ikasleek KZ zirkuitu baten bateria “korrante konstantea” hornitzen duen gailu gisa ulertzen dutela, eta ez bere poloen arteko potentzial diferentzia konstante mantentzen duen gailu gisa. Ikasleek zirkuitu elektrikoaren inguruan dituzten ideien inguruko ikerketa ugari ikasleen azalpenetako askok elektrizitatea fluxutzat hartzen dutela aurkitu zuten, maila makroskopikoko fenomenoak azalduz. Mota honetako azalpenek ez dituzte haien gain hartzen kargaren izaera eta kargen gainean eragiten duen eremu elektrikoa (Thacker et al., 1999). Aurretik aipatu diren zailtasunak handitu egiten dira unibertsitate mailako ikasleek zirkuituen propietate elektrikoak eta Maxwell-en ekuazioetan definitzen diren eremu eta potentzial kontzeptuak erlazionatzen saiatzen direnean (Guisasola et al., 2008b).

Aurretiko ikerketek ikasleen ikasketa zailtasunak zehazki nolakoak diren eta haien arrazoiketa moduekin nola erlazionatzen diren galdetzera garamatzate. Unibertsitate mailako hastapeneko fisika ikasleentzat azalpen-eredu egokia eraikitzea ahalbidetzen duten arrazoibideak zein diren ikertu beharko da. Galdera horiei erantzuteko, honako garapena duen ikerketa hau egin dugu:

AURKIBIDEA

Sarrera Orokorra
1 Kapitulua: Arazoaren Planteamendua	12
1.1. Gaiaren egoera fisikaren irakaskuntzan: irakasteko eta ikasteko zailtasunak korronte zuzeneko zirkuitu elektrikoaren oinarriak gaian	13
1.1.1. Elektrizitatea eta zirkuitu elektrikoak ikasteko zailtasunak.....	17
<i>Ikasleek korronte zuzeneko zirkuitu elektrikoak buruz dituzten eredu alternatiboen berrikuspena</i>	23
1.1.2. Elektrizitatea eta zirkuitu elektrikoak irakasteko zailtasunak.....	38
1.2. Korronte zuzeneko zirkuitu sinple baten analisi epistemologikoa eta egungo formulazioa, unibertsitateko oinarriko fisikan	43
1.2.1. Elektrizitate estatikotik elektrizitate dinamikoaren eremu berrira: Voltatik Kirchhofferaino.....	45
1.2.2. Zirkuitu elektrikoak azaltzen dituzten ereduak	49
1.2.3. Kable eroalearen gainazaleko karga-dentsitatearen aldaketaren gaur egungo azalpen-eredua	53
1.3. Ikerketaren galderak	55
2 Kapitulua: Esparru Teorikoa eta Metodologia	57
2.1. Ikerketa gidatzen duten elementu teorikoak	58
2.2. Ikerketaren testuingurua	59
2.3. Analisi fenomenografikoa eta arrazoibideen azterketa. Analisiaren fidagarritasuna	62
2.3.1. Diseinu quasi-experimentalak	62
2.3.2. Fenomenografia	62
2.3.3. Arrazoibide kausala azalpen-kategorien justifikazioan....	67
2.3.4. Analisiaren fidagarritasuna	70
2.4. Datuak biltzeko tresnak eta diseinu esperimentalak	71
2.4.1. Lehen azterlana: egoera geldikorrean erresistentziak dituzten KZ zirkuitu elektrikoaren funtzionamenduari buruzko ikasleen azalpen-kategoriak, eremu eta potentzial elektrikoaren kontzeptuak erabiltzen dituztenean	73
2.4.2. Bigarren azterlana: egoera egonkorrean erresistentziak dituzten KZ zirkuitu elektrikoaren funtzionamenduari buruzko ikasleen arrazoibide kausalak, eremu eta potentzial elektrikoaren kontzeptuak erabiltzen dituztenean.	79
2.4.3. Hirugarren azterlana: erresistentziak dituzten egoera iragankorreko KZ zirkuitu elektrikoaren funtzionamenduari buruzko azalpen-kategoriak eta arrazoibideak, eremua eta potentzial elektrikoaren kontzeptuak erabiltzen dituztenean	84
3 Kapitulua: Emaitzak	91
3.1. Galdetegien emaitzak	93

3.2. Lehenengo azterlanaren emaitzak: Erresistentziak dituzten egoera geldikorreko KZ zirkuitu elektrikoaren funtzionamenduari buruzko ikasleen azalpen-kategoriak eremu eta potentzial elektriko kontzeptuak erabiltzen dituztenean	93
3.3. Bigarren azterlanaren emaitzak: erresistentziak dituzten egoera geldikorreko KZ zirkuitu elektrikoaren funtzionamenduari buruzko ikasleen arrazoiketa kausalak eremu eta potentzial elektriko kontzeptuak erabiltzen dituztenean.....	102
3.4. Hirugarren azterlanaren emaitzak: erresistentziak dituzten egoera iragankorreko KZ zirkuitu elektrikoaren funtzionamenduari buruzko ikasleen azalpen kategoria eta arrazoiketa kausalak eremu eta potentzial elektriko kontzeptuak erabiltzen dituztenean	112
3.4.1. Lehen atala: Ikasleen azalpen-kategoriak egoera iragankorreko erresistentziadun KZ zirkuitu elektrikoaren funtzionamenduari buruz, eremu eta potentzial elektriko kontzeptuak erabiltzen dituztenean	113
3.4.2. Bigarren atala: Ikasleen arrazoibideak egoera iragankorreko erresistentziadun KZ zirkuitu elektrikoaren funtzionamenduari buruz, eremu eta potentzial elektriko kontzeptuak erabiltzen dituztenean	118
Chapter 4: Final conclusions and further work	123
4.1. Conclusions regarding students' understanding on the fundamentals of electric current and the concepts of electric field and potential difference	125
4.2. Conclusions regarding the reasoning about electric field and potential difference in direct current circuits	126
4.3. Conclusions regarding the reasoning about electric field and potential difference in transient current circuits	128
4.4. Further work	131
Bibliografía	135
Appendices	148
Appendix I: Difficulties Understanding the Explicative Model of Simple DC Circuits in Introductory Physics Courses. In <i>Proceedings of the Physics Education Research Conference</i> (2014)	150
Appendix II: University Students Use of Explanatory Models for Explaining Electric Current in Transitory Situations. <i>Universal Journal of Physics Application</i> (2015)	155
Appendix III: Students' reasoning when tackling electric field and potential in explanation of dc resistive circuits. <i>Physical Review Physics Education Research</i> (2017)	161
Appendix IV: University students' explanations for electric current in transitory situations. <i>European Journal of Physics</i> (2019)	174
Appendix V: University students' causal reasoning dealing with RC circuits. In <i>Journal of Physics: Conference Series</i> (2019)	186

1 Kapituluua:

Arazoaren planteamendua

Kapitulu honetan, ikerketa-arazoaren planteamendua eta korronte zuzeneko zirkuituen teoriei buruzko azterketa epistemologikoa aurkezten dira, egungo formulaziora arte. Erresistentziak dituen KZ zirkuitu baten funtzionamendua azaltzen duen ereduaren azterketa historiko eta epistemologikoa XIX. mendearen amaieratik lantzen da. Korronte elektrikoko zirkuituei buruzko azalpen-ereduen bilakaera aztertzen da, eta eredu zientifikoek fisikaren irakaskuntzan duten zeregina ikertzen da.

Fisikaren irakaskuntzan gaiak duen egoerari dagokionez, lehenengo zatian gaiaren egoera jorratzen da ikasleen ikaskuntzari dagokionez; eta bigarren zatian, fisikaren irakaskuntzan duen egoera aztertzen da.

Amaitzeko, aurreko ataletatik sortutako ikerketa-galderak aurkezten dira.

1.1. GAIAREN EGOERA FISIKAREN IRAKASKUNTZAN: IRAKASTEKO ETA IKASTEKO ZAILTASUNAK KORRONTE ZUZENeko ZIRKUITU ELEKTRIKOEN OINARRIAK GAIAN

Elektrizitateari buruzko programa tradizionalan, kargaren kontzeptua eta Coulomben Legea definitzen hasten da gaia, eta, ondoren, fluxu elektrikoa eta Gaussen Legea definitzen dira. Elektrostatikaren inguruko kapituluak potentzial elektrikoa definitzen du bukaeran. Beranduago zirkuitu elektrikoak aztertu, eta ondutan korronte, potentzial eta korronte zuzeneko erresistentziadun zirkuituen kontzeptuak definitzen dira (Kirchhoffen legeak). Zirkuituen analisia termino abstraktuetan egiten da, karga eta energia kontserbazio printzipioak erabiliz; badirudi potentzial elektrikoak eta eremu elektrikoak paper marjinala jokatzen dutela. Ondorioz, itxura eman dezake, alde batetik, potentziala eta eremu elektrikoa kontzeptuak eta, bestetik, zirkuitu elektriko baten kontserbazio-printzipioak erabat desberdinak direla eta inolako loturarik ez dutela. Zirkuituen

analisiaren elektrostatikaren ikastean den ezer gutxi aplikatu daitekeela sinestera iristen dira ikasleak.

Hala ere, eta jakina denez, azterlan asko daude potentzial elektrikoaren eta gainazaleko kargen arteko erlazioari erreferentzia egiten diotenak, eta zirkuitu elektriko bateko bi punturen arteko potentzial-diferentzia kableko gainazaleko karga diferentziari lotuta dagoela azaltzen dutenak (Marcus, 1941; Rosser, 1963; Härtel, 1985; Muller, 2012). Ohiko irakaskuntzan ez denez maila atomikoan enfasirik egiten, eta eredu dinamikoan potentzial elektrikoak maila atomikoan duen papera marjinala denez edo agertzen ez denez, ikasleek aukera galtzen dute elektrostatikaren definitutako potentzial elektrikoaren kontzeptuarekin praktikatzeko KZ zirkuituen testuinguruan. Aukera ona da ikasleek uler dezaten zer lotura dagoen potentzial elektrikoaren kontzeptuaren eta zirkuituetako energia-printzipioaren artean.

Elektrizitatearen irakaskuntza tradizionalaren beste arazo gehigarri bat honako hau da: hutsean dagoen karga puntual bat edo karga banaketa baten kasurako definitzen dela potentziala eta hori hari erolaletan aplikatzeko egin behar den pausua ez dela berehalakoa ikasleentzat. Kable baten bi punturen arteko potentzial-diferentzia sortzeko mekanismo mikroskopikoa azpimarratuko duen hurbilketa batek ikasleek zirkuitu elektrikoari buruz duten ulermena eta elektrostatikako kontzeptuekin duten lotura hobetu lezake. Arrazoizkoa da onartzea gainazaleko kargak eta tentsioa ez lotzeak ikasle askori zaildu liezaiekeela potentzial elektrikoaren kontzeptua ulertzea.

Irakaskuntzak dituen zailtasunen artean dago ikusmolde alternatiboen iraunkortasuna. Izan ere, iraunkortasun hori ikasleek (baita unibertsitate mailakoetan ere) eta irakasleek artean ematen da (Pfundt & Duit, 1998). Gainera, ulermen-zailtasunak ikertzeko beharra agerian geratzen da, ikusmolde horien eragina murrizten duten estrategien ikerketa gidatzeko helburuz. Lan

honetan, ikusmolde alternatiboez hitz egiten denean, kontzeptu formalarekin (fisikan aditua den batek ulertzen duenarekin) gatazkan dauden ikasleen interpretazioetaz ari gara (Wandersee et al., 1994).

Ebidentzia zientifikoa dago (McDermott & Shaffer, 1992; Guisasola et al., 2010; Guisasola et al. 2011) teoria elektromagnetikoko hainbat gaitan (adibidez, zirkuitu elektrikoak, indukzio elektromagnetikoa, korrante elektrikoak, kapazitate elektrikoak, indar elektroeragilea, etab.) ikusmolde alternatibo batzuk ohikoak direla gai horietan heziketa formala jaso duten ikasleengan. Kulturarteko ikerketen emaitzek adierazten dute antzeko ikusmolde alternatiboak agertzen direla antzeko hezkuntza-sistemak dituzten herrialdeetan (Shipstone et al., 1988). Aipatu behar da, halaber, problema kuantitatiboak ebazteko garaian arrakasta izatea ez dela ulermen kontzeptuala neurtzeko modu fidagarria. Bigarren hezkuntzako eta unibertsitateko irakasleek berretsi dute problema kuantitatibo estandarrak ebatzi ditzaketen ikasleek askotan ez dakitela kontzeptu fisiko berberetan oinarritutako galdera kualitatibo sinpleak erantzuten (Guisasola et al., 2008b; Kim & Pak, 2002; Arons, 1982). Ebidentzia horrek azpian zailtasunak daudela iradokitzen du. Itxuraz, kontzeptu horiek ez daude behar bezala gorpuztuta fisikaren irakaskuntza tradizionalan. Ikasleek oinarritzko kontzeptuetan (adibidez, potentzial elektrikoak unibertsitateko oinarritzko fisika mailetan) dituzten zailtasunak ezagutzeak ikaskuntza-helburu batzuk modu egokiagoan lortzen lagun lezake. Bereziki, oinarritzko helburu batzuen garrantziarekin bat datoz irakasle asko (McDermott, 1990). Unibertsitateko oinarritzko fisikaren irakasgaia osatzean, ikasleek oinarritzko kontzeptu batzuk ondo ulertu beharko lituzkete, eta horiek definitu eta printzipio nabarmen garrantzitsuekin lotu ahal izango lituzkete. Era berean, irudikapen formalak (diagramak, grafikoak, ekuazioak, etab.) ezagutu beharko lituzkete, eta kontzeptu baten eta hura irudikatzeko erabilitako formalismoaren arteko erlazioa xehetasunez ulertzeko gai izan beharko lukete. Gai izan beharko lukete ereduetan edo analogietan oinarritutako lan zientifikoaren arrazoibidea

erabiltzen, hala nola arrazoiketa proportzionala, fenomeno sinpleen azterketan eta interpretazioan kontzeptu eta errepresentazio fisikoak aplikatzeko. Jakina, beharrezkoa da, halaber, unibertsitate mailako hastapeneko fisika irakasgaietako ikasleek problemak ebazten ikastea, subjektuan bertan izan beharrean algoritmoetan zentratzeko joerari ihes eginez. Nolanahi ere, literaturak agerian uzten du ikasle askorentzat hastapeneko fisika irakasgai estandarrak ez direla eraginkorrak lehen aipatutako irakaskuntza-helburuak lortzeko. Hiztegia erabiltzeko erraztasunak ez du kontzeptuzko ulermena adierazten. Problema estandarrak ebazteko zenbait prozedura jarraitzeko trebetasunak ere ez du arrazonomendu zientifikoaren garapena adierazten (Chabay & Sherwood, 2006; Viennot, 2002).

Zailtasun asko agertzen dira irakasleak esaten edo gainulertzen duena eta ikasleak irakasleak esandakotzat jotzen duena gauza bera ez denean. Sarritan, alde nabarmenak daude ikasleek fisika irakasgaietan ikasi dutela irakasleak uste duenaren eta benetan ikasleek ikasi dutenaren artean. Ikasleen ulermenari buruzko ikerketak ikerketa-oinarri bat sortzen laguntzen du, ikasleen beharrak eta trebetasunak ikaskuntza-helburuekin lotuko dituen curriculum bat garatzeko gida gisa erabil daitekeena. Curriculum egoki batek irakatsitako edukia ez ezik, irakasteko modua ere jaso beharko luke (McDermott, 1991). Fisikaren azterketaren eta erabileraren arteko zubi bat ere ekarri beharko luke curriculum honek (Méheut & Psillos, 2004).

Aurrekoa esanda, hurrengo lerroetan guri dagokigun gaia (elektrizitatea) ikasteko zailtasunetan sakontzen da, eta arreta berezia jartzen da potentzial elektrikoa ikasteko zailtasunetan eta KZ zirkuituak ikasteko zailtasunetan. Ikasleek korrante zuzeneko zirkuitu elektrikoen gainean dituzten eredu berrikuspena ere aurkezten da. Kapitulu honetako 1.1 atalarekin amaitzeko, elektrizitatea irakasteko zailtasunetan sakonduko dugu.

1.1.1. Elektrizitatea eta zirkuitu elektrikoak ikasteko zailtasunak

Fisikariek historikoki testuinguru horretan aurkitu dituzten zailtasun kopurua kontuan hartuta, ez da zaila elektrizitatearen inguruan eraikitako ezagutza guztia modu eraginkorrean transmititzeak dakarren zailtasuna aurreikustea. Are gehiago, unibertsitate mailako fisikako curriculumaren funtsezko zati bat bada ere, KZ zirkuituen irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak arazo gehigarri ugari dakartza (Guisasola, 2014). Beraz, ez da harritzekoa elektrizitatea azken hiru hamarkadetan argitalpen gehien dituen Fisikaren Irakaskuntzako ikerketa eremuetako bat izatea.

Bi arrazoi nagusi daude elektrizitate arloan ikerketa kopuru hori egoteko: lehena da fenomeno elektrikoak eta horien propietateak fisikaren irakaskuntzaren zati garrantzitsu bat direla, hainbat mailatan. Ikasleek karga eta zirkuitu elektrikoak zer diren ikasten dute lehen hezkuntzan, eta, pixkanaka, fenomeno elektrikoak interpretatzeko ideia konplexuagoak integratzen dira. Fenomeno elektromagnetikoak interpretatzeko behar diren ereduak aztertzea ekoizpen-arlo bat da: materiaren izaera elektromagnetikotik gaur egungo teknologiaren oinarrietara doazen gaiak ulertzeko testuinguru sendo bat eskaintzen du. Materiaren egituraren izaera elektromagnetikoa interesgarria eta erabilgarria da. Baina, gainera, teoria elektromagnetikoek testuinguru ona eskaintzen dute arrazoibide zientifikoaren trebetasunak irakasteko, hala nola ereduaren eraikuntza edo fenomeno makroskopikoen deskribapenaren eta teoria mikroskopikoen eta makroskopikoen arteko erlazioa. Ikerketetan ikus daitekeenez, askotan ikasleek modu holistikoa arrazoitzeko trebetasuna izateko beharrezana dute. Psillosek (1998) zirkuitu elektriko baten osagaiak aztertzeke arrazoibide orokor baten beharra erakusten du. Viennotek (2002) azaltzen du kausazko arrazoibidea edo formularen oinarritutako arrazoibidea gainditzea ezinbesteko baldintza dela zirkuitu elektrikoak eta elektrizitatearen beste arlo batzuk ulertzeko.

Bigarren arrazoi nagusia da ikasleek askoz zailagoa aurkitzen dutela elektrizitatea ulertzea mekanika ulertzea baino. Elektrizitate-kontzeptuetarako ulermen-mailak oso idiosinkrasikoak dira. Gainera, literaturak erakusten du nahasmena dagoela elektrizitatearen kontzeptuen eta eguneroko bizitzan erabiltzen den terminologiaren artean (elektrizitatea, energia, tentsioa, energia elektrikoa, etab.). Eta hori ez da harrizkoa, kontzeptuen konplexutasuna dela eta, baina bai harrigarria, ulermen falta ia osorik mantentzen baita irakaskuntzaren ondoren (McDermott & Shaffer, 1992; Wandersee, Mintzes & Novak, 1994). Egoera hobetzeko proposamenekin egin diren ikerketek emaitza paregabeak eskaintzen dituzte (Mulhall, Mckittick & Gunstrone, 2001). Horien ondorioz, bi arazo nagusi identifika daitezke: lehena, ikasleen alde zurreko ezagutzak gogor eragiten duela erabiltzen diren irakaskuntza-estrategiekin, ikaskuntza-lorpen mota ugari eraginez (Saglam & Millar, 2005). Bigarrena, irakaskuntza-estrategiek fenomeno elektrikoaren maila makroskopikoa eta teoriaren maila mikroskopikoa konbinatu behar dituztela (Chabay & Sherwood, 2006; Young & Freedman, 2008).

Elektrizitatearen irakaskuntza eta ikaskuntzan azken hamarkadetako ikerketatildoko nagusia ikasleen ikusmolde alternatiboak aztertzea izan da (Wandersee, Mintzes & Novak, 1994; Driver et al., 1994). Badira hamarkada batzuk pentsatzen dela ikasleen aurretiko ezagutzak eta ikusmoldeek beraien ikaskuntza oztopatu eta eragiten dutela testuinguru berrietan (Ausubel, 1978; Duit & Treagust, 1998). Gainera, fisikaren ikaskuntzak kontzeptu-ulermena ez ezik, ikasleen onarpen ontologiko eta epistemologikoak ere barne hartzen ditu, ikaskuntza-prozesuei eragiten dietenak (Vosniadou, 2002). Onarpen horiek ikasleen trebetasun zientifikoak ezartzen dituzte. Ohikoak dira ebidentziarik gabeko ondorioak edo estrategia sinpleen erabilera, oro har errezeta baten aplikazio zuzen eta espezifikokoak dakartzatenak (Guisasola et al., 2008b; Viennot, 2002).

Lehen ere aipatu da fenomeno elektromagnetikoei buruzko ideia alternatiboak testuinguru akademikotik sor daitezkeela, elektromagnetismoaren kontzeptu gehienek eguneroko testuingurutik kanpo landutako ezagutza eskatzen baitute. Irakaskuntza-programa bateko fisikako edukiak eta testuliburuak testuinguru akademiko baten parte direnez, bereziki beharrezkoa da horiei eta horiek ikasleen ikaskuntzan duten eraginari buruz ikertzea. Hainbat ikerketa-proiektuk erakutsi dute kontzepzio alternatiboak ez direla ausazko ideiak, baizik eta barne-kohesioaren bat dutela, kontzepzio alternatiboko testuinguru batean egituratuta (Oliva, 1999; Watt & Taber, 1996). Azpiatal bakoitzean jarraian aurkezten diren emaitzek, gehienetan, elkarren artean zerikusia duten alderdiei egiten diete erreferentzia. Horrek adierazten digu beharrezkoa izango dela kontzeptuaren ikuspegi orokor bat izatea.

Elektrizitatearen irakaskuntzan gehien ikertutako kontzeptuetako bat potentzial elektrikoa da. Azterlan gehienek zirkuitu elektrikoaren testuinguruan kontzeptu hori nola irakasten den ikertu dute, baina 90eko hamarkadatik aurrera, elektrostatikaren testuinguruan kontzeptu hori aztertzen duten azterlan gehiago sortu ziren, eta berau zirkuitu elektrikoekin nola lotzen den. Eylonek eta Ganielek (1990) aurkitu zuten potentzial elektrikoa dela ikasleei zailtasun handienak sortzen dizkien kontzeptuetako bat zirkuitu elektrikoak interpretatzen dituztenean. Zailtasun hori egozten diote zirkuitu elektrikoak aldagai makroskopikoen arabera deskribatzen direlako (korrontea, erresistentzia, voltmetro batek neurtutako tentsioa), azalpenek eredu mikroskopikoak erabiltzen dituzten bitartean (kargak, eremuak, potentziala). Eredu horiek elektrostatikan azaldu diren kontzeptuek, zirkuitu elektrikoaren ohiko analisisa egiten denean erabiltzen diren magnitudeekin loturak eginez lan egitea proposatzen dute. Ikerketak erakusten du ideia ona izan daitekeela elektrostatikan aztertutako eremu elektrikoa edo potentzial elektrikoa eta KZ zirkuituetan ikasitakoak esplizituki lotzea. Ondo dokumentatuta dago bigarren hezkuntzako ikasleak eta unibertsitateko fisikako sarrera-ikastaroetako ikasleak ez direla gai erlazioak

ezartzeko elektrostatikako potentzial kontzeptuaren eta zirkuitu elektrikoetan duen aplikazioaren artean (Cohen, Eylon & Ganiel, 1983; Steinberg, 1992). Erlazio gabezia horrek esan nahi du potentzial elektrikoaren kontzeptua lauso mantentzen dela eta kalkuluetan komeni denean bakarrik erabiltzen dela. Ikasle askok potentzial elektriko eta potentzial-diferentzia kontzeptuak erabiltzen dituzte azalpen-ereduetan oinarritutako esanahirik gabe (McDermott & Shaffer, 1992; Shipstone et al., 1988) eta Ohmen legearen erabilera desegokian oinarrituta, zirkuitu baten bi punturen artean korrontetik ez badago, potentzial-diferentziarik ez dagoela uste dute. Horrek iradokitzen du ikasleek uste dutela potentzial-diferentzia karga-fluxuaren ondorioa dela, kausa izan ordez (Steinberg, 1992). Gainera, Cohen et al. (1983) aurkitu zuten ikasleek KZ zirkuitu bateko bateria korrontea etengabe hornitzen duen aparatu gisa ulertzen zutela, eta ez poloen arteko potentzial-diferentzia konstante mantentzen duen aparatu gisa. Ikasle askok potentzial-diferentziaren kontzeptua karga elektrikoaren kantitatearekin nahasten dute (Thacker et al., 1999). Guruswamyk eta bere kolaboratzaileek (1997) erakusten dutenez, ikasleek hari-eroale baten bidez lotuta dauden bi eroaleren arteko karga-pasabidea aztertzen dute, eroale bakoitzaren karga-kantitateari begira, eta ez haien artean dagoen potentzial-diferentzia kontuan hartuta. Bigarren hezkuntzako eta unibertsitateko ikasleekin egindako azterlan batean, Benseghir and Closset-ek (1996) erakusten dute ikasle batzuentzat bateria baten poloen arteko potentzial-diferentzia eta zirkulazioan dagoen korrontea ez daudela lotuta: potentzial-diferentzia zenbakizkoa eta bateriaren ezaugarri bat da, eta korronte elektriko ikuspuntu elektrostatiko batetik aztertzen da (kargen arteko erakarpena, karga-zeinu desberdina borne bakoitzean ...). Ikasle kopuru esanguratsu batek uste du zirkuituko puntuen artean potentzial-diferentzia dagoela, baldin eta zeinudiferentzia hautematen bada (polo positiboa eta polo negatiboa) edo puntuen artean karga-kantitatea aldatzen bada. Ikasleek uste dute potentzial-diferentzia kontzeptu abstraktu bat dela, eta nahiago dute askoz ere eskuragarriagoa den kontzeptu bat, karga elektrikoarena, alegia. Badirudi ikasleek kontzeptu horiei

esanahirik ematen ez dietenean, definizio operatiboetan babesten direla eta arrazonamenduak esanahirik gabeko formuletan oinarritzen dituztela (Viennot, 2002).

Laburbilduz, potentziala kontzeptua modu operatibo hutsean aurkezten da maiz, eta ikasleei matematika formaletarako jauzia egiteko eskatzen zaie. Pausu horretan huts egiten dute askok. Bigarren hezkuntzako eta unibertsitateko ikasleek zailtasunak dituzte potentzial elektrikoa ikasteko, zirkuitu elektrikoen eta haien balantze energetikoaren analisirik ez delako egiten. Fisikako hirugarren urteko ikasle gehienek ez dute oraindik argi ulertzen potentzial-diferentzia eta indar elektroeragilea kontzeptuen erabilgarritasuna (Guisasola & Montero, 2010). Horrek potentzial-diferentzia eta indar elektroeragileak kausa erradikalki ezberdinek eragindako ekintza mota ezberdinak neurtzen dituztela aurkezteko beharra erakusten du (Roche, 1987; Varney & Fisher, 1980).

Fisikaren Irakaskuntzako ikerketak behin eta berriz erakutsi du ikasleen beste zailtasunetako bat; korrante zuzeneko zirkuitu elektriko simple baten funtzionamendua azaltzen duen eredua ulertzea. Ikerketaren arabera, bigarren hezkuntzako eta unibertsitateko ikasleen ehuneko handi batek korrante elektrikoaren eredu bat du, non kargak potentzial elektriko desberdina duten bi punturen artean mugitzen diren (kargen fluxu-eredua). Baina karga-fluxuak zailtasun handiak ematen dizkie ikasleei. Clossetek (1983) erakutsi zuen bigarren hezkuntzako eta unibertsitateko ikasle askok zirkuitua aztertzen dutela arrazoibide sekuentzial bat erabiliz. Ikasle horien ustez, hainbat entitate daude (korrontea, elektroiak edo elektrizitatea) bateriatik ateratzen diren intentsitate eta tentsioarekin lotuta, eta zirkuituko elementu bakoitzetik igarotzeak gutxiago edo gehiago eragiten die; adibidez, "erresistentziak korrontea erabiltzen du" edo "korrontea bonbillan gastatzen da", aztertzen ari garen elementura heldu baino lehen korronteari gertatu ahal izan zaionari erreferentziarik egin gabe. Korrontea bateriaren beste polora nola "itzultzen" den ere ez dute kontsideratzen. Gainera, beste ikerketa batzuen arabera, bigarren hezkuntzako ikasleek uste dute

korrontea bonbilla batetik pasatzen denean gastatzen dela edo bateria batek ematen duen korrontea zirkuituaren topologiaren independentea dela. Bigarren hezkuntzako ikasleek zailtasunak dituzte seriean eta paraleloan konektatutako erresistentzien portaera interpretatzeko orduan, KZ zirkuitu oso batean. Ikasleei zaila egiten zaie onartzea paraleloan dauden erresistentzien kopurua handitzen denean erresistentzia osoa gutxitu egiten dela. Kosta egiten zaie, halaber, korrontearen eta erresistentzien arteko lotura ulertzea, eta erresistentzien eta potentzial-diferentziaren arteko erlazioa ulertzea (Liegeois & Mullet, 2002).

Potentzial elektrikoa eta potentzial-diferentzia bezalako kontzeptuak korronte intentsitatearekin edo energiarekin nahasten dira maiz. Kontzeptu horiek bateria baten "indarra" irudikatzeko erabiltzen dira. Gainera, ikasleek maiz ez dute ulertzen zirkuitu bateko bi punturen arteko potentzial-diferentzia haien topologiaren araberakoa dela. Smith eta van Kampenek (2011), begizta bakar batean edo gehiagotan bateriak zituzten zirkuituei buruzko ulermen kualitatiboa ikertu zuten prestakuntzan ari ziren irakasleekin. Gehienak begizta bati edo gehiagori bateriak gehitzearen ondorioak azaltzeko gai ez zirela aurkitu zuten, euren joera korronte eta erresistentzian oinarrituz arrazoitzea baitzen, tentsioan beharrear. Bateria korronte iturri konstante bat bezala ulertzen zutela ere ikusi zuten, eta erantzunak korrontearen kontserbazioarekin bat ez zetozela.

Borges eta Gilbertek (1990) egindako zirkuitu elektrikoaren azalpen-ereduei buruzko azterlanean bigarren hezkuntzako ikasleek eredu alternatiboak dituztela erakutsi zuten, hala nola "elektrizitatea fluxu gisa" edo "elektrizitatea korronte kontrajarri gisa", non korrontea osatzen duten karga elektrikoak ez diren banaka kontuan hartzen. Eredu horiek apenas aipatzen duten elektrizitatearen izaera, eta funtsean deskribatzaileak dira. Bi ereduak oso mugatuta daude korronte elektrikoak zirkuituan izango duen portaera aurreikusteko. Borges eta Gilbertek erakusten dute bigarren hezkuntzako eta unibertsitateko azken urteko ikasleek azalpen-eredu konplexuagoak dituztela. Adibidez, elektrizitatearen inguruan

pentsatzean "kargen mugimendua" edo "eremua" irudikatzen dute. Eredu hauek korrante elektrikoekin lotutako fenomeno batzuk azaltzeko gai dira, korrante intentsitatearen eta bateriaren potentzial-diferentziaren arteko erlazioa kasu. Greca eta Moreirak (1997) erakusten dute, ikasleek elektrizitateari buruz dituzten azalpen-ereduek konplexutasun handiagoa hartzen dutela irakaskuntza-urteak igaro ahala, baina ikasle gehienek eredu zientifikotik urrun jarraitzen dutela.

Ikasleek korrante zuzeneko zirkuitu elektrikoari buruz dituzten eredu alternatiboen berrikuspena

Aurreko ataletan behin baino gehiagotan aipatu den bezala, ikasleek zailtasunak izan ohi dituzte zirkuitu elektrikoaren funtzionamendua ulertzeko. Ikusi da ikasleek ereduak linealak eta sekuentzialak izateko joera dutela, sistemikoak eta aldiberekoak izan beharrean. Ikerketak erakusten du ikasle zein irakasleek zirkuitu elektrikoaren ulermena ikaskuntzaren aurrerapen akademikoarekin eta denborazkoarekin zerikusia duen ereduaren nolabaiteko progresioan garatzen dela (beste faktore batzuen artean). Halaber, zirkuitua sistema gisa kontuan hartuta arrazoitzeko beharra agertzen denean gehiengo handi bat trabatuta geratzen dela ere erakusten du, eta baita kausak eta efektuak onartzeko gure ohiko ohituratik desberdinak diren kausalitate-formak bistaritzen ere.

Ikasleek elektrizitateari eta haren osagaiei dagokienez duten ulermenari buruzko ikerketak asko eta askotarikoak izan dira azken hamarkadetan (Cohen, Eylon & Ganiel, 1983; Steinberg, 1987; Dupin & Joshua, 1989; Roche, 1989; McDermot & Shaffer, 1992; Millar & King, 1993; Viennot, 1994; Stocklmayer & Treagust, 1994; Benseghir & Closset, 1996; Duit & Rhöneck, 1998; Borges & Gilbert, 1999; Thacker, Ganiel & Boys, 1999; Chabay & Sherwood, 1999; Grotzer & Sudbury 2000; Roche, 2003; Engelhardt & Beichner, 2004; Stocklmayer 2010; Smith & van Kampen 2011; Koponen & Huttunen 2013).

Aurretiko ikerketek agerian uzten dute ikasle asko gai direla kontzeptuen definizioak formulatzeko (korrontea, tentsioa, energia, etab.) eta horiek irudikatzeko erabiltzen diren sinbolo algebraikoak manipulatzeko, baina gehienetan ez dituztela kontzeptuak elkarren artean lotzen, edo arazoak izaten dituztela benetako zirkuitu batean aplikatzean (McDermott & Shaffer 1992).

Aurreko ataletan ere aipatu da ikasleek elektrizitatearen inguruan dituzten ideiei buruzko ikerketa gehienak bigarren hezkuntzako ikasleekin egin direla, nahiz eta aipatutako batzuek, McDermott & Shaffer 1992 edo Borges & Gilbert 1999 kasu, unibertsitateko ikasleen buru-ereduak ere aztertu dituzten. Horietatik guztietatik, ikasleek (bigarren hezkuntzatik unibertsitatera, eta baita unibertsitate ondokora ere) elektrizitatearekin lotutako fenomenoak interpretatzeko erabiltzen dituzten buru-ereduak atera daitezke, eta, zehazkiago, korronte zuzeneko zirkuitu elektrikoei buruzkoak.

Normalean, ikasleen kausa-ereduek eredu sinple lineal batetik sekuentzial zikliko bateraino egiten dute aurrera. Eredu horiek erakustea helburu izan duten ikerketei erreparatzen badiegu, jarraian azalduko ditugun zirkuitu sinpleen eredu horiek bateratu ditzakegu:

Eredu unipolarra

Ikerketak (Fredette and Lochhead, 1980; Osborne, 1983; Kärrqvist, 1985; Osborne & Freyberg, 1985; McDermott & Shaffer, 1992; Borges & Gilbert, 1999; Grotzer, 2004; Clement & Steinberg, 2008) bat datoz Osbornek (1981) izendatu zuen oinarrizko eredu bat definitzean. Honakoak dira ereduaren ezaugarri nagusiak:

Eredu honen ezaugarri orokorretako bat korrontea zirkuitu elektrikoan zehar dabilen "zerbait" (fluido bat, energia edo elektrizitatea) bezala definitzen dela da. Batzuetan, zirkuituan dabilen horri energia esaten zaio, beste batzuetan

elektrizitatea edo korronte hutsa. Bateria zirkuituan zehar dabilen energiaren /
elektrizitatearen iturria da.

Iturriaren eta honek eragiten duen objektuaren arteko lotura fisikoa beharrezkoa da egunerokoan; adibidez, bonbilla bat bateria bati behar bezala lotuta dagoenean bakarrik pizten da. Korronte fluxu horrek norabide bakarreko bidea hartzen du, bateriatik bonbillara adibidez, eta, ondorioz, bonbilla piztu egiten da. Kontsumo-iturri erlazio nabaria dago (gehienetan bateria-bonbilla bezala definitzen dena): korronte bateriaren polo positibotik bonbillara irteten da, eta bertan korronte guztia kontsumitzen da. Beraz, bateria elektrizitaterako edo energiarako edukiontzia dela hartzen da aintzakotzat.

Beste ezaugarri orokor bat da zirkuituaren portaeraren barruko mekanismo edo prozesurik deskribatzen ez duela.

Eredu horren muga nagusia, bigarren kablea beharrezkoa ez dela ondorioztatzea da, ez baitu paper aktiborik zirkuituan. Itzulerako bidean korronterik ez dagoela uste da, hau da, bateriako terminalletako bat bakarrik hartzen da aktibotzat. Ikasle batzuek pentsatzen dute kable bakarrarekin nahikoa dela, beste batzuek adierazten dute bigarren kablea segurtasun kable bat dela.

Eredu horrek onartzen du kausek beti dituztela ondorioak (denbora-lehentasan gisa ezagutzen dena), eta kausa eta efektu bana daudela. Ikasleak nahiko azkar konturatzen dira disposizio lineal sinple horrek ez duela funtzionatzen bonbilla bat pizten denean. Dena dela, asko kostatzen zaie eredu sinple lineal hori alde batera uztea. Bigarren kable bat beharrezkoa dela konturatzen direnean ere (edo zehatzago, bateriarekin kontaktu positibo bat eta negatibo bat), lehen aipatu bezala, bigarren kablea lurrerako kontaktua besterik ez dela argudiatzen dute. Gainera, oso ohikoa da bonbillek elektroiak "kontsumitzen" dituztela onartzea. Eredu unipolarraren erabilera oso iraunkorra da, eta askotan agertzen da.

Aurretik aipatu bezala, Osbornek (1983) izendatu zuen eredu hori, eta Fredette & Locchheaden (1980) "pila ereduaren" antzekoa da. Kärrqvistek (1985) ere bere ikerketan aurkitutako eredurik sinpleena bezala sailkatu zuen (beste seiren artean). Borges & Gilbertek (1999) "Elektrizitatea fluido gisa" izendatu zuten eredu, eta ikusi zuten eredu horren ezaugarria nozio zientifikoaren (korrontea, energia, elektrizitatea eta tentsioa) arteko bereizketa eskasa dela. Haien ikerketan, eredu hau erabiltzen zuten subjektuek ez zuten zirkuituaren portaera deskribatzen barne mekanismo eta prozesuak erabiliz. Haien deskribapenak, batez ere, hautemandako gertakizun eta efektuen asoziazioetan oinarritzen ziren. Eredu hau, batez ere bigarren hezkuntzako ikasleetan (15 urte) aurkitu zen, eta, partzialki, gaikuntzarik gabeko profesionaletan.

Osborne & Freyberg (1985) adierazi zuten eredu hori batez ere ikasle gazteenetan dagoela eta normalean instrukzioarekin desagertu egiten dela, baina McDermoot & Shafferrek (1992) ebidentziak aurkitu zituen unibertsitateko ikasleetan. Ikasle horiek zirkuitu sinple bat marraztean (bateria, kable eta bonbilla batez osatua) ez zuten zirkuitu osoaren kontzeptua aplikatzen. Marraztutako diagrametan, ikasleen % 55 inguruk ez zuten bonbilla pizteko zirkuitua osatzen, bonbilla bateriara konektatzen zuten kablearen bidez polo batekin, eta gainerakoa nolabait osatu gabe uzten zuten.

"Causal Patterns in Simple Circuits" liburuan, Grotzerrek (2004) "Eredu Sinple Lineala" izena ematen dio. Baieztatzen du eredu horrek barneratzen duela kausek beti dituztela ondorioak (denbora-lehentasun gisa ezagutzen dena), eta kausa eta efektu bat daudela. Ikasleak beste kable bat behar dutela konturatzen direnean ere, normalean argudiatzen dute beste kablea "lurra egiteko" besterik ez dela.

Clement & Steinberrek (2008) beraien ikerketan eredu hori bera aipatzen zuten, baina "Kable Bakarra" izenarekin. Bertan, korrontea bateriatik hartzailera kable

batetik bakarrik doala definitzen zuten. Ikasleek zirkuitu itxiaren kontzeptua lantzen dutenean eredu hau murriztu egiten dela esaten zuten, kondentsadore baten kargatzea aztertzen hasten direnean berriro agertzeko joera duen arren.

Korronte kontrajarriak

Azken hamarkadetako zenbait ikerketak (Osborne, 1983; Shipstone, 1984; Kärrqvist, 1985; Osborne a& Freyberg, 1985; Borges & Gilbert, 1999; Grotzer, 2004) korronte kontrajarrien eredua definitze dute. Kärrqvistek (1985) izendatu zuen horrela, eta honakoak dira bere ezaugarri nagusiak:

Eredu honek ezaugarri komun bat du eredu unipolarrarekin: kontsumo-iturri erlazioa dago oraindik, bateria-bonbilla erlazioari estuki lotua, eta bateria korronte-edukiontzia gisa ulertzen da. Hala ere, aurreko eredua baino zertxobait landuagoa da. Korronte elektrikoa bateriaren poloetatik irteten den energia edo elektrizitatea da, baina kasu honetan bi korronte bereizten dira, bata “positiboa” eta bestea “negatiboa”, eta norabide bakarreko bideak jarraitzen dituzte.

Bateriaren poloetako bakoitzetik ateratzen da korrontea, eta zirkuituko elementuetan kontsumitzen da. Kargaren kontserbazioa ez da kontuan hartzen, eta bateria korronte-biltegi gisa ulertzen da. Eredu honen bi bertsio daude, batean bi korronteen talka da bonbilla pizten duena; bestean, korronte bakoitzak bere aldetik egin dezake bonbilla piztea.

Eredu horren muga nagusiak dira kargak bateriaren poloetan pilatzen direla, eta ez dela azaltzen zein rol duten elektroien eta protoien zirkuituko elementuetan elkartzen direnean (bonbillan, adibidez).

Zirkuituaren portaera-mekanismoek protoien eta elektroien arteko erakarpenak edo kontrako korronteen arteko talkak hartzen dituzte kontuan.

Kärrqvistek (1985) horrela izendatutako eredu hau Osborneren (1983) "talka egiten duten korronteen" ereduaren eta Shipstoneren (1984) "1 ereduaren" antzekoa da. Osborne & Freybergek (1985) 10 eta 13 urte bitarteko ikasleen artean eredu hau oso erabilia dela ikusi zuten, baina bigarren hezkuntzako ikasleen artean ez da hain ohikoa. Borges & Gilbertek (1999) "korronte kontrajarrien elektrizitate eredu" deitu zuten, eta baieztatu zuten eredu horretan korrontea ez dela argi eta garbi energiatik bereizten: batzuetan bi terminoak baliokide gisa erabiltzen dira. Korrontea, zirkuituko kableetan zehar, bateriaren bi terminaletatik bonbillaraino doan energia edo elektrizitate gisa ikusten da. Hau da, eredu horrek esplizituki onartzen du korrontea ez kontserbatzea. Bateria elektrizitate / energia erreserba bat da oraindik ere, eta denborarekin kontsumitzen da, bonbillan dagoen energia kontsumo baten ondorioz. Bonbilla pizteko, beharrezkoa da zirkuitu itxi bat izatea, eta korrontea zirkuituan zehar azkar bidaiatzen duela onartzen da. Zirkuituan etengailuak jokatzeko duen rola ez da argi geratzen: batzuek korrontea sortzen duela iradokitzen dute. Ikasleek batzuetan protoiak eta elektroiak aipatzen dituztela ere identifikatu zuten, elektrizitatea zirkuituan zehar mugitzen diren partikula elektrikoetan datzala iradokiz. Gertaeren denbora-sekuentzia gisa azalpenak emateko joera dago.

Grotzerrek (2003) eredu horri "eredu lineal bikoitza" deitu zion. Eredu hori, batez ere, elektrizitate estatikoak nola funtzionatzen duen ulertzen duten ikasleek erabiltzen dutela azaldu zuen. Kausalitate lineal sinplea (kausa-efektua) eta sekuentziala (denboran ordenatutako gertaerak) atxikitzen dituzte, eta gehienetan bi bide erakusten dituzte. Bideak gehigarriak bakarrik izan daitezke (elektrizitatea bi aldeetatik doa) edo korronteen erakarpenean edo talka alderdiak izan ditzakete. Horretan pentsatzeko eskatu ezean, ikasleek ez dute arazotzat jotzen bonbillan elektroiak eta protoiak pilatzea, nahiz eta eredu horrek metaketa iragartzen duen.

Sekuentziazko zirkuitu itxia

Hainbat ikerketatan (Osborne, 1983; Shipstone, 1984; Kärrqvist, 1985; MCDermott & Shaffer, 1992; Borges & Gilbert, 1999; Grotzer, 2004) da ohikoa hirugarren eredu hau, eta honako ezaugarriek definitzen dute:

Eredu honetan, eroale batean mugitzen ari diren kargatzat hartzen da korrontea. Zirkuituko elementu guztiek bi konexio dituzte eta korronteak norabide jakin batean zirkulatzen du zirkuituan, eta zirkuituak etengailua itxita dagoenean bakarrik funtzionatzen du. Korrontea ez dela kontserbatzen iradokitzen du, ziurrenik korrontearen eta energiaren arteko bereizketa faltagatik.

Ikasleek zirkuitua hutsik ikusten dute normalean, eta korronte elektrikoa bera betetzen duen substantzia dela uste dute, azkenean zirkuituko osagaietara iristen delarik. Korrontea puntuz puntu mugitzen dela eta zirkuituan aurkitzen duen osagai bakoitzari eragiten diola uste dute. Kasu honetan ere ez da betetzen karga kontserbaziorako oinarritzko printzipioa. Korrontea norabide bakarrean doa zirkuituan zehar, baina pixkanaka gastatzen doa zirkuituko osagaietatik igaro ahala. Horrela, korrontea (edo kargak) ateratzen den tokitik urrutien dauden osagaiak izango dira korronte gutxien jasotzen dutenak, eta, beraz, bonbillen kasuan, hurbilen daudenak baino gutxiago argiztatuko dira. Korronte elektrikoak edo elektroiek bateriara iritsi arte jarraitzen dute, eta han birziklatu egiten dira. Normalean, korrontea kontsumitzen dela uste dute, eta, beraz, ez dago elementu guztientzako korronte nahikorik. Kablearen tamaina handituz gero bonbillak pizteko denbora gehiago beharko dela pentsatu ohi dute.

Zirkuituaren portaera azaltzen duten mekanismoek kargen eta eroalearen egituraren arteko talkak azalpenak hartzen dituzte aintzakotzat, baita fluidoaren mugimendua eta analogia antropomorfitikoa ere, korrikalari nekatuarena kasu.

Oro har, eredu hori denboraren mendeko gertakari-sekuentzia gisa deskribatzen da. Ikasleek kausa-efektu kate sekuentziala den arrazonamendu lineala erabiltzen dute.

Kärrqvistek (1985) "Korronte Kontsumo Eredua" deitzen du, eta Shipstoneren "Sekuentzia Eredua" (1981) eta Osborneren "Indargabetze Eredua" (1983) antzekoak dira. Kasu horietan guztietan, korrontea denboraren mendeko gertakari-sekuentzia gisa deskribatzen da, zirkuituaren osagai erresistiboetatik igaro eta bateriara itzultzen den heinean kontsumitzen da.

McDermott & Shafferrek (1992) ere eredu hori aipatu zuten unibertsitateko lehenengo mailako ikasleekin egindako ikerketan. Aipatutako ikasleen ehuneko handi batek korrontea kontsumitzen dela uste zuten ebidentziak aurkitu zituzten: bateriak etengabe ekoizten du korrontea eta zirkuituko elementuek kontsumitzen dute.

Eredu hau Borges & Gilbertek (1999) "Elektrizitatea Mugimenduan dauden Karga gisa Eredua" izendatu zuen. Maila aurreratuko ikasleei, teknikari batzuei eta ingeniari gutxi batzuei, korrontea eroale batean zehar mugitzen diren karga elektrikoetan datzala iruditzen zaie. Bateria elektrizitate iturri aktibotzat jotzen dute, hau da, kargetara erreakzio kimiko baten bidez banatzen den energia ekoizten du. Nabariak dira zirkuituko elementuen bipolaritatea eta zirkuitu itxi baten beharra, korrontek zirkulatu dezan. Zirkuituaren portaera denboraren mende dauden gertakarien sekuentzia bat erabiliz azaltzen da. Ziur asko, gertakarien sekuentzia hori, kausa eta efektuen kate-arrazoiketaren ondorio da. Banakako osagaien portaeran dago enfasia, eta, beraz, eredu hori erabiltzen dutenak ez dira gai izaten zirkuitu bat sistema interaktibo gisa hautemateko.

Grotzerrek (2004) eredu hau "Eredu Sekuentzial Ziklikoa" izendatu zuen. Bere liburuan, eredu hau denboraren mendeko gertakari-sekuentzia gisa deskribatzen du.

“Korrontea zirkuituko osagaietatik igaro ahala kontsumitzen da, nahiz eta frakzio bat bateriara itzultzen den. Hau da, ikasleek kausa-efektu kate sekuentziala den arrazoiketa lineala erabiltzen dute. Gainera, nahiko ohikoa da, eta bereziki erresistentea aldaketarekiko. Unibertsitatean fisikako irakasgaietan parte hartu eta azterketak gainditu dituzten ikasleengan mantentzen da baita ere. Eredu hori gainditzeko, arreta jarri behar zaio zirkuituari sistema gisa, eta arreta zirkuituaren osagaietan modu sekuentzialean jarri beharrean, aldiberean zer gertatzen den pentsatu behar da, ”

Aldibereko zirkuitu itxia

Ikerketak (Cohen et al., 1983; Shipstone, 1984; Kärrqvist, 1985; Borges & Gilbert, 1999; Grotzer, 2004) bat datoz aldibereko zirkuitu itxiaren eredua definitzean. Honako ezaugarri nagusiak definitzen dira:

Eredu horretan ere, eroale batean elektroiak mugitzean datza korrontea. Kasu honetan, ordea, aurrekoan ez bezala, korrontea zirkuituko osagaien artean partekatzen da aldi berean. Kausalitatea zaila da ulertzen, elektroiak aldaratu egiten direlako eta aldi berean aldaratzen dutelako, korronte elektrikoa zirkuitu osoan zehar sortuz. Elektroiak aldaratu egiten dira haien artean eta, aldi berean, zirkuituan dauden gainerako elektroiak aldaratzen dituzte, eta hori da fluxuaren arrazoia eta bonbilla piztearen arrazoia. Elektroifluxua dagoen une berean (etengailua ixten den unean, zirkuitu itxiaren nozioa dakarrena) bonbillaren harizpiak berotu egiten dira eta hau piztu egiten da. Bateriak elektroiak haren polo positibotik polo negatibora garraiatzeko lana egiten du.

Zirkuituaren portaera-mekanismoak honakoa azaltzen du: zirkuitua itxita dagoenean, elektroiak elkar aldaratzen dira eta zirkuituan zehar ibiltzen dira

bateriaren polo negatiboko gehiegizko elektroiek aldaratzen dituztelako, protoi gehiegi dituen polo positiboraino.

Arrazoibidean, ez dago kausa-efektu lehentasunik: kausa ez dago efektuaren aurretik, kausa maila lokalean eta maila sistemikoan batzen da, hau da, dena batera mugitzen da.

Kärrqvistek (1985) "Korronte iturri konstantearen eredua" deitzen dio eredu horri. Korrontearen zirkulazioa modu ziklikoan deskribatzen zuen, baita zirkuitu itxi baten beharra ere. Dena den, Kärrqvisten ereduan, bateria korronte konstantearen iturri bezala ikusten da, hau da, bateriak hornitutako korrontea beti bera da, zirkuituaren ezaugarriak axola gabe. Eredua hau Cohen et al. (1983) aurkeztutakoaren antzekoa da, eta Shipstoneren (1984) "Banaketa-ereduaren" ezaugarri batzuk erakusten ditu. Shipstoneren arabera, eredu hori ikasleek zirkuituaren funtzionamenduari buruzko arau batzuk barneratzearen ondorio da.

Grotzerrek (2004) "Aldibereko Eredua Zikliko" izena ematen dio. Behin ikasleek kablea elektroiek (eta protoiak eta neutroiak) dituzten atomoz osatuta dagoela ikasten dutenean, zirkuitua piztu aurretik kable osoan elektroiek daudela ulertzen dutela aipatzen du. Elektroiek aldaratu egiten dira eta, aldi berean, zirkuituan dauden gainerako elektroiek aldaratzen dituzte, eta hori da fluxuaren arrazoia eta bonbilla piztearen arrazoia. Elektroiek bateriaren terminal negatiboan kontzentratzen dira. Elektroiek elkarrengandik aldaratzen direnez, kablea konektatu eta zirkuitua osatzean, elektroiek zirkuituan zehar ibiltzen hasten dira (bateriaren polo negatiboko gehiegizko elektroien aldarapenagatik) polo positiboraino (gehiagizko protoiak dituen). Elektroiek kabletik ibiltzen hasten direnez, dagoeneko kablean dauden elektroiek ere mugitzen hasten dira. Hau da, elektroiek bakoitza aurrekoak aldaratzen du, eta horrela hurrenez hurren. Protoiak ez dira mugitzen. Fluxua dagoen une berean, bonbillaren harizpiak berotu eta piztu egiten dira. Elektroiek kontserbatu egiten dira, bateriara itzultzen

dira, non gehiegizko protoiek erakartzen dituzten. Bateriaren kimikoek "lana" egiten dute elektroiak bateriaren terminal negatibora berriro eramateko. Ezinezkoa da osagai batek aurrekoa gabe funtzionatzea, eta, beraz, eredu hau bizikleta kate batekin konparatu ohi da. Grotzerren arabera, eredu horrek korrontea zirkuituko osagaien artean aldi berean partekatzen dela ulertzen laguntzen die ikasleei. Kausalitatea ulertzea zaila da, elektroiak aldaratu egiten direlako eta aldi berean beste elektroi batzuk aldaratzen dituztelako. Kausen eta efektuen arteko denbora-lehentasunaren ideia alde batera uztea ere eskatzen du. Aldiberekotasuna dago. Garrantzitsua da zirkuitua sistema gisa ulertzea.

Ohmen Eredua

Hainbat ikerketak (Osborne, 1983; Shipstone, 1984; Kärrqvist, 1985; Borges & Gilbert, 1999; Grotzer, 2004) bat egiten dute eredu hori definitzerakoan. Eredu hori Kärrqvistek (1985) izendatu zuen, eta ezaugarri nagusi hauek ditu:

Korrontea eroale baten barruko elektroi mugimendu gisa definitzen da. Eredu honetan, lehenengoz, elektroikontzentrazio ezberdinak jartzen dira agerian zirkuituan, eta zirkuitua sistematzat hartzen da. Korrontea kontzentrazioek emandako desoreka-erlazioaren ondorio da, kontzentrazio handiagoko eremuak baitaude. Bateria da poloetan elektroikontzentrazioen desberdintasun horiek sortzen dituen, eta horrek, aldi berean, potentzial-diferentzia bat sortzen du.

Beraz, korrante-ekoizpenaren mekanismoa zirkuituko puntuen arteko potentzial-diferentzia da.

Erabilitako arrazonamendua erlaziozkoa da, non bi aldagaien arteko erlazioaz emaitza baten kausa bezala pentsatu behar den (eta ez aldagai edo gertaera bakarra hartu kausa gisa).

Kärrqvistek (1985) Ohmen Eredua honela definitzen zuen ereduia izendatu zuen: korrontea zirkuituan zehar doa energia transmitituz. Korrontea kontserbatu egiten da, eta ondo bereizten da energiatic. Zirkuitua elkarri eragiten dion sistema oso bat bezala hertzen da, zirkuituko puntu batean aldaketa bat sartzen denean aldaketa horrek sistema osoari eragiten dio. Eredua hori Osbornek (1983) eta Shipstonek (1984) aurkitutako "Eredua Zientifikoari" dagokio. Beraien ikerketaren arabera, zenbat eta formazio handiagoa jaso orduan eta ohikoagoa da eredu hau.

Borges & Gilbertek (1999) antzeko eredu bat aipatzen dute, eta "Elektrizitatea eremu fenomeno gisa" deitzen diote. Borges & Gilbertek eredu honetan, korrontea eta energia bereizten dira, eta potentzial-diferentzia baten eraginpean elektrikoki kargatutako partikulen mugimendu bezala ulertzen da korrontea. Korrontea zirkuitu itxietan baino ez da zirkulatzen eta kontserbatu egiten da; zirkuitua osatzen duten elementuen bipolaritatea ere ezagutzen da. Bateriak bere terminalen artean potentzial-diferentzia bat mantentzen du, eta honek eremu elektriko bat sortzen du. Horrek, azken batean, karga elektrikoak eroaletik mugitzea eragiten du. Borges & Gilbertek arabera, eredu mental hau dutenek energia eraldaketei ere erreferentzia egiten diete, baina zirkuitu batean gertatzen diren prozesuak azaltzen dituzte, kargen gainean jarduten duen eremu elektriko baten terminoetan. Zirkuitua elkarri eragiten dion sistema oso bat bezala hautematen da, eta bertan aldaketa bat gertatzen denean, perturbazio elektriko bat zirkuituan zehar hedatzen da egoera geldikor berri bat ezarriz. Subjektuek oraindik ulertzen dute korrontea kargen mugimendu gisa, baina beharrezkoa denean eremuan oinarritutako azalpenak emateko gai dira. Eredua hori nahiko arrunta da fisikako irakasle eta ikasle tekniko gutxi batzuen artean. Aipatutako ikerketaren arabera, pertsona batzuek antzeko eredu mentala hartzen dute, baina desberdintasun batzuekin. Zirkuituaren portaeraren deskribapen funtzionala egiten dute, energiari eta tentsioari dagokienez. Hau da, energia-eraldaketei buruz hitz egiten dute maiz, baina ez dira horiek deskribatzeko gai

izaten. Zirkuitua modu holistikoan ikusteko gai izaten dira, ez baitute denbora-sekuentziarik erabiltzen zirkuitua deskribatzeko, eta ez dute osagai bakoitzaren portaeran jartzen fokua. Dena dela, pertsona horiek ez dute zirkuituaren funtzionamendua eremu elektrikoa erabiliz azaltzen; horregatik, ezin dute behar bezala azaldu zergatik pizten den bonbilla etengailua piztu eta berehala.

Grotzerrek (2004), eredu "Erlazio-eredu" izendatu zuen. Bere hitzetan eredu honek zientifikoki onartutako potentzial elektrikoaren kontzeptua du oinarri. Kargen diferentziala eta hauen oreka ditu ardatz. Bateriaren polo negatiboan elektroio gehiegi egoteak, elektroio kantitate txikiagoa izateak eta bateriaren polo positiboan protoi gehiegi egoteak diferentzial bat sortzen dute, eta elektroioak kontzentrazio handieneko eremuetatik elektroio kontzentrazio txikieneko eremuetara igarotzen dira. Bateriaren kimikoek "lana" egiten dute elektroioak bateriaren terminal negatibora berriro mugituz. Potentzial elektrikoaren kontzeptuak kausazko arrazoibide erlazional bat dakar, non bi aldagairen arteko erlazioari buruz pentsatu behar den emaitza baten kausa gisa (eta ez aldagai bat edo gertaera bat kausa gisa). Eredu horrek bulkada elektrikoak kabletik zergatik hedatzen diren ulertzen laguntzen die ikasleei. Gainera, zirkuituan Ohmen legea erabiliz pentsatzeko eta tentsio, erresistentzia eta azkenik korrante erabiltzeko baliagarria da. Sistema osoa hartzen du kontuan, eta aldagai ezberdinek bertan nola eragiten duten.

Hainbat ikerlanek erakutsi dute ikasleek sortzen dituzten eredu alternatiboen aniztasunaren arrazoi-tako bat honakoa izan daitekeela: behatzen dutenaren eta ematen dituzten azalpenen arteko ondorioak ezartzeko erabiltzen dituzten arrazoibideak (Barbas & Psillos, 1997). Kontuan hartu beharko litzateke zailtasun horiek ez direla berariaz elektrizitatera mugatzen, prozesu fisikoak barne hartzen dituzten beste gai batzuetan ere agertzen baitira (Driver et al., 1994; Barbas & Psillos, 1997). Bi iturri nagusi daude arazo horietarako: Lehenbizikoa, zirkuitu elektrikoak ulertzeko behar den arrazoibide sistemikoaren (osagai guztiek

elkarren artean elkar eragiten duten eta edozein perturbazio norabide guztietan hedatzen den sistema gisa ulertuta) eta arrazoiketa kausalaren artean funtsezko aldeak daudela. Bigarrenik, ulermen egokia lortzeko beharrezkoak diren elkarren segidako eredu zientifikoen mailen artean loturarik ez egotea. Zehatzago esanda, maila makroskopikoko aldagaiak erabiliz zirkuituen deskribapen kualitatiboaren eta maila mikroskopikoko ereduak deskribatutako azpiko prozesuen artean asoziaziorik ez egitea.

Atal honetan, erresistentziak dituzten korronte zuzeneko zirkuituen azalpena (eta horrek berekin dakartzan lege fisikoak, materiaren eredu mikroskopikoak eta elektrizitatearen hainbat kontzeptu elkartzeko koherentzia) ikasleengan ikasteko zailtasun iraunkorrak dituen gaia dela erakusten duten ebidentziak aurkitu ditugu. Ikasleek zirkuitu elektrikoei buruz arrazoitzen dutenean, elektrizitatearen oinarrizko kontzeptuak integratu eta aplikatu behar dituzte, hala nola karga elektrikoa, potentzial elektrikoa, korronte elektrikoa eta eremu elektrikoa. Laburbilduz, honako hau egiaztatu dugu:

i) Bigarren hezkuntzako eta unibertsitateko ikasleen ehuneko handi batek elektrizitateari buruzko ezagutza modu zatikatuan erabiltzen du, elektrostatika elektrodinamikarekin lotu gabe. Ikasleek elektrostatikako kapituluak eta korronte zuzeneko zirkuituetakoak bi eremu bereizi gisa ulertzeko joera dute (Eylon & Ganiel, 1990; Bensheguir & Closset, 1996; Bagno & Eylon, 1997; Guruswamy et al., 1997; Hazelton et al., 2013).

ii) Ondo ezarrita dago zirkuitu elektrikoekin tratatzen direnean ikasleei ikasteko zailtasunik handienak eragiten dizkien kontzeptuetako bat potentzial elektrikoa dela. Gainera, ikasleak ez dira gai korrontearen eta potentzialaren arteko aldeak modu sendoan definitzeko. Sarritan ez dute ulertzen zirkuitu bateko bi punturen arteko potentzial-diferentzia zirkuituaren topologiaren araberakoa dela (Rhöneck, 1981; Closset, 1983; Guisasola et al., 2010). Härtelek (1985) aurkitu zuen ikasleek KZ zirkuitu baten bateria "korronte konstantea" hornitzen duen tresna

gisa ulertzen dutela, poloen arteko potentzial-diferentzia modu konstantean mantentzen duen tresna gisa ordez. Ikasleek zirkuitu elektrikoei buruz dituzten ideiei buruzko hainbat azterlanek ondorioztatzen dutenez, ikasleen azalpen asko elektrizitatean oinarritzen dira fluido gisa, fenomeno makroskopikoak deskribatuz, baina ez dira kargen izaera mikroskopikoari eta horien gainean jarduten duen eremu elektrikoari buruz mintzatzen (Thacker et al., 1999).

iii) Bigarren hezkuntzako eta unibertsitateko hezkuntza-mailetakoko ikasleek erresistentziak dituzten korrante zuzeneko zirkuituen funtzionamendua azaltzeko daukaten moduari buruzko ikerketa asko daude. Ikusi da ikasle kopuru esanguratsu bat dagoela zientifikoak ez diren azalpen-ereduetan oinarritzen dena, eta horien konplexutasuna eta eredu zientifikoarekiko hurbiltasuna hezkuntza-mailaren arabera da (Fredette & Lochhead, 1980; von Rhöneck, 1981; Millar & King, 1993; Barbas & Psillos, 1997).

1.1.2. Elektrizitatea eta zirkuitu elektrikoak irakasteko zailtasunak

Ikerketa batzuen arabera, unibertsitate mailako hastapeneko fisikan sarri eten bat dago elektrostatika eta zirkuitu elektrikoaren gaiak aurkeztean (Thacker et al., 1999; Chabay & Sherwood, 2006). Elektrostatikan, karga elektrikoetan, kargen banaketak sortutako eremu elektrikoan eta potentzial elektrikoan jartzen da arreta. Ondoren, hurrengo kapituluan, baterietan, erresistentzietan, korrontean eta kondentsadoreetan enfokatzeko da. Hala ere, unibertsitate mailako sarrera-fisikako testuliburuetan oso gutxitan lantzen dira eremu elektrikoak jokatzen duen rola elektroien mugimenduan edo zirkuituko eremu elektrikoaren eta potentzial-diferentziaren arteko erlazioa. Jakina, unibertsitate mailako testuliburu gehienek esplizituki definitzen dituzte eremuaren, potentzial-diferentziaren eta korrante elektrikoaren arteko erlazioak, baina normalean enfasi handiagoa egiten da kontzeptu eta legeen arteko erlazio kuantitatiboaren komunikazioan, kontzeptu eta

lege horiek partikula mikroskopikoekin fenomeno makroskopikoak azaltzen dituen "elektroi ereduan" jokatzeko duten rolean baino.

Testuliburuetan makro-mikro erlazio hori urrats bakar batean adierazten da (Stockmayer & Treagus, 1994). Adibidez, korrante elektrikoa honela definitzen da, maila mikroskopikoan: $I = n \cdot q \cdot v_d A$. Gero II. Atalean, erresistentziak dituzten zirkuituetarako Ohmen legea $I = \Delta V / R$ definitzen da maila makroskopikoan (Tipler & Mosca, 2007), eta jarraian $I = \Delta V / R$ eta $E = \rho J$ ekuazioetan arteko erlazio matematikoa (Fishbane et al., 1993). Hala ere, azalpen-prozesuan urrats hori jauzi handia da, abstrakzio-maila nabarmen handitzen baita mundu ikusgarritik mundu abstraktu eta mikroskopikora (Stockmayer & Treagus, 1996).

Elektrizitate sarrerako-ikastaro askotan, zirkuitu elektrikoaren teoriaren muina KZ zirkuituen oinarriko lege batzuk dira, non ikasleek nagusiki modu aljebraikoan arrazoitzen ikasten duten. Zirkuituan falta diren tentsioak (V), korranteak (I) edo erresistentziak (R) aurkitzen ere ikasten dute, parametro baterako eta besterako balioak kalkulatu, aldagaien arteko elkarrekintza modu kualitatibo batean kontsideratzeko bada ere, parametro baten aldaketak beste bati nola eragiten dion aurreikusteko. Testuinguru horretan, ikasleek ematen dituzten azalpenak "azalpen homogeenak" dira, sistemaren ezaugarri diren aldagaien arteko harremanei buruzkoak soilik, eta horiek zirkuituaren egoera geldikorrean bakarrik betetzen dira, eta aldakortasun eza adierazten dute eraldaketa jakin batzuei dagokienez (Halbwachs, 1971; Barbas & Psillos, 1997). Azalpen homogeen horiek a-problematikoak dira, hau da, ez dute zirkuituaren bilakaera deskribatzen eraldaketa baten ondoren, esan nahi da, egoera iragankorretan. Beraz, azpiko prozesu dinamikoei buruzko informazio gutxi ematen dute, eta horiek dira sistema baten egoera geldikorra nola lortu den erakusten dutenak (Barbas & Psillos, 1997). A-kausalak ere badira, eta, beraz, ikasleen arrazoibide

kausaletatik urrun daude, hau da, haien azalpen-indarra erlazioen aldagaiezintasunean eta simetrian oinarritzen da. Beraz, ikasleei harremanen interpretazio kausalak eraikitzen uzten zaie, eta egoera hori Rainson et al. (1994) "formula baten kausalitatea" bezala ezaugarritu zuten.

Eredu mikroskopikoak irakasteko hainbat proposamen egin dira. Eredu horiek kausalak dira eta zirkuitu elektrikoetako egoera iragankor eta geldikorretan daude fokatuta (Chabay & Sherwood, 1995). Proposamen horiek azterketa epistemologikoan eta edukiaren azterketan edo/eta ikasleen arrazoiketaren eta ikusmoldeen emaitzetan oinarritzen dira, eta honako helburu hauek dituzte: ikasleek deskribapen makroskopikoaren eta mikroskopikoaren mailak antola ditzaten sustatzea, egoera geldikorreko legeen azpian dauden prozesuak uler ditzaten sustatzea, lege horien interpretazio kausala saihestea eta zirkuituaren ikuspegi sistemikoa eskuratzea. Irakaskuntza-proposamen horiek unibertsitate mailako hastapeneko fisika testu-liburuetan aurkitu ohi direnak baino xeheagoak eta esplizituagoak direnez, ikasleen arrazoibide kausalaren egiturarekin eta egoera iragankorren ulermenarekin zerikusia duten galdera berriak sortzen dira (Psillos, 1995; Gutwill et al., 1996). Gainera, proposamen horiek erreferentzia argiak ematen dituzte ikasleen eskaera kognitiboen izaera identifikatzeko eta ikertzeko, prozesu fisikoen eredu mikroskopikoari eta zirkuitu elektrikoaren funtzionamendua azaltzeko mekanismoen inguruneari dagokienez.

Elektrizitatearen irakaskuntzan dagoen zailtasun nagusietako bat neurketen maila makroskopikoaren eta azalpenen maila mikroskopikoaren arteko erlazioa da. Izan ere, fisikak etengabe erabiltzen ditu natura ulertzeko eraikuntza oinarritzat har daitezkeen partikulen mundu mikroskopiko ikusezina eta haien arteko harremanak. Egiturak, mugimenduak eta interakzioak barne hartzen dituen partikulen mundua kritikoa da edozein gai fisikorentzat (Harrison & Treagust, 2002; Besson & Viennot, 2004). Hau zientzialarien pentsatzeko edo arrazoitzeko modu garrantzitsu bat da, eta materiaren eredu atomikoa eta bere

propietate estrukturalak barne hartzen ditu. Horregatik, fenomeno makroskopikoen eta mundu mikroskopikoaren arteko arrazanamendua fisikan irakatsi beharreko gaitasun zientifiko garrantzitsua da. Hala ere, makro/mikro arrazanamendua eskasa eta arazotsua dela adierazi da, ikasleek partikula mikroskopikoei propietate makroskopikoak egozten dizkietelako normalean (Millar, 1990; Albanese & Vicentini, 1997).

Elektrizitatearen irakaskuntzan partikulen eredua (elektroiak) aurkezten da, partikula mikroskopikoekin fenomeno makroskopikoak azaltzeko eredu orokor gisa. Ikasleentzat, ordea, zaila da fenomeno makroskopikoak partikulen mundu mikroskopikoari lotutako azalpenarekin lotzea. Partikulak eta maila mikroskopikoan dituzten harremanak ikastea arazo dira ikasleentzat, teoria atomikoa abstraktua delako eta perspektiba oso eskematikoak erabiltzen dituelako. Adibidez, elektroiak hodi batean bola txiki gisa mugitzea korrante elektrikoa azaltzeko, edo karga puntualak edo karga idealak erabiltzea interakzio elektrostatikoak azaltzeko (Eylon & Ganiel, 1990).

Testuliburuetan, korrante elektrikoko makro/mikro erlazioen analisia urrats bakar batean egiten da (Stocklmayer & Treagust, 1994; Stocklmayer & Treagust, 1996). Pauso hori oso luzea da, abstrakzio maila nabarmen handitzen delako mundu bisualetik mundu abstraktu mikroskopikora. Beste arazo bat da partikulen ereduak fenomeno makroskopikoen erantzule bakar gisa duen erabilera mugatua. Oso fenomeno elektriko gutxi daude elektroiei (edo partikula) eredua bakarrik erabiliz azal daitezkeenak, eta fenomeno makroskopikoen azalpenak materiaren egituraren propietateekin osatu behar dira.

Elektrizitatearen irakaskuntzan, beharrezkoa da esplizituki erakustea makro/mikro erlazioak, materiaren egituraren propietateak barne. Fenomeno makroskopikoak azaltzen dituzten maila mikroskopikoko mekanismoen erabilera esplizitua, fenomeno makroskopikoen eta maila mikroskopikorako ulermenaren

arteko jauzia gainditzeko zubia izan daiteke. Bigarren hezkuntzako irakaskuntzan edo unibertsitateko sarrera-mailetan, oso garrantzitsua da ereduaren eskala baten edo bestearen azalpen-indarra. Deskribapen mikroskopiko bat konplikatuegia eta oso zaila baldin bada, alternatiba gisa deskribapen makroskopiko huts bat aurkitzeko beharra egongo da. Maila mikroskopikoak sarritan fisika kuantikoaren testuingurua behar du, eta hori ez da fisika klasikoaren curriculumaren helburua.

Zirkuitu elektrikoak modelatzean makro-mikro alderdiak esplizituki ez aipatzearen arrazoia, hein batean, elektro-ereduaren ezaugarri guztiak kontuan ez hartzea izan daiteke. Zirkuitu elektrikoaren irakaskuntzaren hurbilketa tradizionalak enfasi falta hori justifikatuko dute, kasu askotan ikasleek zenbakizko ariketetan erantzun zuzena lortzen dutela adieraziz, kontzeptuen makro-mikro alderdiak bereizteko gai izan gabe (adibidez, Kirchhoffen legeen aplikazioak erabiliz). Beraz, elektro ereduan parte hartzen duten kontzeptuen alderdi mikroskopiko eta makroskopikoaren arteko aldea nabarmentzea merezi ez duela argudia liteke.

Askotan, ordea, deskribapen makroskopiko hutsarentzat alternatiba bat aurkitu beharra dago. Maiz, maila makroskopikoetan geratzen gara, horrelako azalpenekin: "Lege honek, edo beste lege honek, gauzak horrela izan behar duela esaten digu". Horrelako azalpenak ez dira nahikoak ikasleak asetzeko, batez ere ikaskuntzan ikusmolde alternatiboak agertzen direnean. Are gehiago, gero eta adostasun handiagoa dago elektrizitatea eta KZ zirkuituak gobernatzen dituzten fenomeno mikroskopikoak ikasteak ikasleei dakartzkien onurei buruz (Hirvonen, 2007). Berez abstraktua denez, elektrizitateak oinarri bikaina ematen du ereduaren eraikuntza eta deskribapen makroskopiko eta mikroskopikoaren mailen arteko kontzeptuen lotura irakasteko. Eredu horiek, azterketa epistemologikoan edo edukiaren azterketan eta/edo ikasleen zailtasunen eta arrazoiketen azterketan oinarritzen dira. Haien helburua ikasleengan deskribapen makroskopiko eta mikroskopikoaren mailen artikulazioa sustatzea da (Härtel, 1982;

Knight, 2013; Chabay & Sherwood, 2015) Adibide dira, gainazaleko kargen gradientean oinarritutako eredu mikroskopikoa edo eremu elektrikoan oinarritutako eredu bat erabiltzen duen KZ zirkuituen teoria (Jefimenko, 1966; Sommerfeld, 2003). Ikerketa horien arabera, azalpen bat maila makroskopikokoa da magnitude fisiko jakin batzuetan zentratzen denean, adibidez, erresistentzia, korrontea eta potentzial-diferentzia (zirkuituaren ikuspuntu orokor batetik). Korronte konbentzionala eta magnitudeak aipatzen dituzte definizio operazional mailan (adibidez, Ohmen legea edo potentziala eta eremua lotzen dituen ekuazioa). Halaber, azalpena maila mikroskopikokoa dela kontsideratzen dute, elektroioi, korronte elektriko edo karga-dentsitateari dagokionez tokian tokiko mailan enfokatzan denean (Griffiths, 2005). Argi eta garbi, abantaila litzateke ikasleek zirkuituak eremu elektrikoaren arabera eta honek elektroiekin duen elkarrekintzaren arabera ulertzea, hau da, maila mikroskopikoan ulertzea ohituta baleude (maila makroskopikoan korronte konbentzionala ekarri ala ez). Aitzitik, elektostatika ikasi ondoren, askotan ikasleek egoera berri bati aurre egin behar izaten diote (adibidez, fenomeno elektrozinetikoak), fenomeno berrietara eramateaz gain (kable batean mugitzen diren kargak), eta aurre egin behar izaten diote aurretiaz duten ikuspuntuari (korrontea kable batean zehar ibiltzeko eremu elektriko baten beharra dagoela).

1994an, kablearen gainazaleko kargen gradientearen bidez kable batean korronte elektriko sortzeko mekanismoa azaltzen zuen lehen testuliburua sortu zen, unibertsitate mailako hastapeneko fisika ikasleentzat egokia zen maila batean (Chabay & Sherwood, 1994). Testuliburu berri horrek irakasle eta ikertzaileak inspiratu zituen irakaskuntzan gainazaleko kargetan oinarritutako eredu mikroskopikoak aplikatzeko aukerak aztertzerara. Besteak beste, Thacker et al-ek (1990) erakutsi zuten korronte zuzeneko zirkuituetako fenomeno makroskopikoak ulertzeak mikro mailako prozesu ezkutuak azalduko dituzten eredu mikroskopiko koherenteak erabiltzea eskatzen duela.

1.2. KORRONTE ZUZENeko ZIRKUITU BATEN FUNTZIONAMENDUAREN AZTERKETA EPISTEMOLOGIKOA ETA EGUNGO FORMULAZIOA UNIBERTSITATE MAILAKO HASTAPENeko FISIKAN

Kontzeptuak eta teoria zientifikoak ez dira modu miragarrian azaleratzen; arazoak konpontzeko prozesu neketsu baten eta hasierako hipotesien egiaztapen zorrotz baten emaitza dira (Nersseian, 1995). Zientzian, aldaketa dinamikoa eta alterazioa dira araua, eta ez salbuespena. Zientziaren historia tresna baliagarria da zientziak irakasteko, teoriak eta kontzeptuak eraikitze orduan dauden arazoak identifikatzeko, eta horien oztopo epistemologikoak gainditzeko. Gainera, zientziaren historia baliagarria izan daiteke teoria garatu zeneko gizarte-testuingurua eta eskuratutako ezagutzaren ondorio teknologikoak erakusteko (Guisasola, 2014).

Kontzeptuak eta teoriak ulertzeak, gai jakin baten ulermenaren egungo egoera ezagutzeaz gain, kontzeptu hori denborarekin nola garatu eta findu den jakitea ere eskatzen du. Are gehiago, azken hamarkadetan garatu diren hezkuntza-estandarrek kontzeptuak eta teoriak aurkezteko deia egiten dute, ikuspegi historikoa ez ezik, testuinguru zientifiko eta sozialaren irudikapen egokia ere barne hartuta (Galili & Hazan, 2001).

Zientziaren historiak eta filosofiak zientziaren irakaskuntza aberastu dezaketen alorretako batzuk honakoak dira: zientziaren historia, metodo zientifikoaren izaera eta judizio zientifikoaren baliozkotzea. Argudio askok defendatzen dute zientziaren historia curriculumean sartu behar dela, bereziki irakaskuntza-estrategietan. Baina informazio hori guztia sekuentzia didaktikoak diseinatzeko baliagarria izan dadin, beharrezkoa da azterketa historiko eta epistemologiko hori "asmo pedagogiko" batekin eta ikasleek ikasteko dituzten zailtasunen ezagutzarekin egitea. Kontzeptuen eta ereduaren esanahien arteko "etenak"

aztertzeak kontzeptu fisikoak argitzen, azaltzen eta esploratzen lagun dezake, bai eta ikasleek ikasteko dituzten zailtasunak ulertzen ere (Guisasola et al., 2008a).

Elektrizitatearen historiak ikertzaileek elektrizitatearen kontzeptuaren egungo formulaziora iristeko gairak behar izan zituzten zailtasun epistemologiko eta ontologiko garrantzitsuenak erakusten ditu. Elektrizitatearen kontzeptuak abstraktuak direnez eta ikasleek berez dituzten ideietatik nahiko urrun daudenez, perspektiba historikoa garrantzitsua izan daiteke ikasleek ikasteko dituzten zailtasunak identifikatzeko eta landutako eredu zientifikoaren konplexutasuna baloratzeko orduan. Nolanahi ere, alde nabariak daude gaur egungo ikasleen arrazoiak prozesuen eta iraganeko fisikoen zituzten artean, eta hori kontuan hartu behar da irakaskuntzan (Niaz, 1995).

Hurrengo atalean elektrodinamikaren garapena aztertuko dugu 1799an Alessandro Voltak bateria asmatu zuenetik hasita. Korrante zuzeneko zirkuitu elektrikoaren azalpen-teoriako jauzi kualitatibo garrantzitsuenak identifikatu nahi dira, Fisika klasikoko eredu zientifikoaren funtsezko kontzeptuak identifikatzeko informazioa lortu ahal izateko (Guisasola, 2014).

1.2.1. Elektrizitate estatikotik elektrizitate dinamikoaren eremu berrira: Voltatik Kirchhofferraino

XVIII. mendearen amaieran, Aepniusek elektrizitatearen izaerari fluido elektrikoaren teoriarik ekarpena egin zuenetik, zientzialarien helburua elektrizitatea urrutiko akzioaren legean oinarrituta ezartzea izan zen (zeruko mekanikari arrakastara eman baitzion honek). Coulombek (1785) legea ezarri zuenean, hain zen sinplea komunitate zientifikoan adostasuna lortu zuela. Ondorioz, fluido elektrikoaren ereduak ezarri zen. Ondorioz, urrutiko ekintzaren teoriak hartu zuen arreta guztia, harik eta, askoz beranduago, Faradayk


elektrizitatearen teoria azalpen konplexuagoetara gidatu zuen arte, eremu lerroen kontzeptua erabiliz (Whittaker, 1987).

Hala ere, Jean Antoine Nollet-en (baita Du Fay ere) bi fluidoen teoria elektrikoaren jarraitzaileen eta Benjamin Frankliren fluido bakarraren teoria elektrikoaren arteko eztabaidak bere horretan jarraitzen zuen. Nollet-en iritziaren arabera, bi fluidoen teoriak bi elektrizitate mota ezberdin daudela azal lezake, bata bestearengandik oso ezberdinak: beirazko elektrizitatea, beira igurtziak sortua, eta elektrizitate erresinosoa, anbar igurtziak sortua. Franklinek, aldiz, fluido elektriko bakarra zegoela argudiatzen zuen. Horretaz gain zera esaten zuen; elektrifikazio egoera txikiago batek (edo handiago batek) fluido elektrikoa kopuru normal bat baino gutxiago (edo gehiago) duen gorputz baten egoera islatzen duela. Frankliren ikuspuntuaren lehen zailtasun bat elektrizitate erresinosoa (hau da, karga negatiboa) daramaten bi gorputzen arteko aldarapena azaltzean porrot egiten zuela zen, fluido bakarraren ereduak elektrizitate hori likido falta gisa azaldu baitzuen. Zailtasun hau, beranduago, Frankliren ereduak aldatuz gainditu zen arren (Franz Ulrich Teodosio Aepinus), bi ereduaren arteko eztabaida, 1800eko hamarkadara arte luzatu zen (Binnie 2001, Furio et al. 2004).

Teoria elektrikoaren garapen egoera honetan, nagusiki fenomeno elektostatikoei erreferentzia egiten diena, eremu esperimental berri bat sortu zen, Voltaren bateria. Voltaren bateriaren garapena Luigi Galvani medikuak Bolognan aurretik egindako ikerketek eragin zuten. Galvanik, bere esperimentu elektrofisiologikoetan oinarrituta, animalien muskuluak (bereziki igel-nerbioak) prestatzean, giharra "Leyden botila" moduko bat delako ideia garatu zuen, eta nerbio eta giharren eroankortasun elektrikoa animalia-ehunetan elektrizitate mota bat egotearen ondorio dela azaldu zuen. Galvaniren esperimentuek interes handia piztu zuten, eta, azkenean, eztabaida handia eragin zuen "animalien elektrizitatearen" inguruan.

Volta, hasieran Galvaniren teoriaren alde egin ondoren, "animalien elektrizitatea" zalantzan jartzen lehenetarikoa izan zen. Voltak, igelaren uzkurdura muskularrak, "kontaktu elektriko" baten ondorio izan zitezkeela iradoki zuen. Bi metal ezberdinez osaturiko arku galbanikoak erabiltzearen ondorioa lirateke kontaktu elektriko horiek. Bere eredu elektrikoaren egokitasunaren froga esperimental eztabaidaekin bat emateko asmoz, Voltak 1799an "bateria" asmatu zuen: Londresko Royal Society-ri 1800eko martxoan bidalitako gutun ezagunean honela deitu zuen: "organo elektriko artifizia" bat.

Aurreko esperimientuen eta pila voltaikoaren ondorengo garapenaren ondorioz, fisikaren teoriaren parte bihurtu zen, "zirkuitu voltaiko itxi" batean elektrizitatea mugimendu jarraitua izatearen ideia. Zirkuitu elektrikoaren kontzeptua agertzea, baina, nolabait oztopatu egin zen elektrizitate estatikoaren ezagutza zaharraren ondorioz. Elektrizitate estatikotik elektrizitate dinamikoaren eremu berrirako trantsizio zailaren ondorioetako bat bateria "Leyden botila auto-kargagarri" gisa ulertzea izan zen, eta gainera, bateriaren poloetako batekin efektu kimiko eta magnetikoak sortzeko saiakerak ere ekarri zituen (Benseghir eta Closset 1993; Viennot 1996).




Irudia 1: Leyden botila

XIX. mendeko garai honetan egin zen pila voltaikoaren ikerketa historikoak erakusten du, garai horretan ez zela gaur egun bezain nabarmena pila baten zirkuitu itxiaren eta efektu fisiko-kimikoen arteko erlazioa, ez elektrolisiaren esperimentuetan ezta efektu magnetikoetan ere (Kipnis 2005). XIX. mendean, kontaktuaren teoriaren aurkako eztabaida luze bat eman zen, hau da, Voltaren azalpena, pilaren ekintza bi metal ezberdin kontaktuan jartzen direnean sortzen den ukipen indar baten ondorio baino ez dela dioena (Kipnis 2001; Kragh eta Bak 2000).

Efektu kimikoen adibide gisa, korrante voltaikoaren bidezko uraren elektrolisiarekin esperimentatu zen. Lehen aldiz William Nicholson eta Anthony Carlislek lortu zuten 1800ean, Voltaren aurkintza eta gutxira. Esperimentu honen aurretik txosten bat egin zen, Voltaren pilaren asmakuntzaren aurretik, marruskaduran oinarritutako sorgailu elektrostatiko indartsu batek sortutako uraren elektrolisiari buruz. Hainbat ikertzailek bateriaren polo bakar batekin efektu elektrolitikoak sortzen alferrik saiatu ondoren, De la Rivek azaldu zuen deskonposatu beharreko disoluzioak "zirkulu voltaiko itxi" baten parte izan behar duela eta, honen ondorioz, disoluzioa korrante elektrikoak zeharkatzen duela

jakinarazi zuen. De la Rivek ez zuen zalantzarik bateria batek korrante bat sortzeko "zirkulu voltaiko itxi" bat behar duela, eta honako hau gehitu zuen: "Ziurtatu nuen ezinezkoa dela deskonposizio kimikoak sortzea pilaren polo bakar bat likidoan murgilduz, eta ezinezkoa dela bi pila ezberdinen kontrako bi poloak urperatuz ere" (La Rive 1867).

Oerstedek berak, elektromagnetismoa aurkitu zuenak korrante elektriko batek eragindako orratz magnetiko baten desbideratzearen behaketaren bidez, 1820an, bere esperimenduek frogatua zirudiena jakinarazi zuen, "Orratz magnetikoa aparatu galbanikoak bere posiziotik mugitzen duela, baina zirkulu galbanikoa itxia eta ez irekia izan behar dela" (Oersted 1820; Sarton y Oersted 1928).



Irudia 2: Oersted-en orratz magnetikoa

Oerstedek elektromagnetismoaren aurkikuntza elektrizitate estatikoaren eta elektrizitate dinamikoaren ikerketen arteko bigarren trantsizio erabakigarria izan zen. Korrante elektriko batek iparrorratz baten orratzean duen eraginaren aurkikuntzak, elektrizitatea eta magnetismoa fenomeno bananduak ez direla frogatu zuen (1600 inguruan horrela uste baitzen), efektu bakar baten bi adierazpen baitira. Bateratze hau posible izan zen elektrizitate fluxu konstante bat sortzeko gai zen gailu baten (Voltaren bateria) aurkikuntzaren ondorioz eta Oerstedek espekulazio metafisikoen ondorioz. Bere buruari buruz idatzi zuen bezala, bere atxikimendua "*efektu magnetikoak efektu elektrikoaren botere*

berberak sortzen dituztela" iritziari, hain zuzen ere, "*fenomeno guztiak jatorrizko botere berak sortzen dituela*" dioen printzipio filosofikoan zuen sinesmenaren ondorioa zen (Stauffer, 1957).

1.2.2. Zirkuitu elektrikoak azaltzen dituzten ereduak


Oersteden aurkikuntzak (korrante elektrikoak sortutako orratz magnetiko baten mugimendu mekanikoari lotutakoa) ekarri zuen emaitza nagusietako bat, telegrafoaren industriaren sorrera izan zen. Oersteden aurkikuntza eta gutxira, Andre-Marie Amperek telegrafo bat sortzea proposatu zuen, alfabetoko letrak beste hainbat hari eroale eta orratz magnetikorekin (Ampere 1820, 73. or.), eta urrutiko telegrafia posible zela planteatu zen. Galdera horri erantzutea zaila izan zen. Hala ere, helburu horretarako ahaleginek zirkuitu baten korrante elektrikoaren inguruko ezagutza garrantzitsua eman zuten.

Urrutiko telegrafiaren arazoa harien eta iparrorratzen bidez argitzen saiatu zen zientzialarietako bat Peter Barlow izan zen. Izan ere, Barlowren helburu nagusia 1700eko azken hamarkadan eman zen karga elektrikoaren izaerari buruzko eztabaidari argitasun pixka bat ematea zen.

Amperek (1800) eman zion fluido elektrikoaren teoriari garrantzia Voltaren bateriaren interpretazioan, Oerstedek aurkitu eta hilabete gutxira, pila voltaikoak sortutako korrante elektrikoak bi fluidoren multzo bezala azaldu zuenean. Pila, fluido hauetako bat mutur batera eta bestea beste muturrera transmititzeko ahalmena duen tresna bat da. Ampereren arabera, bateria baten poloak kable eroale batekin konektatuta daudenean: "emaitza korrante bikoitz bat da, bata korrante positibokoa eta bestea korrante negatibokoa, ekintza elektroeragileak dauden puntuetatik kontrako norabideetan abiatuz, eta zirkuituaren kontrako aldean bilduz" (Ampere 1820, 63. or.). Oerstedek berak iradoki zuen "eroalean

eta inguruan duen espazioan gertatzen den efektuari elektrizitate gatazka" deitu beharko litzaiokeela (Oersted 1820).

1825ean, Barlowk, urrutiko telegrafiaren bideragarritasuna eta fenomeno magnetiko eta elektrikoen erlazioak ikusteko asmoz, korrontearen intentsitatea distantziaren karratuarekiko alderantziz proportzionala zela erakusten zuten neurketak egin zituen. Era berean, Barlowk, Bequerelen (1826) ikerketetan oinarrituz, zirkuituaren kablean zehar doan korrontea konstantea dela ezarri zuen. Beraz, George Simon Ohm zirkuitu elektrikoak gidatzen dituzten legeen eremuan 1825-1827 urteetan sartu zenean, jada egiaztatutako gertaera bat zen korrontearen intentsitatea ez zela zirkuituan zehar aldatzen (Kipnis 2005). Gauzak aldatzen hasi ziren 1830eko hamarkadan, Joseph Henryk eta Philip Ten Eyckek korrontearen intentsitatea distantziarekiko alderantziz proportzionala dela neurtu zutenean, eta ez distantziaren karratuarekiko (Schiffer 2008), eta, garrantzitsuena, Barlowren zailtasuna, distantzia batera dagoen iman baten gainean korrontearen efektua murriztea, intentsitate handiko bateria bat erabiliz gaindi zitekeela ondorioztatu zutenean (berau haril ugariko elektroimana aktibatzekeo gai denean). Ondoren, Charles Wheatstonek eta William Fothergill Cookek lehen telegrafo elektriko praktikoa patentatu zuten (Turner 1983). Hala ere, XIX. mendearen erdialdean telegrafiari buruzko txostenetan "fluido elektrikoaren disipazioaren" ideian oinarritutako azalpenak agertzen jarraitu zuten, non, adibidez, urrutiko telegrafia bat lortzeko ahaleginak oztopatzen zirela aipatzen zen, korronte galbanikoa, hasieran oso indartsua bazen ere, pixkanaka ahulagoa bihurtzen baitzen alanbrean aurrera egin ahala. Hori, zirkuituan korrontearen intentsitatea konstantea dela ezaguna zen arren. Horrek erakusten du teoria berriak antzinakoekin ordezteak, arrazoitzeko eta teoria berriek aurreikusteko eta aplikatzeko ahalmen handiagoa dutela erakusteko denbora bat eskatzen duela.



*Irudia 3: Lehen telegrafo
elektriko praktikoa*

Ohmek ekarpen garrantzitsua egin zuen zirkuitu elektrikoei buruzko azalpenetan, eroankortasun elektrikoaren lehen teoria eraikitzea ahalbidetu zuten emaitza esperimental batzuk lortu zituenean. "Matematikoki ikertutako zirkuitu galbanikoa" izeneko bere liburuan, Ohmek bere "indar elektroskopikoaren" notazioa definitu zuen: zirkuitu elektrikoaren kasurako potentzial elektrikoaren aurrekaria. Ondoren, 'tentsioa' magnitudea (alemanez idatzitako idazkietan 'spannung' hitza erabili zuen) zirkuituaren zati baten muturren "indar elektroskopikoen" arteko diferentzia bezala definitu zuen. Fourierrek bere teoriarik berea eta tenperatura bereizten dituen bezala, sistema batean aldamenean dauden bi zatien arteko bero-fluxua beraien tenperaturen proportzionala dela suposatuz, Ohmen teoriak elektrizitate kantitatea aldagai kritikoa bihurtzen du, kargaren gainazaleko dentsitateak (indar elektroskopikoa) Fourierren teoriarik tenperaturak jokatzen zuen paper bera hartuz. Indar elektroskopikoa 'tresna elektrostatikoa' batekin neurtzen zen termometro batek tenperatura neurtzen duen bezala. Ohmen ereduak paradigma elektrostatikoa zegoen kokatuta.

1847 inguruan Kichhoffek Ohmen legeen azterketari ekin zionean, elektromagnetismoa askoz landuagoa zegoen eta elektrizitatearen eta galbanismoaren arteko distantziak murriztuta zeuden, nahikoa antzekotasun zeuden eta paradigma elektrostatikoa (Alemanian are gehiago) ez zen nagusitzen zena (Varney and Fisher, 1980). Fisikari alemaniarrek, Ohmek eroankortasunari buruz eta Kohlrauschek kondentsadoreetako tentsioen neurketari buruz egindako lanak aztertu ondoren, Ohmen indar elektroskopikoa


potenzial-diferentziarekin identifikatu zuen. Identifikazio hori energiaren kontzeptua sartzeak ekarri zuen aldaketaren ondorioz izan zen posible. Ikuspegi berri horrek zirkuitu elektrikoaren interpretazio global makroskopikoa ahalbidetu zuen. Helmholtzek berak Kirchhoffen lanak erabili zituen 1847an argitaratutako energiaren kontserbazioaren printzipioari buruzko bere azken lanetan. Kirchhoffek Ohmen lana zabaldu zuen hiru dimentsiotako eroaletara, bere legeak zirkuitu sareetarako azaldu zituen, eta, azkenik, erresistentzien bidez korrantea bultzatzen duen Ohmen "indar elektroskopikoa" eta Lagrange, Laplace eta Poissonen potentzial zaharra berberak direla erakutsi zuen. Baita egoera geldikorrean korrante elektrikoak Jouleren bero kantitatea minimizatzeko helburuarekin banatzen direla ere.

Urte batzuk beranduago, Wilhelm Weberrek (1852), Ampereren analisia, Faradayren esperimentuak eta Fechnerren baieztapena (korranteak, bata bestearen kontrako mugimenduan abiadura berean elektrizitate positiboaren eta negatiboaren kopuru berdinez osatuta daudela) konbinatu zituen, mugitzen ari diren partikula kargatuen artean existitzen diren indarretan oinarritutako teoria elektromagnetiko bat ondorioztatu ahal izateko. Weberrek suposatu zuen korrante elektrikoak kable erresistibo normaletan karga positibo eta negatibo kopuru berdinez osatzen zirela, abiadura berdinekin baina kontrako norabidearekin kablearekiko mugituz. Garai hartan inork ez zekien elektroien existentziaren berri, ez zuten ezta korrantea daramaten kableetako karga mugikorren jito-abiaduren balioaren ideiarik ere. Aurrerago, korrantedun metalezko kableetan elektroien negatiboak soilik mugitzen direla aurkitu zen, ioi positiboak euren kristal-sarearekiko finko mantentzen diren bitartean. Hala ere, Weberrek adierazi zuen korrantea garraiatzen duen eroale bat oro har neutrala den arren, bere gainazalean dentsitate ezberdineko kargak daramatzala (Weber, 1852). Zirkuitu elektriko baten bi punturen arteko potentzial-diferentzia gainazaleko kargen diferentzia batekin lotuta dagoela azaltzen zen lehenengo aldiz.

1.2.3. Kable eroalearen gainazaleko karga-dentsitatearen aldaketaren gaur egungo azalpen-eredua

Korronte elektrikoari buruzko azalpen-ereduek bultzada berriak jaso zituzten elektroien aurkikuntzarekin eta partikula subatomikoak dituen materiaren teoria atomikoarekin. Era berean, Faradayk hasitako eta ondoren Maxwellek 1865ean oinarritutako eremu-teoriak eredu teoriko berriak bultzatu zituen elektromagnetismoan. Esparru kontzeptual horri esker, indarrari lotutako energia kontzeptua garatu ahal izan zen, dela kontserbatzailea (energia potentziala), dela ez-kontserbatzailea (indar elektroeragilea).

1950eko hamarkadan Sommerfeldek hari eroale zuzen baten barruko eremu elektrikoaren jatorria eztabaidatu zuen. Eroaleen barruko eremua kablearen gainazalean dauden kargek sortzen dutela aurkitu zuen, eta, beraz, *gainazaleko karga* izena jarri zien (Sommerfeld, 2013). 60ko hamarkadan, Jefimenko (1966) gainazaleko kargen ereduaren aurretiko teoria bat azaldu zuen eta esperimentalki frogatu zuen existitzen zirela (Jefimenko, 1966). Oro har, kable eroalearen gainazaleko kargen dentsitate-diferentzia kableen eta osagaien barruan eremu elektriko bat eragiten duen mekanismo gisa ikus daiteke. Gainazaleko kargaren banaketak eragindako eremu elektrikoa korrontea garraiatzen duen kable baten barruan korronte elektrikoa sortzearen arrazoia da (Preyer, 2000).



1960ko eta 1970eko hamarkadetan, kable eroalearen gainazaleko kargen esanahiari eta korrante elektrikoaren fluxuarekin lotutako gainazaleko kargabanaketan magnitudeei buruzko eztabaidak aurrera egin zuen (Rosser, 1963-1970), eta zirkuitu baten kableen inguruko gainazaleko kargak erakusteko erakustaldiak eztabaidatu ziren (Moreau, 1985).

Azken bi hamarkadetan, korrante zuzeneko zirkuitu elektrikoaren azalpen-eredua finkatu egin da, kable eroalearen gainazaleko kargen dentsitate-diferentzian zentratuta, ekarpen teoriko eta esperimenteren bidez. Jacksonek (1996) hiru rol identifikatu zituen zirkuitu errealeko azaleko kargentzat: (1) zirkuituan zehar potentziala mantentzen dute, (2) eroalearen kanpoko espazioa eremu elektrikoarekin hornitzen dute, eta (3) fluxu konfinatua ziurtatzen dute, kablearekiko paraleloa den eremu elektriko bat sortuz. Azken rol hori erraz irudika daiteke, korrantea dabilen bitartean tolesten den hari zuzen bat erabiliz. Kasu honetan, feedback mekanismo sinple batek eremu elektrikoa haria tolestu ondoren ere badabilela ziurtatzen du: kargak kurbaren barneko eta kanpoko ertzetan pilatzen dira (tolestutako zatia), metatu diren gainazaleko kargak

sortutako eremu elektrikoak elektroiak kablean zehar mugitzen jarraitzera derrigortzen dituen arte. Metaketa-prozesua oso azkar gertatzen da, bat-batean, ikuspuntu makroskopiko batetik, eta osotu egiten da eremu elektriko osoak kablearen norabidea hartzen duenean eroalearen edozein puntutan (Müller, 2012). Gainera, berriki egindako ikerketek ereduaren indarra erakutsi dute, korrante-konfigurazio desberdinetarako garapen teorikoak eginez (Hernandes & Assis, 2003; Leniz, 2013).

1.3. IKERKETAREN GALDERAK

Atal honen aurrekoek nabarmendu egiten dituzte, kableko gainazaleko kargen gradientearen eredia erabiliz, korrante elektrikoaren sortzeko mekanismoa irakasteak izan ditzakeen onurak, unibertsitate mailako hastapeneko fisika ikasleentzat egokia den maila batean. KZ zirkuitu sinple batean korrantearen zirkulazioa azaltzen duen eredu horri "Gainazaleko Kargen Dentsitate-Gradiente" esaten zaio. Fisikari eta irakasleek gainazaleko kargen mekanismoa irakaskuntzan aplikatu beharko litzatekeela argudiatzen dutela erakutsi dugu, korrante elektrikoak eremu elektrikoarekin eta potentzial-diferentziarekin duen erlazioa azaltzen duelako (Härtel, 1985).

Gaur egun, Gainazaleko Kargen Dentsitate-Gradientearen eredia zirkuitu elektrikoaren jakintza irakasteko instrukzio ikuspegi gisa ikus daiteke. Chabay eta Sherwood bezalako autoreek adierazi duten bezala, ikuspegi horren gakoa zirkuituaren funtzionamenduaren eredia osatzea da, kontzeptu eta ideia abstraktuen bidez eta behaketa makroskopikoak kontuan hartuz. Gainera, ikuspegiaren ezaugarri dira maila atomikoko deskribapenak eta analisiak, baita arrazoibide kualitatiboa ere. Lan honetan, maila atomikoko deskribapenak ez dute efektu kuantikorik barne hartzen eta eredu mikroskopiko deituko ditugu.

Hala ere, ikerketa-galdera oraindik berdina da: ea Kargen Gainazaleko

Dentsitate Gradientearen ereduari oinarritutako irakaskuntza-ikuspegiak eta kontserbazio-printzipioen erabilera lortzen duten korrante zuzeneko zirkuituak hastapeneko fisikako unibertsitate-ikasleentzat ulergarriagoak izan daitezke. Hau da, ikuspegi horren azpian dagoen galdera da: zer arrazoibide-erabilera behar dituzte ikasleek fenomeno elektrikoaren erlazio makroskopikoak eta kontzeptu abstraktuekin lotutako maila mikroskopikoko azalpen teorikoak ulertzeko, hala nola eremu elektrikoa, potentzial elektrikoa edo korrante-fluxua.

Gainazaleko Kargen Dentsitate Gradientearen ereduari oinarritutako irakaskuntza-proposamena egitean, beharrezkoa da jakitea ikasleek zer ikasten duten elektrizitatearen irakaskuntza tradizionala jasotzen dutenean, besteak beste ereduaren oinarriko elementuei dagokienez, hala nola korrante-fluxua, eremu elektrikoa, potentzial-diferentzia eta haien arteko harremanak. Ezagutza hori funtsezkoa da curriculum tradizionalaren aldaketan oinarritutako irakaskuntza-ikuspegi eraginkorrak planifikatzeko, hala nola KZ zirkuitu elektrikoaren oinarriaren irakaskuntza, Gainazaleko Kargen Dentsitate Gradientearen ereduari oinarritua. Horrek guztiak ikerketa-galdera hauetara garamatza:

- 1.- Zein da unibertsitate-mailako hastapeneko fisika ikasleek korrante elektrikoaren funtzionamenduari buruz eta eremu elektrikoaren eta potentzial-diferentziaren kontzeptuei buruz duten ulermena?
- 2.- Zer arrazoibide erabiltzen dituzte unibertsitate-mailako hastapeneko fisika ikasleek eremu elektrikoa eta potentzial-diferentzia kontzeptuak erabiltzen dituztenean, KZ zirkuitu elektrikoek nola funtzionatzen duten azaltzean?
- 3.- Zer arrazoibide erabiltzen dute unibertsitate-mailako hastapeneko fisika ikasleek eremu elektrikoa eta potentzial-diferentzia kontzeptuak erabiltzen dituztenean zirkuitu sinpleetako korrante iragankorreko fenomenoak azaltzeko?

2 Kapituluua:

Esparru Teorikoa eta Metodologia

Bigarren kapitulu honetan ikerketa-lan hau gidatu duten elementu teorikoak eta metodologia jorratzen dira. Horretarako, alde batetik esparru teorikoa eta bestetik ikuspegi metodologikoa garatzen dira, bai eta ikerketaren testuinguruaren eta datuak biltzeko tresnen deskribapena ere.

Esparru teorikoaren atalak ikasleen ikusmoldeak eta zientzien ikaskuntza ezaugarritzen dituzten ikuspegi konstruktibista nagusiak ditu ardatz. Ikuspegi metodologikoari dagokionez, lan honetan ikuspegi fenomenografikoa hartu da eta azalpen-kategorietan sakondu da, zientzien psikologian eta epistemologian oinarrituta dauden arrazoiketa kausalaren teoriak erabiliz.

Kapitulu honen amaieran, datuak biltzeko eta diseinu esperimentalak egiteko erabili diren tresnak deskribatzen dira.

2.1. IKERKETA GIDATZEN DUTEN ELEMENTU TEORIKOAK

Zientzien irakaskuntzaren arloko lehen ikerketak XX. mendearen hasierakoak diren arren (*Science Education*, arloan aitzindaria den aldizkaria, 1916an argitaratzen hasi zen), zientzien ikaskuntza eta irakaskuntza ikerketarako eremu espezifikoa gisa defendatzen duen planteamendua nahiko berria da. Zientzien hezkuntzako edozein ikerketaren helburua ikasleen ikaskuntza hobetzea da, eta, ondorioz, zientzien irakaskuntza eta ikaskuntza aldatzea edo hobetzea ahalbidetuko duten ezagutza eta tresnak ematea.

Berrogeita hamarreko hamarkadaren amaierara arte, ikasgai zientifikoaren curriculumek egonkortasunaldi luzea jasan zuten. Zientzien irakaskuntza-eredua edukien transmisioan eta harreran oinarritzen zen, ia lan esperimentalik gabe eta zientziaren ikuspegi positiboarekin bat etorritik (Gil, 1986). Zientzien "irakaskuntza tradizionala", Del Valek (1985) adierazten zuen bezala, urte askoan zehar, irakasleak arbelean garatu ohi dituen azalpen magistralen bidez ikasleari ezagutzak ahoz transferituz gauzatu behar zelako ideia izan da. Horrela,

zientzien alderdi enpirikoak fenomeno bitxiei buruzko anekdotak erabiliz erakusten ziren, edo laborategiko esperientziaren bat edo beste gauzatuz, landutako eduki teorikoak ilustratzeko. Irakaskuntzaren ikuspegi horrek konnotazio asoziazionista sakonak ditu, terminoaren zentzu negatiboan, ez baititu ikasten duenarengan sortzen diren barne-antolamenduko prozesuak kontuan hartzen, gizakia kanpotik moldekatzeko eta zuzentzeko erraza dela uste baitu (Coll, 1986).

70eko hamarkadan, transmititutako informazioa jasotzearen bidez ikasteko ikuspegi berri bat sortu zen, Ausubel & Sanchezen (2002) ikaskuntza esanguratsuaren teorian oinarrituta. Ikuspegi berri horren arabera, kontzeptu berri bat ikasteko, beharrezkoa da zubi kognitibo bat eraikitzea kontzeptu berriaren eta dagoeneko ikaslearen adimenean dagoen ideia baten artean (normalean, berria baino orokorragoa eta ez hain zehatza). Zubi horri aurretiko antolatzaile deitzen zaio, eta ikaskuntza gaiaren aurretik aurkezten diren ideia orokor bat edo batzuk dira (Ausubel & Sanchez 2002). Eraitza positibo partzialak lortu zituzten eta transmisio- eta harrera-eredua hobetzen lagundu zuten irakasteko eta ikasteko tresnak diseinatzeko orduan, Novak eta bere laguntzaileak (1988) Ausubel eta beste psikologo batzuen egituraketa-ideietan oinarritu ziren.

Joan den mendeko 70eko hamarkadaren amaieran, hezkuntza zientifikoko ikerketan, irakaskuntzari buruzko teoria psikologikoaren bi ikuspegi nagusi erabiltzen hasi ziren erreferentzia teoriko gisa. Lehenengoak Piageten epistemologia genetikoan du jatorria, eta zientzia kognitiboari buruzko bere ideietan (Piaget, 1937). Ikuspegi horren arabera, ikasleek ezagutza zientifikoa ulertzeko, formakuntza eman aurretik zituzten ideiak aldatu behar dira. Beraz, ikasleek zientzien irakaskuntzari nola erantzungo dioten aurreikusteko, funtsezkoa da ikasleek ikaskuntza egoera zehatz baten inguruan duten aurretiko ezagutza ulertzea (Osborne & Wittrock, 1983; Driver & Oldham, 1986). Gaur egun aldaketa kontzeptualari buruzko hainbat ideia daude Piageten

epistemologia genetikoan jatorria dutenak. Teoria horietako batzuk ikasleen "egitura mentalak" deskribatzean zentratzen dira; beste batzuek, berriz, gizabanakoen "egitura mentaletan" aldaketak sustatzen dituzten mekanismoak jorratzen dituzte (Posner et al., 1982; Vosniadou, 1994). Ikaskuntza-ikuspegi horiek, batez ere gizabanakoen egitura mentalen aldaketetan zentratzen direnak, testuinguru sozial batean lan egiten denean gizabanakoek duten ikaskuntzaren deskribapenarekin osatu dira (Driver et al., 1994). Irakaskuntza- eta ikaskuntza-testuinguru sozialetan dagoen interes horrek teoria psikologikoaren bigarren ikuspegi bat ekarri du hezkuntza zientifikoan ikertzerantz, psikologia vygotskianoan sustraiak dituena. Teoria vygotskiar eta neo-vygotskiarrek ikaskuntza eta ezagutzaren eraikuntza gizabanakoen arteko elkarrekintza sozialetatik sortuak bezala ikusten dituzte, kulturalki sortutako tresnen bitartekaritzaren bidez, adibidez, hizkuntza eta liburuak. Ikuspegi hori ikaskuntzaren ikuspegi sozial-konstruktibistaren oinarrian dago (Tobin & Tippins, 1993). Teoria kognitibo horren funtsezko suposizio bat da kognizioa ez dagoela soilik gizabanakoaren adimenea, baizik eta batez ere ikaslearen, ikaskuntza gertatzen den ingurunearen (beste parte-hartzaile batzuk barne) eta ikaskuntza gertatzen den jardueraren artean banatutako prozesu bat dela. Ikaskuntzaren ikuspegi horiek zientzien irakaskuntzan ikerketa-ildo zabalak sortu dituzte (Pfundt & Duit, 1998), ikasleen ikasteko zailtasunak agerian uzten dituztenak. Hain zuzen ere, joan den mendeko 80ko hamarkadaren hasieratik, lehentasunezko ikerketa da ikasleek zientzietan dituzten ideiei eta irakaskuntzaren ondorioz ideia horiek duten bilakaerari buruzko ikerketa (Driver & Erickson, 1983).

Ikasleen eskema kontzeptual alternatiboak edo eredu mentaletan buruzko ikerketek eskertzen diren eremu bakoitzean dituzten aurreideiei buruzko ezagutza zehatza ezar daiteke. Ezagutza hori ezinbestekoa da ikaskuntza-egoera zehatzak behar bezala planteatzeko, irakasleei tresna kontzeptualak emateko (enfasia non egin behar den jakiteko besteak beste), eta curriculumaren helburu espezifikoak identifikatu eta garatzeko. Era berean, eskema alternatiboak aztertzearen interes nagusia zientzien ikaskuntzan orientabide berriak lantzen laguntzea da (Scott,

Asoko & Leach 2008, Guisasola et al., 2012). Ikerketa lan hau ikerketa ildo horretan sartzen da.

2.2. IKERKETAREN TESTUINGURUA

Hemen aurkezten den ikerketa Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU) egin da, zehazkiago Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolan (Donostia). Parte hartu dutenak ingeniaritzako lehen mailako ikasleak izan dira, Ingeniaritzaren Oinarri Fisikoen ikastaroa ikasten dutenak. Ikasle guztiek lehenago ikasi zuten fisikako ikasturte erdia batxilergoko lehen mailan eta fisikako ikasturte oso bat batxilergoko bigarren mailan, eta, gainera, gainditu zuten selektibitateko azterketa unibertsitaterako sarrera gisa. Horrek esan nahi du lehen ere bazegoela fisikako ezagutza bat aipatutako sarrera-ikastaroa hasi aurretik, hau da, ikasleek oinarrizko ezagutza zutela KZ zirkuituei dagokienez. Gainera, unibertsitatean elektromagnetismoa ikasten hasi aurretik egiten duten *Conceptual Survey of Electricity and Magnetism* (Maloney et al., 2001) testak erakusten du ezagutza egokia dutela Ohmen legea zuzenean aplikatzeko problemei dagokienez, baina ez dute erakusten zirkuitu baten funtzionamendua maila makroskopiko edo mikroskopikoetan azaltzeko eredurik duten.

Aipatutako ikasleek jaso duten irakaskuntza fisika sailean esperientzia handia duten irakasleek eman dute. Ikasleek Paul M. Fishbaneren Stephen Gasiorowiczen eta Steve Thorntonren *Physics for Scientists and Engineers: Extended Version* (2004) testu liburua jarraitu dute (euskarazko edo gaztelaniazko bertsioan).

2.3. ANALISI FENOMENOGRAFIKO ETA ARRAZONAMENDUEN ANALISIA. ANALISIAREN FIDAGARRITASUNA

Atal honetan ikerketa gidatu duen metodologia azaltzen da. Lan hau diseinu quasi-esperimental batekin definitzen dugu, non analisi fenomenografikoa eta arrazoibideen analisisa erabili diren.

2.3.1. Diseinu quasi-experimental

Diseinu quasi-esperimental bat aurkezten da hemen. Sarritan, hezkuntzan ikertzen denean, ezinezkoa da ikertzaileek benetako esperimenduak egitea. Asko jota, Campbell & Stanleyk (1963) "neurketaren nor eta nori" deitzen ziotenaren gaineko kontrola duten benetako diseinu esperimental baten antza duen zerbait erabil daiteke, baina benetako esperimentazioetan funtsezkoa den espozizioen ausazkotasunaren gaineko kontrolik gabe (noiz eta nor espozatzen den) (Cohen et al., 2007). Egoera horiek quasi-esperimentalak dira, eta egoera horietan egiten diren ikerketei diseinu quasi-esperimentalak esaten zaie.

2.3.2. Fenomenografia

Ikerketa honen lehen zatian, ikasleek "erresistentziak dituzten korrante zuzeneko zirkuitu elektrikoekin oinarriak" gaiari buruzko hainbat galdetegiri emandako erantzunen azterketa fenomenografikoa egiten da. Ikerketaren zati honek ikasleek zirkuitu horien funtzionamenduari buruz dituzten azalpen-teoriak edo ikusmoldeak aztertzen ditu, azalpen-eredu zientifiko bat ikasteko zailtasunak agerian uzten dituztenak. Sarritan, ikasleek hezkuntza formalean irakatsitako ikuskera zientifikoez bestelako ikusmoldeak izaten dituzte, eta, horregatik, "Ikuskera alternatiboak" esaten zaie (Duit, Treagust, & Mansfield, 1996). Ikasleen ikuskera alternatiboak hainbat zeregin eta testuingurutan ikertu direnez, ikuskera horien koherentzia kontuan hartu beharreko kontua da (Marton, 1981; Driver, 1986). Beraz, beharrezkoa da ikusmoldeen aldakuntza eta horien berezko ezaugarriak deskribatzen dituen ikerketa-metodologia bat erabiltzea. Horregatik

erabili da analisi fenomenografikoa, populazioak errealitateari buruz dituen azalpen-kategorien aldakuntza deskribatzeko eta azaltzeko erabiltzen den analisi-metodologia delako (Marton, 1981; Booth & Marton, 1997).

Fenomenografiak errealitatea ulertzeko eta hautemateko modu desberdinak jorratzen ditu, eta modu horiek errealitatea deskribatzen duten kategoria gisa sailka daitezke. Kategoria horiek pertsona-kopuru handi batean ikus daitezke, eta, horregatik, irudikapen horiek guztiek adimen kolektibo mota bat adierazten dute elkarrekin. *"Kategorien deskribapen bera agertzen da hainbat egoeratan. Kategorien multzoa egonkorra da eta aplikatu daitezke, baita banakoak kategoria batetik bestera hainbat aldiz mugitzen badira ere"* (Marton, 1981, 195. or.). Metodologia honen helburua errealitatearen alderdiak interpretatzen dituzten pertsonen pentsamoldeak ezartzea eta sistematizatzea da. Ikerketa mota honek, ikertzeko edo ikertzeko beste modu batzuen osagarri, esperientziak deskribatu, aztertu eta ulertu nahi ditu (gure kasuan, Fisikaren teoriak ikasteko prozesuan sortuak); hau da, esperientziak deskribatzera zuzendutako ikerketa da.

Ikuspegi fenomenografikoa duen ikerketak erakusten du fenomenoak, errealitatearen alderdi gisa ulertuta, esperimenduak (edo kontzeptualizatuak) direla kualitatiboki desberdinak diren modu kopuru nahiko mugatu batean. "Zientziaren fenomenografia" pertsonen zientzia hautemateko, esperimendatzeko eta kontzeptualizatzeko moduari buruzkoa izan liteke. Fenomenografian, arlo kontzeptuala zein esperimendatua jorratzen da, baita bizitzen denaz pentsatzen dena ere. Gainera, zer den kulturalki ikasitakoa eta inguruko munduarekin banaka erlazionatzeko garatu diren moduak zeintzuk diren ere kontsideratu daitezke.

Ikaskuntzaren teoria konstruktibistaren arabera (ikus 2.1. atala), oso garrantzitsua da ulertzea ikasleek nola pentsatzen duten irakasten zaienari buruz eta nola erabiltzen duten bakoitzak duen ezagutza. Horregatik, eduki zehatz bat ikasteko zer behar den jakin nahi badugu, arrazoi logikoengatik, ez da nahikoa

gaia ezagutzearekin. Gaiaren ezagutzaz gain, beharrezkoa da ikaskuntzaren eta, oro har, ulermenaren berri izatea. Era berean, berriaz aztertu behar da (ikasleekin) landuko den gaiaren ikaskuntza eta ulermena (kasu honetan, korrante zuzeneko zirkuituak).

Ikaskuntza edukiaren arabera deskribatu behar dela dioen argudioari dagokionez, azpimarratu behar da ikasteko prozesua eta ikaskuntzaren edukia bi alderdi desberdin direla, eta horiek batasun logiko bat osatzen dutela; ezin da prozesurik egon edukirik gabe, eta ezin da edukirik egon, jarduera mental baten terminoetan izan bada. Ikasgelan, ziurrenik, irakasleak edo testuliburu baten egileak aurkeztutako kontzeptuak eta printzipioak ulertzeko ikasleek dituzten modu ezberdinak aurki daitezke beti. Ikasgela gai berri bat lantzen ari den unean, kontzeptua edo printzipioa ikasle batzuek irakaslearen edo testuaren egilearen antzera ulertzen dute, eta beste ikasle batzuek aurrekoaren (irakaslearena edo egilearena) eta haien artean desberdinak diren beste modu batzuetan ulertuko dute. "Baimendutako" kontzepzioa / ikuspegia, zientzia modernoaren ikuspuntuarekin bat etortzea espero dena, kontzeptu edo printzipio hori ikasgelan ulertzeko modu posibletzat har daiteke, eta kasu berezitzat zientziak berak historian zehar izan dituen kontzepzio / ikuspegi desberdinen artean. Hau da, kontuan izan behar da errealitatearen alderdi jakin baten kontzepzio bat, zientifikoki zuzena den ikuspengia gisa onartua, ez dela beti gertatzen den zerbait, ezta nahitaez baliozkoa ere. Historikoki, jada zuzentzat jotzen ez diren beste ikuskera /kontzepzio menderatzaile batzuk egon dira, eta zentzuzkoa da etorkizunean beste batzuk egon daitezkeela pentsatzea (Guisasola et al. 2002). Errealitatearen hainbat alderdiren kontzepzioan /ikuskeran dauden ezberdintasunak ez dira bakarrik gizabanakoen artean edo zientziaren historiako aldi desberdinen artean aurkitzen. Errealitatearen zenbait alderdi interpretatzeko modu indibidualetan maiz gertatzen diren aldaketak aurkikuntza zientifikoaren funtsezko osagaiak dira. Errealitatearen alderdi espezifikoen kontzepzioei buruzko ikuspegia, hau da, pentsamendu- edo esperientzia-edukiak atzematea (hautematea edo kontzeptualizatzea), ikerketa

egiteko abiapuntu gisa, eta aurkikuntzak integratzeko oinarri gisa, fenomenografiaren ezaugarri nagusietako bat da. Ikusmoldeak / kontzepzioak seinalatzeaz gain, munduaren alderdi bateko zenbait kontzepzioren eta beste alderdi bateko zenbait kontzepzioren arteko erlazioak ere adierazi nahi dira. Hau da, ez da soilik ikusmoldeen /kontzepzioen zerrenda bat egitea bilatzen.

Fenomenografiaren ikuspuntutik, kontzeptu bati buruzko ikusmoldeak modu logiko batean deskriba daitezke, eta, horregatik, deskribapen kategoria berak egoera ezberdinetan agertzen dira. Hala, kategorien multzoa egonkorra da eta egoeren artean orokortu daiteke, baita gizabanakoak (ikasleak, adibidez) kategoria batetik bestera hainbat aldiz mugitzen badira ere. Edukien eta egoerentan barrena banakako egonkortasunak ikerketa enpirikoaren jomuga izan beharko luke, finkatutzat eman beharrean. Kategoriek ez dute bilatzen gizabanakoak sailkatzea; gure inguruan dagoen mundua hautemateko moduak deskribatzeko kategoriak dira. Ikerketaren logikaren ikuspegitik, pertsona talde jakin baten errealitatearen alderdi jakin baten ikusmoldeak ikertzean, arrakasta izanez gero, hainbat kontzepzio deskribatzen dira, eta aztertzen ari garen taldearen kategorietako banaketa ere identifikatzen da. Azpimarratu behar da ikuspegi fenomenografikoan, deskribapen-kategoriak emaitzatzat har daitezkeela. Egindako ikerketa baten emaitzak bi alderditan bereiz daitezke: batetik, emaitzak deskripzio kategoria gisa ikus daitezke, etorkizunean kasu zehatzen azterketan erabiliak izateko tresna abstraktutzat jotzen direnak. Bestalde, emaitzak kasu zehatzetan kategorien aplikagarritasunera bideratu daitezke. Ondorioz, bi emaitza-mota daude: deskribapen-kategoriak eta deskribapen-kategoria horietan ematen den banakoen banaketa. Lehen emaitza kualitatiboa da (ikusmoldeak/azalpen-kategoriak), eta bigarrena kuantitatiboa (zenbat pertsonak mantentzen dituzten ikusmolde / kontzepzio horiek).

Deskribapen-kategoriek pentsamendu-formak adierazten dituzte, hautemandako mundua (edo horren zatiak behintzat) ezaugarritzeko elkarrekin jartzen direnak, eta horietara iristen dira pentsamendu-formak bereiziz, bai pentsamendutik bai

pentsalariarengandik. Deskribapen-kategoriak ezartzean, munduaren hainbat alderdi ulertzeko modu posibleen konplexutasuna tematizatzea bilatzen da. Ez bakarrik azpian dauden oinarrizko kontzepzio ezberdinen metaketa, baita ezagutza proposizionalaren forma alternatibo eta kontraesankorrak ere, forma hauek zuzentzat edo okertzat hartzen diren alde batera utzita. Pentsamendu-formen sistema supraindividual hori giza pentsamenduaren deskribatzailea da, bi modutan: lehenik, pertsonak egoera zehatzetan duten pentsamoldea *deskribatzeko tresna* gisa erabil daiteke. Bigarrenik, pentsamenduaren *deskribapen* gisa ikus daiteke (Marton & Pong 2005).

Kategorien arteko egitura-harremanen kasua (ulertzeko modu desberdinak) metodologia fenomenografikoaren azpian dagoen premisa epistemologikoetako bat da. Hala, fenomenografiaren funtsezko premisa bat da deskribapen-kategoria desberdinak logikoki erlazionatuta daudela. Deskribapen-kategoriak eta horiek lotzen dituzten egiturazko erlazioak "emaitzen espazioaren" egitura dira (Akerlind, 2005). Orduan, ikertzailearen helburua ez da soilik kategoria ezberdinen multzo bat ezartzea, baita logikoki barneratzailea den egitura bat proposatzea ere, esanahi ezberdinak erlazionatuz. Emaitzen espazioak giza kolektibo baten fenomeno edo teoria bat ulertzeko moduari buruzko begirada holistikoa ematen du. Idealki, emaitzek gai jakin bat ulertzeko moduen aukera zabala adierazten dute, une jakin batean eta lagin zehatz batentzat.

Booth & Martonen (1997) arabera, irizpide multzo espezifiko bat jarraitu behar da kategoriak sortzean:

- (a) Kategoria bakoitzak lotura argia izan behar du ikerketa-fenomenoekin, eta bakoitzak zerbait esan behar digu fenomenoak esperimendatzeko modu jakin bati buruz;
- b) Kategoriek hierarkikoak izan behar dute edo, bestela esanda, aurrera egin behar da, sinpleetatik harreman konplexuetara; eta
- (c) Sailkapen-sistemak ahal bezain kopuru mugatua eta txikia izan behar du.

Garatutako kategoria sistemak arestian aipatutako irizpideak betetzen baditu, baliagarria izango da teorikoki eta pedagogikoki. Ikertzaileak prest egon behar du bere pentsamendua etengabe doitzeko ikuspegi berrien aurrean. Aztertzen ari den informazioan eta multzo gisa sortzen diren deskribapen-kategorietan mantendu behar du ikuspegia, eta ez banakako informazioan eta kategorietan, hori funtsezkoa baita talde-ulermenean arreta mantentzeko. Prozesu osoa iteratiboa eta konparatiboa da, eta horrek datuak etengabe sailkatzea eta berriro sailkatzea dakar. Garatzen ari diren datuen eta deskribapen-kategorien arteko konparazioez gain, kategorien arteko alderaketak ere egin behar dira (Akerlind, 2005).

Laburbilduz, ikerketa fenomenografikoaren helburua pertsonen fenomeno partikular bat edo inguratzen dituen munduaren alderdi bat ulertzeko dituzten modu kualitatibo desberdinak aztertzea da. "Ulertzeko modu" edo kontzepzio horiek deskribapen-kategorien bidez adierazten dira normalean, eta horiek emaitzen espazio bat osatzeko aztertzen dira erlazio logikoei dagokienez.

Lan honetan Martonek eta Boothek proposatutako irizpideei jarraituz sortu dira kategoriak. Kategoriak zuzenean atera dira galdetegietatik, datuak aurrez zehaztutako kategorietan sartzeko ahaleginik egin gabe. Kategoriak kontzepzio bat eta bestea bereizten dituzten ezaugarri bereizgarrienetan oinarritzen dira, eta hierarkikoki aurkezten dira, ulermen-mailen igoera islatuz. Kategorien deskribapenaren hierarkiak ikusmoldeen arteko lotura erakusten du, eta irakaskuntzari eta ebaluazioari buruzko erabakiak hartzeko oinarri bat ematen du.

2.3.3. Arrazoibide kausala azalpen-kategorien justifikazioan

Metodologia fenomenografikoak identifika ditzakeen azalpen-kategoriak edo errealitatearen ikusmoldeak, zientzia esperimentalen arloan, ereduaren erabileran

eta modelatzean zehazten dira. Ereduak zientzialariek erabiltzen dituzte sistemak nola egituratzen eta portatzen diren irudikatzeko (Nersessian, 2008). Ereduen hezkuntza-balioa nazioarteko komunitateak hezkuntza zientifikoaren funtsezko zati gisa onartzen du (Windschitl et al., 2008). Hala ere, errealitatea azaltzeko ikasleek eredu jakin bat erabiltzen dutela esaten dugunean, ikasle talde bat azalpen-eredu hori eraikitzaera eraman duten arrazoibideak ere izan ohi dira kontuan. Hau da, azalpen-ereduaren deskribapena hura justifikatzeko erabiltzen diren arrazoibide motekin osatzen da. Erresistentziak dituzten KZ zirkuitu elektrikoaren irakaskuntza eta ikaskuntza ereduaren oinarritutako arrazoibide zientifikoaren erabileraren adibide bat da. Beraz, garrantzitsua da korrante zuzeneko zirkuitu elektrikoak modelatzean ikasleen arrazoibide kausalari buruzko galdera planteatzea.

Ikasleek askotan fisikaren ikuspuntutik okerrak diren azalpenak ematen dituzte. Azalpen horiek, zientzia eta psikologia kognitiboaren epistemologiarekin bat etorritik, ikasleen gehiengoarentzat ezagunak diren arrazoibide kausalen ondorio gisa interpretatzen dira (Halbwachs, 1971; Grotzer, 2013). Adibidez, ikasleek arrazoiketa sinple kausala erabiltzen dute (A-k B eragiten du) arrazoibide konplexuagoa beharko lukeen murrizketa-sistema eredu bati aurre egin behar diotenean. Ikasle gehienek arrazoiketa kausalen mota erlatiboki sinpleak baino ez dituzte ezagutzen, baina zientziako kontzeptu eta teoria asko laster deskribatuko den formaren funtsean konplexuagoak diren estiloen mende daude. Lehen ere aipatu dugunez, zientziaren epistemologiaren eta psikologia kognitiboaren esparru teorikoak egokiak dira korrante zuzeneko zirkuituak menderatzean ikasleek dituzten arrazoibideak aztertzeko.

Ikasleen arrazoibide kausalak ikertzeko erabil daitezkeen hainbat elementu teoriko daude (Halbwachs, 1971; Grotzer, 2003; Perkins & Grotzer, 2005; Grotzer & Tutwiler, 2015). Arrazoibide zientifikoaren elementu teoriko horiek ez dira elkarren baztertzailak, eta haien artean osatu ere egin daitezke. Zientzialariek arrazoitzeko moduari buruzko teoria epistemologiko edo kognitibo bakar bat ez

dagoen arren, komunitate zientifikoan oso onartuta dauden arrazoibide mota batzuk laburbil daitezke. Lan honetan ikasleek hainbat galderari emandako erantzunak aztertuko dira, arrazoibide zientifikoei buruzko ikerketa epistemologikoetan oso onartuta dauden lau arrazoibide kausaletan oinarrituz.

Arrazonamendu motetako bat "arrazoiketa kausal sinplea" da, kausaren arabera erlazioa ezartzen duena C kausa jakin baten eta E efektu jakin baten artean (Halbwachs, 1971; Grotzer, 2003). Hori arrazonamendu sinple bat da, fenomenoaren oinarritzko azalpena ematen duena. Adibidez, "Korronte elektrikoak eremu elektrikoa sortzen du kablean" edo "potentzial diferentziak eremu elektrikoa sortzen du".

Bigarren arrazoibide kausal mota bat sisteman hautemandako aldaketaren kausa sistematik kanpo dagoelako printzipioan oinarritzen da, eta hainbat eragileren integrazioa da haren azalpen-ahalmena; arrazonamendu horri "arrazoibide lineal kausala" deitzen zaio. Halbwachsek (1971) arrazoibide kausal mota hau honela definitzen du: kausa-erlazio sinpleak bata bestearen jarraian lotzeko joera, ordena berri batekin harremana osatzeko, kausa-kate bat non kausa oro beste kausa baten emaitza den, edo emaitza oro beste emaitza baten kausa den. Sarritan, kausazko konexio sinple gutxi batzuk ezarri ondoren (A, B, C), arrazoiketa $A \sim B \sim C$ kausazko kate batean gertatzen da, prozesu batek hurrengo sortzen duen prozesu batean, bata bestearen segidan edo aldi berean. Adibidez, "Kableko karga dentsitate banaketak eremu elektriko bat sortzen du kablean. Eremu elektriko horrek potentzial diferentzia sortzen du zirkuituko edozein bi punturen artean, erresistentziaren arabera". Kausazko konexio sinpleen kate bat eraikitzen da A gertaeraren (karga dentsitatearen banaketaren aldaketak eremu elektrikoa sortzen du) eta B gertaeraren (eremu elektrikoak potentzial diferentzia sortzen du) inguruan. Hori zirkuituaren zati bakoitzean gertatzen da, eta, beraz, arrazonamendu lineal honek kate kausal baten forma du: karga-dentsitatearen banaketa \sim eremu elektrikoa \sim potentzialaren diferentzia.

Hirugarren arrazoibide mota bat "arrazoibidea erlazionala edo kausalitate erlazionala" da, eta emaitza sistemaren bi aldagairen (kopuru fisikoak) arteko erlazioari zor zaionean erabiltzen da. Grotzerrek (2003) aurkitu zuen harreman horiek ez direla berez azalpen bat, baina azalpen-izaera dutela, sistemak nola jokatu duen iragartzen dutelako. Adibidez, "Eremu elektrikoa elektroien kontzentrazioaren eta kablearen zabalaren arteko erlazio baten emaitza da". Azalpen honetan bi aldagairen (elektroi kontzentrazioa eta kable zabalera) arteko erlazioak eremu elektrikoaren balioa iragartzen du. Arrazoiketa erlazionalaren kasuan, emaitza batera daramaten sistemaren bi aldagairen arteko erlazioa beharrezkoa da. Aitzitik, arrazoiketa kausal sinple edo lineal kausaletan, ezaugarri nagusia bi gertaera edo gehiagoren arteko lotura da.

Azkenik, ikerketa zientifikoan, Perkins & Grotzerrek (2005) "maila anitzeko arrazoiketa" deritzen laugarren arrazoibide mota bat aurkitzen dugu maiz, non sistemaren deskribapena finagoa den, elkarri lotuta dauden deskribapen-eredu ezberdinak erabiliz; adibidez, Ohm eredu, edo gainazaleko kargen gradientearen mikro-eredua zirkuitu elektriko baten prozesuen azalpen-esparru gisa. Hau da, sistema beraren bi deskribapen korrelazionatzen ditu bi analisi-mailatan (tokiko korrante elektrikoan edo maila sistemiko globaleko korrante konbentzionalean enfokatzen da). Kasu honetan, azalpen-indarra eredu "sakonagoko" legeek hasierako ereduaren legeak ondorioztatzeko aukera ematean datza.

2.3.4. Analisiaren fidagarritasuna

Fidagarritasuna, funtsean, sendotasunaren eta errepikapenaren sinonimoa da denboran, tresnetan eta inkestatutako taldeetan. Doitasunarekin eta zehaztasunarekin du zerikusia. Ikerketek erakutsi behar dute ikerketa bera antzeko talde batean eta antzeko testuinguru batean egingo balitz, emaitzak ere

antzekoak izango liratekeela. Gure kasuan, bi fidagarritasun mota erabili ditugu: egonkortasuna eta baliokidetasuna (Cohen et al., 2007).

Egonkortasunari buruzko fidagarritasunak zerikusia du antzeko laginetan denboran zehar egindako azterketaren sendotasunarekin. Gure ikerketan, galdetegi bera (ikus hurrengo atala) unibertsitateko lehen mailako antzeko taldeetara pasatu da ikasturte desberdinetan, eta estatistikoki antzeko emaitzak erakutsi ditu.

Baliokidetasunari buruzko fidagarritasuna bi modutan lortzen da: lehena, tresna beraren forma baliokideak erabiliz (galdetegia, gure kasuan) eta antzeko datuak lortuz; eta bigarrena, ebaluatzaileen arteko fidagarritasun-koefizientea erabiliz lortzen dena. Azken hori ikertzaile bat baino gehiago ikerketa berean parte hartzen ari denean erabiltzen da, giza judizioak huts egin dezakeenez, ikertzaile guztien artean akordioak lortzen dira, eta horiek guztiek datuak modu berean erregistratzen dituztela ziurtatzen da. Gure ikerketan galdetegi baliokideak erabili dira 1. azterlanean eta 2. azterlanean (ikus hurrengo atala), eta emaitza konbergenteak lortu dira (ikus emaitzen atala). Ebaluatzaileen arteko fidagarritasun-koefizienteari dagokionez, ikerketa honetan 0.86tik 0.95era aldatu da, erabilitako diseinu esperimentalaren arabera (hurrengo atalean zehazten da), eta hori ona da% 95eko konfiantza-mailan

2.4. DATUAK BILTZEKO TRESNAK ETA DISEINU ESPERIMENTALAK

Ikerketa honetan datuak biltzeko erabiltzen den tresna, lana garatu duten ikertzaileek ikerketa galderei erantzuteko diseinatutako galdetegi original bat da. Galdetegi bakoitzaren diseinua, baliozkotasuna eta fidagarritasuna hurrengo ataletan deskribatzen dira. Erantzunak aztertzeko metodologia hau izan zen: azalpen-kategoriak eta justifikazioa arrazoitzeko moduak identifikatzea eta kontabilizatzea. Horrela, batetik, metodologia fenomenografikoari jarraitzen

diogu. Honek errealitatea hautemateko eta ulertzeko modu ezberdinak kategoria deskribatzaile hierarkiko eta elkarrekiko baztertzaila bihurtzeko erakusten digu. Metodologia hau oso maiz erabiltzen da gizabanakoek fisikako fenomenoak ulertzen dituzten forma kualitatiboki ezberdinak bilatzen dituzten ikerketetan (Borden et al., 2010; Ebenezer & Fraser, 2001). Bestetik, zientziaren epistemologia eta arrazoibide kausalaren teoria psikologikoak erabili dira, azalpen-kategoria bakoitzari lotutako arrazoibideak erakusten baitizkigute.

Ikerketa hau hiru azterlanek osatzen dute, ikerketa-galderei erantzuteko. Lehenengo azterlanean fenomenografia erabili zen analisi-metodologia gisa, eta aukera eman zigun egoera geldikorrean erresistentziak dituzten KZ zirkuitu elektrikoaren funtzionamenduari buruzko ikasleen azalpen-kategoriak ezartzeko (Leniz et al., 2014). Bigarren azterlanean, erresistentziak dituzten egoera geldikorreko KZ zirkuitu elektrikoaren funtzionamenduari buruzko kategoria edo azalpen-eredua justifikatzeko ikasleek erabiltzen dituzten arrazoibide kausalak aztertu ziren (Leniz et al., 2017). Hirugarren azterlanak ikasleen azalpen-kategoriak (Leniz et al., 2015) eta arrazoitzeko moduak (Leniz et al., 2019 August; Leniz et al., 2019) aztertzen ditu, egoera iragankorrean erresistentziak dituzten KZ zirkuitu elektrikoaren funtzionamenduari buruzkoak. Azken azterlan honen bidez, lehen bi ikerketetan lortutako emaitzen sendotasuna eta fidagarritasuna erakutsi nahi da, ikasleek elektrizitatearen kontzeptuak zirkuitu elektrikoetako korrante iragankorraren funtzionamenduaren kasuan aplikatu behar dituztenean.

Jarraian, azterlan bakoitzerako galdetegiaren diseinua aurkezten da.

2.4.1. Lehen azterlana: egoera geldikorrean erresistentziak dituzten KZ zirkuitu elektrikoaren funtzionamenduari buruzko ikasleen azalpen-kategoriak, eremu eta potentzial elektrikoaren kontzeptuak erabiltzen dituztenean

Lehenengo azterlana lehen ikerketa-galderari erantzuten saiatzen da; unibertsitateko sarrera-fisikako ikasleek korrante elektrikoaren funtzionamenduari eta eremu elektrikoa eta potentzial-diferentzia kontzeptuei buruz duten ulermenari buruzko galderari erantzuten hain zuzen. Ikerketa egiteko, galdetegi bat sortu zen, eta galderak aurretik egindako analisi epistemologikoa kontuan hartuta diseinatu ziren. Azterketa horretan ikasleek ulertu eta erabili behar duten azalpen-eredu makroskopikoaren eta mikroskopikoaren ezaugarri garrantzitsuenak jasotzen dira. Galdetegia baliozkotzeko, unibertsitatean irakasle-esperientzia handia duten fisikako bi irakaslerekin kontrastatu ziren galderak, eta haiekin eztabaidatu zen galdera horien helburuen egokitasuna, ingeniartzako eta zientzietako lehen urtean sarrera-fisikako ikastaroetan ematen den programari dagokionez. Biak bat etorri ziren helburuak programarekin koherenteak zirela esatean, baita horiek ebaluatzeko galdera egokiak zirela ere. Adostutako galdetegiarekin, atariko proba bat egin zen, eta ikasleek zailtasun batzuk aurkitu zituzten. Jarraian, elkarrizketak egin ziren 6 ikaslerekin, atariko proban hautemandako zailtasunak osatzen zituzten ulermen-zailtasunak hautemateko. Datu horiekin guztiekin, jarraian erakusten den behin betiko galdetegia zehaztu zen.

Galdetegiari Euskal Herriko Unibertsitateko lehen mailako ingeniartzako 120 ikasleek erantzun zioten. Ikasleek galderei emandako erantzunei azterketa fenomenografiko zorrotza egin zitzaion. Atariko analisi bat egin zen (40 galdetegi), eta erantzunak ikasleek emandako azalpenen arabera multzokatu ziren. Ondoren, beste ikertzaile batek zeregin bera egin zuen, eta jatorrizko kategoriak berriro definitu zituzten, adostasun batera iritsi zen arte. Kategoriak adostasunez definitu ondoren, bi ikertzailek bereizita aztertu genituen gainerako


galdetegiak. Arreta ikasleen ulermenean jarri zen, ikasleen erantzuna osotasun gisa hartuz, kategoria espezifikoaren deskribapen bati dagozkion adierazpen partikularren parteen orde. Prozesu iteratibo bat erabili zen amaierako kategoriaren deskribapenak egiteko: kategoria bakoitzari esleitutako erantzunen eta kategorien arteko aldean arteko antzeko ulermena islatzen zuten (Cortazzi, 1993). Cohenen kappa fidagarritasun-koefizientea lortu zen sei galderentzat, 0,83 eta 0,95 artekoa, eta horrek adierazten du bat datorrela oso deskribatutako kategoriak ezartzeko irizpideekin. Fidagarritasunaren kappa-koefizientea hiru aste geroago ere kalkulatu zen, eta 0,88ko batez bestekoa lortu zen galdera guztietarako, eta hori % 95eko konfiantza-mailari dagokio

Jarraian, egoera geldikorrean erresistentziak dituzten korrante zuzeneko zirkuitu elektrikoetako azalpen-kategoriak aztertzeke egindako galdetegia erakusten da. Galderen zenbakiak bi digitu ditu: lehenaz azterlanaren zenbakiari dagokio, eta bigarrena galdeketaren barruan galderak duen posizioari. Hala, Q1.1 lehen azterlanaren galderari dagokio, eta lehen tokian kokatua dago. Q2.3 aldiz, bigarren azterlaneko galdera bati dagokio, eta hirugarren lekuan dago kokatuta.


Q1.1

Zein da eremu elektrikoaren kausa A egoerane ta B egoeran?

A egoera:



B egoera:




Q1.1 lehenengo galderan, eremu elektrikoaren kontzeptuari dagokionez testuinguru elektostatikotik elektroinetikorako trantsizioan ikasleek dituzten zailtasunak aztertzen dira. Horretarako, bi egoera azaltzea eskatzen zaie ikasleei. Lehenengo egoeran, eremu elektriko kontrako kargak dituzten bi plaka paraleloren artean sortzen da; ikasleek azaldu behar dute karga positiboak zilindroaren alde batean eta negatiboak beste aldean bereizteak eremu

elektrikoa sortzen duela. Bigarren egoeran, aldiz, eremu elektrikoa pila bat duen zirkuitu elektriko baten barruan sortzen da; ikasleek azaldu behar dute zergatik sortzen den eremu elektriko bat kablearen barruan, eta, azkenik, ondorioztatu behar dute bi kasuetan eremu elektrikoa karga-gradiente batek sortzen duela.


Q1.2

E_1 ikasleak baieztatzen du, A eta B puntuen arteko potentzial-diferentzia bi egoeretan honako ekuazio hau erabiliz kalkula daitekeela: $\Delta V = \int_A^B \vec{E} \cdot d\vec{l}$ $\Delta V = \int_A^B \vec{E} \cdot d\vec{l}$
 Beste ikasle bat, E_2 , ez dago ados, eta ekuazioa potentzial-diferentzia elektrostatiakoaren kasuan (2. egoera) soilik dela zuzena estean du, 1. egoerako potentzial-diferentzia Ohm-en legea erabiliz kalkulatzeko baita: $\Delta V = I R$
 Zein ikaslek du arrazoia? Azaldu zure erantzuna.

1. egoera:




2. egoera:



Q1.2 galderan, elektrostatiakan eta elektrodinamikan potentzial-diferentzia kontzeptuan ikasleek ulertzeko duten zailtasuna aztertzen da. Galdera honekin, aztertzen da ea ikasleak gai diren potentziala kontzeptuaren definizio operatiboak erlazionatzeko testuinguru elektrostatiiko batean (1. egoera: kargatutako tamaina handiko plaka lau bat) eta testuinguru elektrozinetiko batean (2. egoera: korrante zuzeneko zirkuitu simple bat). Ikasleek gai izan behar dute justifikatzeko eremu elektrikoaren integralaren ekuazioaren bidez potentzial-diferentzia definitzea baliozkoa dela bai testuinguru elektrostatiiko batean bai KZ zirkuitu elektrikoetan.

Q1.3

Hemen aurkezten den zirkuituak batera bat du kobrezko hari baten bidez poloak konektaturik dituena. B puntuaren inguruan dagoe materiala karbonoa da; kobrea baino eroale eskasagoa. a) Erlaziona itzazu A, B eta C puntuetako intentsitatearen balioak (berdina, handiagoa edo txikiagoa). Arrazoitu zure erantzuna. b) Erlaziona itzazu A, B eta C puntuetako eremu elektrikoaren balioak (berdina, handiagoa edo txikiagoa). Arrazoitu zure erantzuna




Q1.3 galdera elektrozinetikaren testuinguruan kokatzen da, eta ikasleek KZ zirkuitu batean eremu elektrikoa eta intentsitatea kontzeptuak ulertzeko dituzten zailtasunak aztertzen ditu. Horretarako, pila batez eta karbono segmentu batekin tartekatutako kobrezko hari batez osatutako zirkuitu elektrikoa erabiltzen da. Asmoa da ikertzea ea ikasleak gai diren maila makroskopikoan intentsitatearen eta eremu elektrikoaren arteko aldea justifikatzeko. Galdera horri zuzen erantzuteko, ikasleek azalpen-maila makroskopikoa zein mikroskopikoa erabil dezakete. Maila makroskopikoan, ikasleek adierazi behar dute egoera geldikorrean korrontearen intentsitatea berbera dela zirkuitu osoan eta, beraz, erresistentzian eremu elektrikoak kobrezko kablearena baino handiagoa izan behar duela elektroiti-sasoaren jito-abiadura zirkuitu osoan konstantea izan dadin. Ikuspegi mikroskopikotik, ikasleek kontuan hartu behar dute elektroien fluxuak berdina izan behar duela zirkuitu osoan: $nA u_{Cu} E_A = nA u_C E_B$. Karbonoak kobreak baino askoz elektroiti-mugikortasun txikiagoa du ($u_{Cu} > u_C$) eta mugitzen ari diren elektroien n dentsitatea eta kablearen sekzioaren A azalera berdina direnez, eremu elektrikoak magnitude handi eta uniformeak du karbonoan, eta magnitude txiki eta uniformeak kobreak; beraz, honako hau ondorioztatu behar dute: $E_A < E_B$

Q1.4

Kalkulatu ondoko eskeman adierazita datorren zirkuituko korrontea. Zirkuitua bateria bat, bi erresistentzia eta etengailu batek osatzen dute.

- a) Etengailua itxi aurretik
- b) etengailua itxi ondoren.




Q1.4 galderak ikasleek korronte zuzeneko zirkuitu elektriko sinpleak maila makroskopikoan ulertzen dituzten aztertzen du. Ikasleek erresistentziak dituzten KZ zirkuitu sinpleetan Ohmen legea aplikatzen dakiten aztertzen da.

Behar bezala erantzuten duten ikasleek adierazten dute, etengailua itxi aurretik, zirkuitu sinple bat dugula, 12 Vko bateriarekin eta serieran dauden bi erresistentziarekin (4Ω eta 8Ω), eta horrek esan nahi du $I = \Delta V/R$; $I = 12/12 = 1$ A korrontea duela. Aldiz, etengailua ixtean, bateria bat eta 4Ωeko erresistentzia dituen zirkuitu bat daukagu, izan ere, S etengailuak 8Ωeko erresistentziati korrontea igarotzea ekidindo du, eta Ohm-en legea aplikatzean: $I = V/R$; $I = 12 / 4 = 3$ A.

Q1.5

Azpian ikus daitekeen zirkuituko kobrezko kablean zehar korronte konstantea dago. Korrontearen inguruko hurrengo baieztapenetatik zein da zuzena? Arrazoitu zure erantzuna.

- a) Gehiegizko karga dago bateriatik gertu dagoen kablearen gainazalean, baina beste inon ez.
- b) Kablearen barruko eremu elektrikoaren magnitudea handiagoa da D puntuan A puntuan baino.
- c) Gehiegizko karga ezberdiak daude B eta D puntuetako kablearen gainazalean.



Q1.5 galderan, kargak mugitzen dituen eta korronte elektriko sortzen duen kablearen barruko eremu elektriko sortzen duen kausari buruz ikasleek duten ezagutzaren inguruan ikertzen da. Ikuspuntu mikroskopiko batetik, elektroien fluxuak zirkuitu osoan berdina izan behar duela pentsatu behar dute ikasleek.

Kontuan hartuko da ikasleek aipatzen duten eremu elektrikoa zer kargek sortzen duten, nola banatzen diren eta non kokatzen diren.

Q1.6 galderan ikasleek potentzial-diferentziaren eta eremu elektrikoaren arteko erlazioa elektrozinetika testuinguruan (erresistentziak dituen zirkuitu elektrikoa) justifikatzean emandako azalpenak aztertzen dira. Galdera honekin, ikasleak zirkuituko energia-balantzearen ekuazioak maila desberdinetan erlazionatzeko gai diren aztertzen da. Horretarako, bi ekuazio planteatzen dira (bata maila mikroskopikoan eta bestea maila makroskopikoan). Ikasleek azaldu behar dute bi ekuazioek zuzen deskribatzen dutela zirkuituko balantze energetikoa, bata maila makroskopikoan (lehen ekuazioa), fem, intentsitate eta erresistentzia kontzeptuak erabiltzen dituen. Bigarren ekuazioan (maila mikroskopikoan) eremuaren kontzeptua erabiltzen da erresistentzien arteko potentzial-diferentzia deskribatzeko, eta pila baten potentzial-diferentzia erabiltzen da pilak bere borneen artean zirkuituari ematen dion energia neurtzeko.

Q1.6


Bi erresistentzia batera bati konektatuta daude irudian agertzen den bezala. E_1 ikasleak zirkuituaren balantze energetikoa hurrengo ekuazioa erabiliz gauzatzen du:

$$\epsilon - I \cdot r - I \cdot R_1 - I \cdot R_2 = 0$$

E_2 ikasleak aldiz, zirkuituaren balantze energetikoa ondorengo ekuazioa erabiliz gauzatzen du:

$$\Delta V = E_1 \cdot L_1 + E_2 \cdot L_2$$

Bietako zeinekin zaude ados? Arrazoitu zure erantzuna.



a) E_1 ikaslearekin. b) E_2 ikaslearekin. c) Biekin. d) Bietako batekin ere ez.

2.4.2. Bigarren azterlana: egoera egonkorrean erresistentziak dituzten KZ zirkuitu elektrikoek funtzionamenduari buruzko ikasleen arrazoibide kausalak, eremu eta potentzial elektrikoa kontzeptuak erabiltzen dituztenean.

Bigarren azterlanaren helburua ikerketaren bigarren galderari erantzutea da; hau da, KZ zirkuitu elektrikoek nola funtzionatzen duten azaltzean unibertsitate mailako sarrera-fisikako ikasleek eremu elektrikoa eta potentzial-diferentzia kontzeptuak barne hartzen dituztenean erabiltzen dituzten arrazoibideak aztertzea. Horretarako, galdera irekiko beste galdetegi bat diseinatu zen, ikasleek galdetegiko erantzunei emandako azalpenean zentratzeko aukera eman duena. Bigarren azterlan honen interes nagusia ikasleek erabiltzen dituzten eredu kausalak dira, zehazki eremu elektriko eta potentzial-diferentziak erlazionatzean azalpen makroskopiko eta/edo mikroskopikoetan erabiltzen dituzten kausa-ereduak. Beraz, ikerketaren bigarren galderaren helburu orokorra bi helburutan zehaztu daiteke: i) Ikasleek eremu elektrikoa eta potentzial-diferentzia kontzeptuak erabiltzen dituztenean erabiltzen dituzten arrazoibideen ikuspegia eskuratzea; ii) Arrazoi zientifikoei buruzko azterlanen esparru teorikoaren barruan ikasleek galdetegi bati emandako erantzunak aztertzea eta interpretatzea.

Galdetegia prestatu ondoren, baliozkotu egin zen, edukiari eta helburuei dagokienez. Lehenik, Euskal Herriko Unibertsitateko Fisika Aplikatuko Saileko irakasle eskarmentudunei galdeketari erantzuteko eta iradokizunak egiteko eskatu zitzairen. Iradokizun horiek kontuan hartu ziren azken galdetegia idazterakoan. Ondoren, lehen mailako ikasleekin entsegu bat egin zen, eta hark baieztatu zuen ikasleek ez zutela arazorik galderak ulertzeko, formulatuta zeuden erari dagokionean. Amaitzeko, galdetegia Euskal Herriko Unibertsitateko ingeniarietako lehen mailako 141 ikasleek erantzun zuten, KZ zirkuitu elektrikoek buruzko azken azterketaren parte izan zelarik.

Azterlanaren fidagarritasun erlatiboari eta egonkortasunari dagokienez, galdetegi hau 1. azterlanaren helburuen baliokidea da antzeko ikasle-talde batekin, baina beste denbora-tarte batean, 1. azterlana egin eta hurrengo ikasturtean gauzatu baitzen. Era berean, erantzunen analisisan, "azalpen" gisa antzemandako iruzkinak erraz ezagut daitezkeen ezaugarriak dituzten kategorietan oinarrituta kodetu ziren, hala nola baieztapen zientifikoak eta esparru teorikoan definitutako lau arrazoibide-moten argudioak (Halbwachs, 1971; Grotzer, 2003). Horretarako, ikasle guztien erantzunak irakurri ziren eta galdera bakoitzerako deskribapen-kategoria eta arrazoibideen zirriborro bat bideratu zen. Ondoren, erantzunak berriro irakurri ziren eta erantzun bakoitza zirriborroko kategoria batean jarri zen behin-behinekoz. Bien bitartean, beste bi ikertzailek modu independentean egin zuten azken ariketa hori. Erantzunak sailkatu ondoren, ikertzaile ezberdinek emandako kategoriak alderatu ziren, eta komunztadura maila oso esanguratsua lortu zen Cohenen 0,86ko kappa fidagarritasun-koefizientearekin. Deskribapen-kategorietan edo erantzunak jartzean desadostasunak bazeuden, erantzunak hartu ziren ikasleen ulermenaren ebidentzia bakar gisa. Ikasleen ulermenean jarri zen arreta beti, eta erantzun bakoitza bere osotasunean ulertu zen, eta ez berariazko azalpen-kategoria bati dagozkion baieztapen partikularren gertaera gisa (Cohen et al., 2007).

Q2.1 galderaren helburua ikasleek eremu elektrikoa kontzeptua eta elektrostatikan landu duten kontzeptua KZ zirkuituetan erabilitako kontzeptu berarekin erlazionatzean erabiltzen dituzten arrazoibide motak aztertzea da.

Q2.1

Eremu elektrikoaren kapituluan aztertu dugu oreka elektrostatikoan dagoen kargatutako eroale zilindriko baten barruan ez dagoela karga elektrikorik (karga guztia eroalearen gainazalean dago), eta barrualdean duen eremu elektrikoa zero dela. Hala ere, korrante zuzeneko zirkuituen kapituluan aztertu dugu kable zilindriko eroalearen barruan eremu elektriko uniforme bat dagoela intentsitate konstanteko korrante bat dabilenean. Zergatik agertzen da eremu elektriko hori kablearen barruan? Azaldu zure erantzuna.


Q2.1 galderaren helburu zehatza ikasleak elektrostatikako eroale zilindriko batean eremu elektrikoaren rola eta egoera geldikorrean dagoen zirkuitu baten kablearen barruko rola bereizteko gai diren ikertzea da.

Q2.2 eta Q2.3 galderak diseinatu dira ikasleek korrante zuzeneko zirkuitu elektriko bateko karga-mugimendua hari eroalearen barruan sortzen den eremu elektrikoarekin eta zirkuituko bi punturen arteko potentzial-diferentziarekin erlazionatzean dituzten zailtasunak aztertzeko. Ikasleei korrante zuzeneko bi zirkuitu sinple aurkeztu zitzaizkien: bata, Q2.2 galderan, karbono erresistentzia batekin, eta bestea, Q2.3 galderan, hari eroalean estugune batekin ("erresistentzia" gisa jokatzeko duena).

Q2.2 galderak korrante jarraituko egoera bat aurkezten du egoera geldikorrean, testuinguru akademikoan ikasleentzat ezaguna den zirkuitu elektriko batean.


Q2.2

Hurrengo irudian erakusten den handitutako zirkuituan, karbono-erresistentzia txiki bat konektatu zaio bateriari kobrezko kable baten bidez. Zirkuitua denbora luzez egon da konektatuta, eta, beraz, zirkuituan korrantea konstantea da. Kobrea zein karbonoa eroaleak dira, baina karbonoaren eroankortasuna askoz txikiagoa da.




Q2.2A
Hemen proposatzen diren diagrametarik, aukeratu A eta B puntuetan eremu elektrikoak hobekien irudikatzen dituenak.


(1) E_A eta E_B berdinak dira



(2) E_A handiagoa da E_B baino



(3) E_A txikiagoa da E_B baino



(4) Ereku elektrikoko bektoreen bestelako adierazpena. Azaldu zure erantzunaren arrazoia.


Q2.2B

Lotuta al dago A eta B puntuen arteko potentzial-diferentzia zirkuituko kargen banaketarekin? Azaldu zergatik.

Q2.3 galderak Q2.2 galderaren antzeko egoera du, baina kasu honetan erresistentzia hari eroalean zirkuituko gainerako kablea baino zati estuago batekin irudikatzen da. Bi galderetan zirkuitua oso denbora luzean zehar konektatua egon da, eta, beraz, zirkulatzen duen korrontea konstantea da.

Q2.3


Irudiko zirkuituan bateria bati konektatutako kobrezko kable bat dugu. Kablea A eta B puntuen artean estutzen da irudian erakusten den bezala. Zirkuitua denbora luzez egon da konektatuta, eta bertatik dabilen korrontea konstantea da.





Q2.3A

Hemen proposatzen diren diagrametatik, aukeratu A eta B puntuetan eremu elektrikoak hobekien irudikatzen dituenena.

(1) E_A eta E_B berdinak dira



(2) E_A handiagoa da E_B baino



(3) E_A txikiagoa da E_B baino

(4)Eremu elektrikoko bektoreen bestelako adierazpena.
Azaldu zure erantzunaren arrazoia.

Q2.3B

Ba al dago A eta B puntuen arteko potentzial-diferentziarik? Azaldu zergatik.

Lehenengo atalean, Q2.2A eta Q2.3A, ikasleek eremu elektrikoa modu egokian irudikatzen duen diagrama identifikatu behar dute zirkuituko bi puntutan. Bigarren atalean, Q2.2B eta Q2.3B, zirkuituko bi punturen (Q2.3B) arteko potentzial-diferentziaren esanahiari buruz galdetzen zaie, eta, bereziki, potentzial-diferentziaren eta zirkuituko kableko kargen banaketaren arteko erlazioari buruz (Q2.2B).

Q2.2A eta Q2.2B galderari behar bezala erantzuteko, ikasleek azalpen-maila makroskopikoa zein mikroskopikoa erabil dezakete. Ikuspuntu makroskopikotik, kontuan hartuta ikasleek ezagutzen duten magnitudea zirkuitu elektrikoetako korrontearen intentsitate neurgarria dela, ikasleek adierazi behar dute egoera geldikorrean korrontea berbera dela zirkuitu osoan eta, beraz, erresistentzian eremu elektrikoak kobrezko kablearena baino handiagoa izan behar duela elektroiti-sasoaren jito-abiadura konstantea izan dadin ($I=Q_i$). Ikuspegi mikroskopikotik, ikasleek kontuan hartu behar dute elektroien fluxuak berdina izan behar duela zirkuitu osoan: $nA_{Cu}E_A=nA_{Cu}E_B$. Q2A galderan, karbonoak elektroien mugikortasun (u_C) askoz txikiagoa du kobreak baino (u_{Cu}), hau da, $u_{Cu}>u_C$. Eta mugitzen ari diren elektroien n dentsitatea eta kablearen sekzioaren A azalera berdinak direnez, eremu elektrikoak magnitude handia eta uniformeak izan behar du karbonoan, eta magnitude txikia eta uniformeak kobreak $E_A<E_B$. Q2.3A galderan kablearen sekzioa aldatu egiten da $A_A>A_B$ eta ondorioz $E_A<E_B$.

Bi azalpen-ereduak ikasturtean zehar aztertu dituzte ikasleek, eta espero da horiek erabiltzea galderetan dauden problemak ebazteko. Nolanahi ere, emaitzetan ikusiko den bezala, horrelako azalpenik ia ez dago erantzunetan.

Galdera sakontasun handiagoz azter daiteke gainazaleko kargen gradientearen eredu kontuan hartzen bada (ikus, adibidez, Chabay & Sherwood 2015, Cap. Or.). Hala ere, ez da horrelako azalpenik espero, gure lagineko ikasleak ez baitira eredu horren eraginpean egon.

Q2.2B eta Q2.3B galderari zuzen erantzuteko, ikasleek maila makroskopikoan azaldu dezakete eroale baten bi punturen arteko kargen zirkulazioa emateko beharrezkoa dela bi puntuen arteko potentzial-diferentzia egotea. Bateriak sortutako potentzial-diferentziaren eta zirkuitu elektrikoaren eta korrontearen zatien potentzial-diferentziaren arteko erlazioa ere ezar dezakete. Maila mikroskopikoan, ikasleek tokiko karga-kontzentrazioaren aldakuntza eta potentzial-diferentzia erlazionatu ditzakete. Elektrostatik gogora dezateke espazioko karga-banaketa ezberdinek eremu elektriko bat sortzen dutela, eta, beraz, potentzial-diferentzia.

Q2.2B galderan, potentzial elektrikoaren eta maila mikroskopikoko karga-banaketaren arteko erlazioari buruz galdetzen zaie esplizituki ikasleei; Q2.3B galdera, berriz, galdera irekiagoa da eta lotura bat ezar dezakete bai makro mailan bai mikro mailan.

2.4.3. Hirugarren azterlana: erresistentziak dituzten egoera iragankorreko KZ zirkuitu elektrikoaren funtzionamenduari buruzko azalpen-kategoriak eta arrazoibideak, eremua eta potentzial elektrikoa kontzeptuak erabiltzen dituztenean.

Hirugarren azterlanerako, bi galdetegi diseinatu ziren, unibertsitateko ikasleek korrante iragankorreko fenomenoak erresistentziak dituzten korrante zuzeneko

zirkuituetan azaltzeko erabiltzen dituzten azalpen-kategoriei eta arrazoibideei buruzko ikerketaren hirugarren galderari erantzuteko. Lehenengo galdetegiaren helburua ikasleen azalpen-patroi nagusiak identifikatzea da, korrante iragankorreko testuinguruak interpretatzen dituztenean, ikasleen erantzunen analisi fenomenografiko baten erabiliz. Bigarren galdetegiak azalpenetan sakontzen du, ikasleek beren azalpen-eredua justifikatzeko erabiltzen duten arrazoibide-mota aztertuz.

Lehenengo galdera-sortarako, bi galdera landu ziren kargen mugimendu iragankorretan korronteak lan egiteko duen mekanismoaren inguruan ikasleen ulermena ezagutzeko. Galderak formatu desberdinetan eman ziren, baina guztiak test-ondokoak izan ziren, instrukzioa jaso ondoren. Ikerketa hau Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) ingeniarietako lehen mailako 70 ikaslerekin baino gehiagorekin egin zen. Gainera, tesiaren egileak University of Washingtonen (UW) egindako egonaldia baliatu zen azterlanaren fidagarritasun-baliokidetasuna ebaluatzeko, galdetegiaren emaitzak unibertsitate desberdinetako ikasleen bi laginetan alderatzean. Horrela, bada, zientzia eta ingeniarietako ikasleentzako "calculus-based" elektromagnetismo ikastaroko Universty of Washington (UW) delakoaren 200 ikaslek erantzun zioten galdetegiari. Bi ikasle-taldeetan, irakaskuntza antzekoa da, eta elektromagnetismo-curriculum baliokidea dute. Emaitzen kapituluan ikusiko denez, estatistikoki antzekoak izan ziren.

Erantzunak aztertu ziren, baina ez soilik erantzunaren zuzentasuna, baizik eta ikasleen ulermena eta ikuskera alternatiboak identifikatzen. Hasteko, deskribapen-kategorien multzo bat lortu zen galdera bakoitzerako zirriborro gisa, ikasleen erantzunen lehen irakurketa batean oinarrituta, eta, erantzunak zirriborroaren kategorietan kokatu ziren. Hiru aste geroago, erantzunak berriro irakurri ziren (ikertzaile bera), eta prozesua errepikatu zen. Cohenen ebaluatzaile-artereko kappa fidagarritasun-koefizienteak 0.89ko balioa eman zuen galdera guztietan, hau da, % 95eko konfiantza-maila. Ikerketa taldeko bi ikertzailek modu independentean ezarri zituzten erantzunak kategoriatan.


Erantzunak sailkatu ondoren, emaitzak alderatu ziren. Lortutako fidagarritasun-koefizientea 0.86 izan zen, eta horrek oso sendotasun ona adierazten du.

Q3.1 galdera aukera anitzeko galdera da, baina aukeraketaren azalpen arrazoitua ere eskatzen du. Galderak korrante zuzeneko zirkuitu batean korrantearen eta potentzial diferentziaren arteko erlazioari buruz ikasleek zer pentsatzen duten jakitea du helburu. Q3.1 galdera testuinguru akademikoan oso ezaguna da ikasleentzat. Zuzen erantzuteko, zirkuitu irekian korrantearen eta potentzial-diferentziaren arteko aldea justifikatu beharko litzateke. Baina ez dute erantzun zuzena aukeratu behar soilik, aukeraketa justifikatu ere egin behar dute.

Q3.1

Ondoren erakusten den zirkuituan. Zein da A eta B puntuen arteko potentzial-diferentzia etengailua itxi ondoren? Aukeratu erantzun zuzena (arbuia ezazu kablearen erresistentzia).

- a) 0 V
- b) +6 V
- c) Infinito
- d) +12 V
- e) Ez dago informazio nahikorik.




Q3.2 galderaren testuinguruak ez dakar zirkuitu elektrikorik, eta ikasleen azalpenak probatzeko diseinatutako galdera irekia da. Ikasleek sistema batean kargen mugimendu iragankorra azaltzeko erabiltzen duten azalpen-ereduari heltzeko diseinatu zen galdera hau. Galdera honen helburua, azalpe-ereduetan potentzial elektrikoa eta kargen mugimendua bezalako kontzeptuak nola erabiltzen dituzten aztertzea da.

Q3.2

Erradio ezebrdina duten bi esfera eroale bi baterietara lotu dira, beheko irudian erakusten den moduan. Bi etengailuak aldi berean ixten badira, egongo al da korrante elektrikorik? Kargatuko al dira esferak? Horrela bada, kalkula ezazu esferatako bakoitzak izango duen karga. Arrazoitu zure erantzunak.

Irudian antzematen ez den arren, kableak oso luzeak dira esferen arteko elkarrekintzak eragiteko.



Ikasleei galdetzen zaie esferak kargatzen diren ala ez, eta kargatzen direla uste badute, zergatik ere azaldu behar dute. Baita prozesuaren amaieran esfera bakoitzaren karga kalkulatu ere. Galdera honetan, kableak esferen artean eta esfera eta bateriaren poloen artean interakziorik (indukzio elektrikoa) ez egoteko bezain luzeak direla zehazten da. Bi bateriak seriean konektatuta daude, beraz esfera handia +6V poloari lotuta dago eta esfera txikia -6V poloari.

Q3.2 galderari behar bezala erantzuteko, ikasleek potentzial-diferentzia lotu behar dute esferak kargatzeko prozesuarekin, eta ulertu behar dute karga-prozesua amaituko dela baterien eta bi esferen arteko potentzial-diferentzia nulua denean. Ikasleek ikasi duten Drude ereduaren arabera, hari eroale baten bi punturen arteko kargak mugitzeko, kablearen bi punturen arteko potentzial-diferentzia egon behar da. Azalpen zuzen batean, ikasleek karga-mugimendua potentzial-diferentziarekin lotzen duen eredu teorikoa ulertu behar dute, eta gai izan behar dute potentziala kargarekin lotzen duen ekuazioa erabiltzeko, prozesuaren amaieran esferaren karga kalkulatu ahal izateko. Ikasleei zirkuitu sinpleetako kableetako gainazaleko kargen banaketa-eredua azaldu bazaie, kableko azaleko kargen gradiente-mekanismoa erabiliz azal daiteke galdera, eta eremu elektrikoaren gainjartzearekin argudiatu (Chabay & Sherwood, 2015).

Q3.2 galderari modu egokian erantzuteko beste modu bat azken oreka egoera kontuan hartzea da, korrante elektrikoa aipatu gabe. Erantzun honetan argudiatuko da oreka lortzen dela esfera handiak +6V potentziala duenean eta esfera txikiak -6V potentziala duenean. Ondoren, esfera bakoitzaren karga kantitatea kapazitatea erabiliz kalkulatu ahal izango litzateke.

Azken azterlan honen bigarren zatian, Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU) ingeniartzako lehen mailako 112 ikasleri egin zitzaien inkesta. Idatzizko galderen bidez eta instrukzioaren ondoren jaso ziren datuak. Ikasleen erantzunak zorrotz aztertu ziren. Azterketaren helburu nagusia ez zen soilik erantzunak zuzenak edo okerrak ziren jakitea, baizik eta ikasleen arrazoibidea eta ulermena identifikatzea. Erantzunak irakurri ondoren, kategoria deskribatzaileen zirriborroa lortu zen. Geroago, erantzun bakoitzari behin-behineko kategoria bat esleitu zitzaion. Gainerako galdetegieta bezala, beste ikertzaile batzuek modu independentean esleitu zizkieten kategoriak erantzunei. Sailkapena egin ondoren, kategorizazioaren emaitzak alderatu ziren, eta, erantzun horietarako, 0,88ko Cohenen kappa koefizientea lortu zen, irizpideetan uniformetasun ona dagoela agerian uzten duena.

Bi galdera diseinatu ziren, eta horien erantzunek aurreikuspen- eta justifikazio-lana barne hartzen dute. Galderen helburu nagusia ikasleen arrazonamendua aztertzea da, zirkuitu elektrikoetako korrante elektriko iragankorreko egoeretan aplikatuta. Galderen baliozkotasunari eta fidagarritasunari heltzeko, fisikako sarrera-ikastaroetako hiru irakasleri eskatu zitzaien galderak berrikusteko eta iruzkin egokiak egiteko. Bere iruzkinak kontuan hartu ziren galderen azken bertsioan. Galdetegiak behin betiko administratu aurretik, ingeniartzako lehen mailako ikasleekin azterketa pilotu bat egin zen, eta ia ikasle guztiek galderak eta helburuak ulertu zituztela egiaztatu zen.


Azterlan honen lehen zatian, jarraian aurkezten den galdera bera erabili zen, baina erantzun anitzen formatuan. Galdera diseinatu zen ikasleek zirkuitu

irekietako korrante elektrikoaren intentsitatearen eta potentzial-diferentziaren arteko erlazioari buruz duten adierazpen-ezagutza aurkitzeko. Bigarren zati honetan, galdera zertxobait aldatu zen, azalpenetan oinarritutako galdera ireki bat sortzeko. Helburua ez da soilik egiaztatzea ea ikasleek zirkuitu ireki batean potentziala behar bezala kalkulatzen duten. Kasu honetan, helburua ikasleen arrazoibidea aztertzea da, zirkuitu batek egoera horretan duen portaera azaltzen dutenean.

Jarraian aurkezten diren bi galderak ikasleen azalpen-ereduari arreta jartzeko diseinatu ziren, sistema bateko kargen mugimendu iragankorra azaltzen dutenean. Q3.3 galdera Q3.4 baino esplizituagoa da kondentsadorea konektatzen duten bi kableen korrante iragankorrari buruz. Ikasleek erantzun behar dute bonbillak pizten diren ala ez eta zergatik, baina baita kondentsadorea kargatzen den ala ez. Gainera, A eta B plaken karga kalkulatzeko eskatzen zaie haien erantzuna baiezkoa bada. Garrantzitsua da azpimarratzea ikasleek erantzun guztiak arrazoitu behar dituztela

Q3.3


Jarraian agertzen den zirkuituan, zein da A eta B puntuen arteko potentzial-diferentzia? (Arbuia ezazu kablearen erresistentzia). Azaldu zure erantzuna.



Q3.4

Erantzun azkarreko (~1 us) bi bonbila berdin 9 nF -ko kondentsadore batekin batera konektatzen dira RC zirkuitu batean, irudian agertzen den bezala. Erantzun eta arrazoitu ondorengo galderak:

- A- Pizten al da B₁ bonbila? Zergatik?
 - Pizten al da B₂ bonbila? Zergatik?
 - B- Kargatzen al da kondentsadorea? Zure erantzuna baiezkoa bada kalkulatu A eta B plaken karga.
- Arrazoitu zure erantzunak.



Hurrengo kapituluan, deskribatutako galderen inplementaziotik lortutako datuak eta egindako azterketaren emaitzak aurkezten dira.

3 Kapituluua:

Emaitzak

Hirugarren kapitulu honetan, aurreko kapituluko azken atalean (2.4 *Datuak biltzeko tresna eta diseinu esperimentalak*) azaldu den diseinu esperimentalekin lortutako datuen emaitzak azaltzen dira.

Emaitzen azterketa hiru atal nagusitan banatuta dago, eta horiek tesi honen hiru azpi-azterlanetarako aplikatutako galdetegi bakoitzari egiten diote erreferentzia. Lehenengo atalean, lehen azterlaneko sei galderen emaitzak aurkezten dira. Emaitza horietatik ondorioztatzen dira ikasleek dituzten azalpen-kategoriak erresistentziak dauzkaten korrante zuzeneko (KZ) zirkuitu elektrikoaren funtzionamenduari buruz, egoera geldikorrean eremu eta potentzial elektrikoa bezalako kontzeptuak erabiltzen dituztenean. Bigarren atalean, bigarren azterlaneko hiru galderen emaitzak azaltzen eta aztertzen dira. Azterlanaren helburu nagusia erresistentziak dauzkaten KZ zirkuitu elektrikoaren funtzionamenduari buruz ikasleek dituzten arrazoiketa kausalak aurkitzea da, lehen atalean aipatutako kontzeptu berberak erabiltzen dituztenean eta zirkuituaren egoera geldikorrean. Amaitzeko, azken atalean, hirugarren azterlanaren emaitzak azaltzen dira, aurreko kapituluan azaldu bezala bi zatitan banatuta dagoena. Lehenengo zatian, bi galdera dituen galdetegi baten emaitzetatik, egoera iragankorrean erresistentziak dituzten KZ zirkuitu elektrikoaren funtzionamenduari buruz ikasleek dituzten azalpen-kategoriak ondorioztatzen dira, eremu eta potentzial elektriko kontzeptuak erabiltzen dituztenean. Hirugarren atalaren bigarren zatian, ikasleek egoera horretan dituzten arrazoibideak aztertzen dira.

Kapituluaren bukaeran, ondoren aurkezten diren emaitzen sozializazioa zehazten da, nazioarteko ekitaldietako ahozko komunikazioetan eta prestigiozko nazioarteko aldizkarietako artikuluetan aurkeztu dira eta.

3.1. GALDETEGIEN EMAITZAK

Ondoren aurkezten diren emaitzak sei urtez aurrera eramandako lan baten fruitua dira. Bidean, emaitza horietako batzuk aurkeztu dira Physics Education Research nazioarteko ekitaldietan egindako ahozko eta idatzizko hainbat komunikaziotan (AAPT Summer Meeting 2013, ESERA Conference 2013, AAPT Winter Meeting 2014, GIREP Conference 2014, AAPT Summer Meeting 2014, PERC Conference 2014, GIREP Conference 2017, GIREP Conference 2018).

3.2. LEHENENGO AZTERLANAREN EMAITZAK: ERRESISTENTZIAK DITUZTEN EGOERA GELDIKORREKO KZ ZIRKUITU ELEKTRIKOEN FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO IKASLEEN AZALPEN-KATEGORIAK EREMU ETA POTENTZIAL ELEKTRIKO KONTZEPTUAK ERABILTZEN DITUZTENEAN

Aurreko kapituluko 2.4.1. atalean azaldu den bezala, lehenengo azterlanak unibertsitate-mailako sarrerako fisikako ikasleek korrante elektrikoaren funtzionamenduari eta eremu elektrikoa eta potentzial-diferentzia kontzeptuei buruz duten ulermenaren inguruan ikertzen du. Horrekin ikerketako lehen galderari erantzun nahi zaio.

Jarraian, galdetegi honetako 6 galderetako bakoitzerako lortutako emaitzak aurkezten dira taulen bidez.

I taula. Q1.1 galderaren erantzunak

Kategoriak	Emaitzak (%)
A. Zuzenak	% 46.7
A.2.1 Mikro / Makro	% 32.5
A.2.2. Mikro / Mikro	% 14.2
B. Azalpen osatugabeak	% 38.7
C. Inkoherenteak	% 8.1
D. Ez du erantzun	% 6.5

Q1.1 galderak bi atal ditu. Ikasleen erantzuna zuzena izan daiteke, maila makroskopikora bideratua edo maila mikroskopikora bideratua. Horren ondorioz, A kategoriarako bi azpikategoria sortu dira: A kategoriak erantzun zuzenak jasotzen ditu ikuspegi makroskopikotik (makro/makro) edo mikroskopikotik (mikro/mikro) edo bien konbinazio batetik (mikro/makro; makro/mikro). Ikasleen ia erdiek (% 46,7) fisikaren esparru teorikoan oinarritutako azalpena ematen dute, baina gehienek (% 32,5ek) deskribapen mikroa erabiltzen dute galderaren lehen atala erantzuteko, baina ondoren elektrozinetikarekin lotutako zatia erantzuteko deskribapen makroa baino ez dute erabiltzen (A.2.1 kategoria). Honakoa da mota honetako erantzun estandar bat:

“Karga desberdineko bi plaka daudenez, bakoitzak eremu elektriko bat sortzen du, biak noranzko berekoak. Coulomb-en legearen bidez azaltzen da, hau da, karga bakoitzak eremu bat sortzen du, eta guztien baturak $E = \frac{\sigma}{\epsilon}$ ematen du bi plakek karga bera badute balio absolutuan. Zirkuitu elektrikoan, korrontea mugitzen da pilak sortutako potentzial-diferentzia dagoelako ”.

Erantzunen % 14,2k baino ez du azalpen mikroskopikoa eman egoera elektrostatikoan zein elektrozinetikoan (A.2.2 kategoria). Honako hau da erantzun estandar bat:

“Eremu elektrikoa karga positiboetatik negatiboetara doa. Kargen banaketa horren ondorioz, eremu elektrikoa sortzen da. Zirkuituaren kasuan, elektroiak mugitzen dituen eremu elektrikoa pilak sortzen du”.

Erantzunen ia % 40k (B kategoria) zuzen erantzuten diote egoera elektrostatikoari, baina ez dakite azalpenik ematen edo KZ zirkuitu elektriko batean eremu elektrikoaren existentziari buruzko bat-bateko ideiak erabiltzen dituzte. Hona hemen erantzun estandar bat:

“Eremu elektrikoa karga-diferentziaren ondorioz sortzen da. Plaka baten eta bestearen eremu elektrikoak gainjartzen dira, eta kontrako zeinukoak direnez, bakoitzaren eremu elektrikoaren modulua batu egiten da. Zirkuitu honetan, karga pilak ematen du. Erresistentziaren efektuak ez dio eragingo pilaren alde positibotik negatibora doan eremu elektrikoari”.

II taula. Q1.2 galderaren erantzunak

Kategoriak	Emaitzak (%)
A. Potentzial-diferentziaren definizioa baliozkoa da elektrostatika eta elektrozinetikaren (erlazioa ezagutzen du)	% 16.7
B. Ez du erlazioatzen, baina esparru teorikoaren elementuak erabiltzen ditu	% 75
C. Ez du ezagutzen potentzial-diferentziaren definizioaren balio/erabilpen orokorra (ez ditu bi testuinguruak definizioarekin lotzen)	% 8.3
D. Ez du erantzun	% 0

Q1.2. galderan, testuinguru elektrostatikotik elektrozinetikotik batera trantsizioa egitean potentzial-diferentziaren inguruan ikasleek dituzten zailtasunak identifikatzean, eta ondorioz ikusten da gutxiengo batek dakiela (% 16,7 A kategorian) potentzial-diferentziaren definizioa berdina dela bi testuinguruetan. Adibidez:

“Ados nago E1 ikaslearekin. Ekuazio orokorra $\Delta V = \int_A^B \vec{E} \cdot d\vec{l}$ da eta jakinik $V = E \cdot d$ dela, ΔV modu baten edo bestean kalkulatu dugu egoera bakoitzaren arabera.”

Hala ere, ikasleen hiru laurdenak ez du harremana azaltzen, nahiz eta ez duen fisikaren esparru teorikoarekiko azalpen inkoherenterik egiten. Horrela, ikasle askok Ohmen legea maila makroskopikoan erreplikatzeko joera dute, zirkuitua aztertzen duen lege orokorra balitz bezala. Adibidez:

“Ados nago E2 ikaslearekin, eremuaren izaera ez baita berdina. Zirkuitu ohmiko batean lege makroskopikoak erabiltzen ditugu; eremu elektriko batean, berriz, mikroskopikoak dira.”

“Ados nago E2 ikaslearekin. Bi lege desberdin erabili behar dira: potentzial diferentziarena elektrostatan eta Ohmen legea zirkuituetan”

Ikasleen% 8,3k gaizki erlazionatzen du.

III taula. Q1.3 galderaren erantzunak

Kategoriak	Emaitzak (%)
A. Erantzun zuzenak	% 5.4
B. Osatu gabeak	% 25.7
C. Gaizki aplikatutako oroitzapen memoristikoko azalpenak	% 56.7
D. Inkoherenteak	% 4.1
E. Ez du erantzun	% 8.1

Q1.3 galderari dagokionez, eremu elektriko eta intentsitatearekin lotutako fenomeno fisikoak ulertzeko ikasleek dituzten zailtasunak identifikatzean, ikusten dugu ikasle gutxik (A kategoriako % 5,4) erantzuten diotela zuzen galderari. Horiek guztiek ikuspuntu makroskopikotik azaltzen dute lehen atala; izan ere, intentsitatea maila makroskopikoan neur daitekeen magnitudea da. Bigarren zatia, berriz, eremuak mugimenduan dauden kargen mailan duen eragina adieraziz arrazoitzen dute. Adibidez:

“Hiru puntuen intentsitatea berdina da, puntu horietatik igarotzen den karga-kantitatea berdina baita. Eremua materialaren eta diametroaren arabera da. $\rho_A < \rho_B$

$$E_{II} = \frac{I \cdot \rho_A \cdot 4}{\pi \cdot \left(\frac{D}{2}\right)^2}; E_{VI} = \frac{I \cdot \rho_B \cdot 4}{\pi \cdot \left(\frac{D}{2}\right)^2}; E_{VI} = \frac{I \cdot \rho_B \cdot 4}{\pi \cdot \left(\frac{D}{4}\right)^2} \rightarrow E_{VI} > E_{IV} > E_{II}.”$$

Ikasleen laurdenak (% 25,7) zuzen erantzuten diote intentsitateari buruzko galderari maila makroskopikoan, baina huts egiten dute eremu elektrikoak jokatutako papera azaltzean edo ez dute erantzuten. Adibidez:

“Egoera geldikorrean dagoen zirkuitu batean intentsitatea berbera da zirkuitu osoan $I_A=I_B=I_C$ ”

“Intentsitatea berbera da zirkuitu osoan egoera geldikorrean, eta, beraz, eremu elektrikoa berdina izango da.”

Ikasleen erdiak baino gehiagok (% 56,7; C kategoria) memorian ikasitako elementu isolatuak erabiltzen ditu, baina gaizki aplikatzen ditu, modu ez-koherentean. Adibidez:

“Eroalea hobea bada n handitu egiten da. Ez bada oso eroalea n txikitzen da eta ondorioz: $I_A=I_C>I_B$. Eremu elektrikoa berdina izango da hiru puntuetan.”

Ikasleen% 4,1ek logikarik ez duen erantzuna ematen du, eta gainerako% 8,1ek ez dio galderari erantzuten.

IV taula. Q1.4 galderaren erantzunak

Kategoriak	Emaitzak (%)
A. Zirkuitua behar bezala aztertzen du eta Ohmen legea aplikatzen du	50,9%
B. Zirkuitua oker aztertzen du eta Ohmen legea aplikatzen du	30,0%
C. Inkoherenteak	12,7%
D. Ez du erantzun	4,3%

Q1.4 galderaren erantzunei erreparatuz, lehen mailako ikasle gehienek (% 80,9, A eta B kategoriak) Ohmen legea aplikatzen dute maila makroskopikoan zirkuitu elektriko sinpleetan. Hala ere, erantzunen erdiek bakarrik (%50,9) dakite

zirkuitua behar bezala aztertzen. Honakoa da erantzun estandarraren adibide bat:

“Zirkuitua itxi aurretik 12v-eko pila eta seriean kokatutako bi erresistentzia ditugu. Intentsitatea honakoa da: $I=12/12 = 1 A$.

Zirkuitua itxi ondoren, korrante guztia S etengailutik igarotzen da eta zirkuituak erresistentzia hau du: 4Ω , $I=12/4= 3 A$ ”

Hala ere, erantzunen heren batek (B kategoria) ez du zirkuitua behar bezala aztertzen. Adibide estandar bat da:

“Zirkuitua itxi aurretik bateria bat eta seriean bi erresistentzia ditugu. Beraz, : $I=12/12 = 1 A$.

Zirkuitua itxi ondoren bi erresistentziak paraleloan daude: $R_T= 8/3 \Omega$ eta $I = 36/8 = 4 A$.”

Gainerako erantzunak koherentzia logikorik gabeko aplikazioak dira, edo ez dute erantzuten.

V taula. Q1.5 galderaren erantzunak

Kategoriak	Emaitzak (%)
A. Karga-soberakin desberdinak daude kablearen gainazalean	14,2 %
B. Kablearen barruko eremu elektrikoaren magnitudea handiagoa da D puntuan A puntuan baino.	35,7%
D. Inkoherenteak	14,3%
E. Ez du erantzun	35,7%

Q1.5 galderari dagokionez, ikasleen gutxiengo bat baino ez da gai kargen banaketa eta sortzen duten eremu elektrikoa erlazionatzeko (% 14,2; A kategoria), hori baita elektrostatikako eremu elektrikoa definitzeko irizpidea, eta gero edozein egoeratarako orokortzen da. Horietatik erdiek galderak eskaintzen dituen erantzunetatik a) aukera aukeratzen dute, eta beste erdiek c) aukera.

Fisikako oinarrizko ikastaroetarako ohiko irakaskuntza-programan ez denez egoera horien azterketa espliziturik egiten, espero zitekeen ikasle horien erantzunak oso azalpen orokorrak izatea zirkuitu bateko karga-banaketaren eta eremu elektrikoaren ekoizpenaren arteko harremanari buruz. Adibidez:

“Izan ere, intentsitatea mugitzean ikusten da zirkuituaren amaieran protoiak galtzen doazela eta une batean elektroikopurua handitzen doala. Karga-dentsitate desberdinak daude”.

Ikasle askok (% 35,7; B kategoria) ulertzen dute elektrizitate-eremua handiagoa dela kable eroalearen erdian, baina ez dute esparru zientifikoan oinarritutako argudiorik ematen ideia hori defendatzeko. Adibidez:

“b) zuzena da, kargek zeinu berekoak izan behar baitute, eremu elektrikoa zeinu berekoa baita. Desplazamendu guztiak norabide berekoak izan behar dira”

VI taula. Q1.6 galderaren erantzunak

Kategoriak	Emaitzak (%)
A. Zuzen erlazionatzen ditu bi ekuazioak	8,3 %
B. Oker erlazionatzen ditu (deskribapen makroskopikoa bakarrik)	83,4%
D. Inkoherenteak	0%
E. Ez du erantzun	8,3%

Q1.6 galdera aztertuz, ikasleen % 8,3k badaki zirkuituaren balantze energetikoaren bi ekuazioak lotzen: bata maila makroskopikoan (lehen ekuazioa) eta bestea maila mikroskopikoan (bigarren ekuazioa). Adibidez:

“Bi ekuazioak ondo planteatuta daude, 1. Ikaslearen ekuazioa ere planteatu dezakegu, planteatu duen bezala, azken finean gauza bera baita zeinuz aldatuz. 2. ikasleak tentsioa intentsitatearekin eta

erresistentziakin berdindu du, eta horrek 1. ikaslearen emaitza bera ematen du.”

Ikasle gehienek (% 83,4; B kategoria) ulertzen dute ekuazio zuzena deskribapen makroskopikoa dela, baina ez dute ezagutzen balantze energetikoa maila mikroskopikoan, eta E1 ikaslea aukeratzen dute, hau da, a) aukera. Adibidez:

“Daukagun eredua energetikoa denez, lehen ekuazioa da zuzena. Bigarren ekuazioa, aldiz, eredu mekaniko baterako erabiltzen da, kondentsadoreak kasu.”

Galdera honetan, galdetegiko guztietan bezala, erantzun ez duten ikasleen ehunekoa oso baxua da, eta horrek erakusten du ikasleek zereginetan jarri zuten interesa handia izan zela eta planteatutako galderei erantzutea garrantzitsua iruditu zitzaizkien ikasle –kopurua handia izan zela.

Emaitzek iradokitzen dute ikasleek eredu makroskopiko bat eraiki dutela erresistentziak dituen KZ zirkuitu elektriko baten portaera azaltzeko, esperimentalki neur daitezkeen aldagaietan oinarrituta, hala nola intentsitatea, potentzial-diferentzia eta erresistentzia. Horrela, ikasleen %80 inguru Ohmen legean oinarritutako harremanak ezartzeko gai dira Q1.4 galderan.

Ikasleek saihestu egiten dituzte edo ez dakite azalpenak maila mikroskopikoan ezartzen, kargen mugimenduan eta haietan eragiten duten kontzeptuetan oinarrituta. Hala erakusten du elektrostatikako eta elektrozinetikako testuinguruetan eremu elektriko eta potentzial elektrikoaren erlazioetan ez dituen erantzunen ehuneko handiak (% 75 eta % 80 artean Q1.1, Q1.2 eta Q1.3 galderetan). Era berean, maila mikroskopikoko karga-dentsitateari eta eremu elektrikoari buruzko erabakiak hartu behar dituztenean (Q1.5 galdera,

erantzunen % 15ek soilik erabakitzen dute hariaren gainazaleko karga-dentsitateaz hitz egitea, nahiz eta ez dakiten erantzuna behar bezala azaltzen.

Q1.6 galderaren emaitzek berretsi egiten dituzte zirkuitua maila mikroskopikoan azaltzeko eta makro-mikro erlazioak ezartzeko aurreko zailtasunak. Emaitzek adierazten dute ikasleen % 80k baino gehiagok badakitela harremanak makro mailan ezartzen, eta erantzun zuzenak lortzen dituztela zirkuituaren balantze energetikoan (Krichhoffen 2. legea), baina ez dakite maila mikroskopikoan erlazionatzen, ezta emaitza zuzena lortzen ere.

Laburbilduz, emaitzek adierazten dute ikasle gehienek intentsitatea, potentzial-diferentzia eta erresistentzia bezalako aldagai neurgarrietan oinarritutako eredu mikroskopiko baten bidez azaltzen dutela egoera geldikorrean dagoen KZ zirkuitu baten portaera. Era berean, badakite euren artean harremanak ezartzen Ohm-en legeen (Q1.4) eta Krichhoff-en 2. legearen (Q1.6) bidez.

Ikasleen ehuneko txiki bat (% 15 inguru Q1.1, Q1.2, Q1.3 eta Q1.5 galderetan) zirkuituaren portaera maila mikroskopikoan azaltzeko gai da, hainbat aldagai erabiliz, hala nola kablearen gainazaleko karga-dentsitatea edo eremu elektrikoaren magnitudearen balioa eta honek elektroietan duen eragina korrante-intentsitatea lortzeko.

Azaleratzen diren bi kategoriak, azalpen makroskopikoa (gehiengoa) eta azalpen mikroskopikoa, sakon karakterizatu behar dira, lotutako arrazonamendu mota aztertuz, eremu eta potentzial elektriko moduko magnitudeak erabiltzen direnean. Hori izan zen jarraian deskribatzen den bigarren lanaren helburua.

3.3. BIGARREN AZTERLANAREN EMAITZAK: ERRESISTENTZIAK DITUZTEN EGOERA GELDIKORREKO KZ ZIRKUITU ELEKTRIKOEN FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO IKASLEEN ARRAZOIKETA KAUSALAK EREMU ETA POTENTZIAL ELEKTRIKO KONTZEPTUAK ERABILTZEN DITUZTENEAN

Atal honetan, bigarren azterlaneko galderetan lortutako emaitzak azaltzen dira, hau da, aurreko kapituluko 2.4.2 ataleko azterlanaren emaitzak.

Lehen esan bezala, ikerketa honen helburua ez da zuzen edo oker erantzun duten ikasle kopurua zenbatekoa den ikustea. KZ zirkuituen portaera azaltzean ikasleen arazoibideak aztertzean zentratzen den ikerketa da. Beraz, ikasleen erantzunak azalpen-kategoriekin lotutako arazoibide-mota desberdinetan bildu dira. Azalpen-kategoriak lehenengo azterlanaren emaitzetan oinarrituta eraiki dira. Gainera, aurreko azterlanean eta bigarren azterlan honetan lortutako datuek azalpen-kategoria horiek justifikatzen dituzte. Ikasleen artean komunak diruditen arazoibide eta zailtasun kontzeptual batzuk identifikatu dira. Ikasleen ideien deskribapen hori ideia espezifiko iraunkorren kategorietan kontzentratzen da. Gainera, kategoria horiek, lau arazoibide moten arabera interpretatuko ditugu. Garrantzitsua da kontuan hartzea azalpenaren argudioak (adibidez, azalpen-kategoriak) lotura zuzena duela galdera ebazteko testuinguruan arazoitzeko moduarekin.

Ikasleek lehen galderari (Q2.1) emandako erantzunen emaitzak ehunekotan bildu dira VII. taulan.

VII taula. Q2.1 galderaren erantzunak

Arrazoiketa motak	Azalpen-kategoria	Emaitzak (%)
1.1. Kausal sinplea – mikro-maila (karga elektrikoaren eremu edo potentzialaren kontzentrazio gradientea)		% 0
1.2. Kausal sinplea – makro-maila (korriontea-eremu elektrikoa)	I. Korrionterik badago, eremu elektrikoa dago	% 39

2.1. Lineal kausala – mikro-maila (karga-kontzentrazio gradientea – potenzial diferentzia)			% 0
2.2. Lineal kausala – makro-maila (bateria – potenzial diferentzia – eremu elektrikoa)	II. Potenzial-diferentziak eremu elektrikoa sortzen du.	kablean	% 21
3.1. Erlazional kausala – mikro-maila (korrontearen eta erresistentziaren arteko erlazioak eremua edo potenzial diferentzia sortzen ditu)			% 0
3.2. Erlazional kausala – makro-maila (korrontearen eta erresistentziaren arteko erlazioak eremua edo potenzial diferentzia sortzen ditu)			% 0
Arrazoitze-ildo logikorik gabe			% 17
<hr/>			% 23
Ez du erantzun			
<hr/>			

Lehenengo kategoriako (I) azalpenek arrazoiketa kausal sinplea erabiltzen dute:

“Korrontea badago eremu elektrikoa ere egongo da”.

Hona hemen erantzun horien adibideak:

“Kablean eremu elektriko bat agertzen da, korronte elektrikoa dugulako. Egoera geldikorrean, egoera egonkorra zen.”

“Kableko korronteak eremu elektriko bat sortzen du. Egoera hau egoera elektrostatikoa ez bezalakoa da, non eremu elektrikoa zero zen, korronterik ez zegoelako.”

Azalpen horietan arrazoiketa kausal sinple bat ezartzen da kausa baten - "korronte elektrikoa" - eta efektu baten "eremu elektrikoa" artean. I. azalpen-kategorian, galderan agertzen diren ohiko entitate fisikoen (kasu honetan korronte elektrikoa) deskribapena eginez arrazoitzen da (orientazio fenomenologikoa), baina efektuarekiko lotura ez dator bat kontzeptu garrantzitsuekin edo beste lotura teoriko batzuekin. Azalpen horiek maila

makroskopikoan zentratzen dira; ez dute esplizituki aipatzen korronteak eremu elektrikoa sortzen duenean azpian dagoen mekanismoa.

Bigarren kategoriaren azalpenak (II) "*Potentzial-diferentziak eremu elektrikoa sortzen du*", kablean eremu elektrikoa egotearen arrazoia bateriak sortutako potentzial-diferentzia dela arrazoitzen du. Justifikazioak arrazoibide lineal kausal bati jarraitzen dio: bateriak potentzial-diferentzia sortzen du eta honek,aldi berean, kablean eremu elektrikoa sortzen du. Ikasleen erantzunak okerrak dira, bateria ez baita kableko eremu elektrikoaren faktore arduradun bakarra. Dena dela, hori da ikasleen erantzun guztien artean azalpen zientifikotik gertuen dagoen azalpena. Inongo azalpenek ez du esplizituki aipatzen prozesu kausalaren azpiko mekanismoa. Hona hemen erantzun mota horren adibide bat:

“Korrontea zirkulatzen ari denean, kablea potentzial-diferentzia sortzen duen bateria batera konektatuta dagoela esan nahi du. Potentzial-diferentziak eremu elektrikoa sortzen du kablearen barruan, eta horrek elektroiak mugiarazten ditu.”

Soilik hiru erantzunek ezartzen dituzte eremu elektrikoaren eta potentzial elektrikoaren arteko erlazio matematikoak. Adibidez:

“Galderak dioenez, E eremu elektrikoa zero da zilindroaren barruan egoera elektrostatikoan dagoenean. Korronteak zirkulatzen badu, ordea, ez dago orekarik, elektroiak mugimenduan daudelako. Gainera, kargak mugitzen badira, zilindroaren kontrako ertzen artean potentzial-diferentzia dago. $V_{ab} = \int \vec{E} \cdot d\vec{l}$. If Beraz, potentzial-diferentzia balego, eta potentzial-diferentzia badago, eremua ez da zero.”

Ikasleek Q2.2A eta Q2.3A galderei emandako erantzunak VIII. taulan ageri dira.

VIII taula. Q2.2A eta Q2.3A galderen erantzunak

Arrazoiketa motak	Azalpen-kategoria	Q2.2A Emaizak (%)	Q2.3A Emaizak (%)
1.1. Kausal simplea – mikro-maila (karga elektrikoaren eremu edo potentzialaren kontzentrazio gradientea)	I. Elektroien kontzentrazioak edo kontzentrazio-diferentziak zirkuituaren zati bakoitzean eremu elektrikoa sortzen du.	1.0	4.5
1.2. Kausal simplea – makro-maila (korrontea-eremu elektrikoa)	II. Korronte elektrikoak eremu elektrikoa sortzen du.	10.5	33.0
2.1. Lineal kausala – mikro-maila (karga-kontzentrazio gradientea – potentzial diferentzia)		0.0	0.0
2.2. Lineal kausala – makro-maila (bateria – potentzial diferentzia – eremu elektrikoa)		0.0	0.0
3.1. Erlazional kausala – mikro-maila (korrontearen eta erresistentziaren arteko erlazioak eremua edo potentzial diferentzia sortzen ditu)		0.0	0.0
3.2. Erlazional kausala – makro-maila (korrontearen eta erresistentziaren arteko erlazioak eremua edo potentzial diferentzia sortzen ditu)	III.a. Eremu elektrikoa materialaren eroankortasunarekiko proportzionala da. III.b. Eremu elektrikoaren balioa kablearen zabaleraren eta korrontearen arabera da.	38.0	38.5
Arrazoitze-ildo logikorik gabe		50.5	24.0
Ez du erantzun		0.0	0.0

I. azalpena erantzun minoritarioa da, eta kablearen barruko elektroikontzentrazioan oinarrituta eremu elektrikoaren balioa adierazten duten erantzunak biltzen ditu. Azalpen horretan arrazoiketa kausal simple bat sartzen da, kableko karga-kontzentrazioa eremu elektrikoaren kausa gisa postulatuena: karga-dentsitatearen banaketa \rightarrow eremu elektrikoa. Eredu horien azalpena, maila mikroskopikoan, kableko elektroien kontzentrazioan zentratzen da.

Ikasleek interpretazio okerra egiten dute eremu elektrikoaren erantzulea den karga banaketa kablearen barruan dagoela esaterakoan. Azpimarratu behar da erantzunetan ez dela azaltzen zein mekanismok sortzen duen kargen banaketa zirkuituan zehar, eta horrek era guztietako erantzunak eragiten dituela. Hau da, kontzeptuen gaizki-ulertuan oinarritutako arrazoibide mota berarekin, aukera desberdinak aukeratzen dituzte galderari erantzuteko. Hona hemen erantzun gehien antzeko batzuk:

“ $E_A = E_B$ baino txikiagoa da, A puntuko kargak B puntuan eremu elektriko handiagoa sortzen du karga gehiago dagoelako. Karbonoan karga-kontzentrazio handiagoa dago kable eroalean baino.”

“Kable zabalean (B puntua) zirkulatzen karga txikiagoa izateak esan nahi du eremu elektriko txikiagoa egongo dela”.

“Karga berak zirkulatzen du A puntutik zein B puntutik; beraz, eremu elektrikoa berdina izango da bi puntuetan.”.

II. azalpen-kategoriak eremu elektrikoaren balioa korrontearenarekin lotzen duten erantzunak batzen ditu. Kategoria honetako azalpenek arrazoibide kausal sinple bat ezartzen dute (korrontea \rightarrow eremua), orientazio fenomenologiko batekin. Azalpen hori Q2.1 galderaren I. kategorian dagoenaren antzekoa da. Azalpenek ez dute modu esplizituan identifikatzen eremu elektrikoko ekoizpenaren azpiko mekanismoa, baina gehienek (% 85) $E_A = E_B$ aukera hautatzen dute. Kategoria honetako adibide tipiko bat honako hau da:

“Zirkuituan korrontea konstantea da, eta horrek esan nahi du eremu elektrikoak berdina izan behar duela A eta B bi puntuetan.”

Arrazoibide mota honek erregela enpirikoa gehiegi orokortzea bilatzen du. Egoera geldikorrean korrontearen intentsitatea berbera dela baieztatzen du, eta eremu elektrikoaren magnitudea ere berdina dela baieztatuz orokortzen du.

III. azalpen-kategoriak eremu elektrikoaren eta materialaren eroankortasunaren arteko erlazioa ezartzen duten erantzunak jasotzen ditu Q2.2A galderarako (IIIa azalpena). Q2.3A galderaren kasuan, erabilitako analogiagatik, kablearen zabalarentzat antzeko arrazoiketa mota bat aplikatzen da (kablearen sekzioaren azalera) (IIIb azalpena). Bi kasuetan, bi aldagaien arteko arrazoiketa erlazionala erabiltzen da erantzuna azaltzeko: eroalearen eroankortasuna edo eroalearen zabalera eta korrontea erlazionatzen dira, eremu elektrikoaren magnitudeari buruzko ondorioa iristeko (Giere, 1999). Dena den, funtzionamendu erlazionalaren baitan dagoen mekanismoa ez da deskribatzen. Mekanismo erlazionalaren justifikazio falta horren ondorioz arrazoiketaren lerro erlazionalak aukera ezberdinak hartzera darama (% 56 $E_A > E_B$, % 29 $E_A < E_B$, % 15 $E_A = E_B$ Q2.2A galderan; % 62 $E_A > E_B$, % 13 $E_A < E_B$, % 25 $E_A = E_B$ Q2.3A galderan). Hona hemen erantzun horien adibideak:

“Karbonoaren eroankortasuna kobrearena baino txikiagoa da. Beraz, karbonoak kobreak baino eremu elektriko handiagoa behar du korronte bera mantentzeko”. (Q2.2A galdera)

“Kablearen alderik estuenean E eremua txikiagoa izango da, sekzio horretan karga (korronte) gutxiago dagoelako”. (Q2.3A galdera)

“ E_A E_B baino txikiagoa da, elektroiak modu progresiboan metatuko direlako sekzio estuan, eremu elektriko handiagoa sortuz”. (Q2.3A galdera)

IX. taulan ageri dira ikasleek Q2.2B eta Q2.3B galderei emandako erantzunak.

IX taula. Q2.2B eta Q2.3B galderen erantzunak

Arrazoiketa motak	Azalpen-kategoria	Q2.2B Emaizak (%)	Q2.3B Emaizak (%)
1.1. Kausal simplea – mikro-maila (karga elektrikoaren eremu edo potentzialaren kontzentrazio gradienteak)	I. Kargen banaketak potentzial-diferentzia sortzen du.	12.0	12.0
1.2. Kausal simplea – makro-maila (korrontea-eremu elektrikoa)		0.0	0.0
2.1. Lineal kausala – mikro-maila (karga-kontzentrazio gradienteak – potentzial diferentzia)	II. Karga-dentsitatearen banaketak potentzial-diferentzia sortzen duen eremu elektrikoa dakar.	8.0	7.0
2.2. Lineal kausala – makro-maila (bateria – potentzial diferentzia – eremu elektrikoa)		0.0	0.0
3.1. Erlazional kausala – mikro-maila (korrontearen eta erresistentziaren arteko erlazioak eremua edo potentzial diferentzia sortzen ditu)		0.0	0.0
3.2. Erlazional kausala – makro-maila (korrontearen eta erresistentziaren arteko erlazioak eremua edo potentzial diferentzia sortzen ditu)	III. Zirkuituko bi punturen arteko potentzial-diferentzia Ohm-en legearen bidez neurtzen da (ez dago loturarik potentzial-diferentziaren eta kableko karga-kontzentrazioaren artean).	25.0	27.0
Arrazoitze-ildo logikorik gabe		31.0	27.5
Ez du erantzun		24.0	26.5

Q2.3B galderak makro-mikro erlazio bati buruz esplizituki galdetzen ez badu ere, maila mikroskopikoan erantzuten dutenen ehunekoa antzekoa dela ikusi da Q2.3B eta Q2.2B bi galderetan. Azalpenen %12 I. kategorian daude, hau da, arrazoiketa kausal simple batean, elektroi-dentsitatean dagoen aldea potentzial-diferentziaren kausa dela ziurtatzen dutenak: karga-dentsitatearen banaketa → potentzial-diferentzia. Horrelako erantzunetan kausa bakarra dago (kargen kontzentrazioa edo kontzentrazio-diferentzia), eta horrek emaitza bat sortzen du (potentzial-diferentzia). Adibidez:

“Karga-dentsitatea gehiago aldatzeak potentzial-diferentzia handiagoa dakar”. (Q2.2B galdera)

“Bai, potentzial-diferentzia dago, karga-dentsitatea A puntutik B puntura aldatzen baita, eta kablea estutu egiten da.”. (Q2.3B galdera)

Azalpenen % 8 II. kategorian daude. Kategoria horrek arrazoibide lineal kausal bat ezartzen du, sekuentzia zehatz batekin: karga-dentsitatearen banaketa → eremu elektrikoa → potentzial-diferentzia.

Erantzun horietan, kausa-erlazio sinpleen kate bat eraikitzen da "karga-dentsitatearen banaketa", "eremu elektrikoaren existentzia" eta "potentzial-diferentziaren sorrera" gertaeren artean. Adibidez:

“Bai, karga-dentsitateak eremu elektrikoari eragin diezaioke, eta potentzial-diferentzia eremu elektrikoaren arabera da.” (Q2.2B galdera)

III. azalpen-kategoria (% 25ekoa) arrazoiketa erlazional batean oinarritzen da, non kausa Ohmen Legeak korronteen eta erresistentzi magnitudeen artean ezarritako erlazioa den, eta erlazio horrek potentzial-diferentziari eragiten dion. Adibide bat honakoa da:

“Ampere kopurua ez da aldatzen zirkuituan, baina A eta B puntuen artean erresistentzia (zabalera) aldatu egiten da, eta, beraz, potentzial-diferentzia ere aldatu egiten da Ohmen legearen arabera”. (Q2.3B galdera)

III. azalpen-kategorian, erresistentziaren eta korronte kantitatearen arteko erlazioak potentzial-diferentziaren emaitzara eramaten du (arrazoiketa

erlazionala). Harremana Ohmen legea da, eta hori ez da potentzial-diferentzia aldatzeko mekanismoaren azalpena, baina sistemaren portaera iragartzen du. Galdera guztietan lotura arrazional edo logikorik gabe teoria elektrikoaren kontzeptuak aurkezten dituzten erantzunen ehuneko esanguratsu bat dago. Are gehiago, ikasleen laurden bat inguruk ez du erantzuten. Emaidza horiek erakusten dute ikasleek zailtasun-maila handia aurkitzen dutela korrante elektrikoaren azalpen-eredua eta potentzial-diferentzia maila makroskopikoan eta mikroskopikoan erlazionatu behar dituztenean.

Emaidzek iradokitzen dute ikasleek KZ zirkuituetan eremu elektrikoa eta potentzial elektrikoa kontzeptuen rola azaltzeko ereduak eraikitzen dituztenean, arrazoibide mota espezifikokoak erabil ditzaketela, hala nola kausal sinplea, kausal lineala eta erlazional kausala. Are gehiago, emaidza horiek erakusten dute ereduaren azpiko mekanismoak ez ulertzeak ondorio desberdinak eta kontrajarriak ere ekar ditzakeela eredu bera erabiltzen denean.

Ikasleen zati batek arrazoiketa kausal sinplea erabiltzen du zirkuituaren azalpen-ereduaren eta eremu elektrikoaren edo potentzial elektrikoaren arteko loturak azaltzeko. Oso ikasle gutxi (% 5-12) ematen dituzte azalpenak maila mikroskopikoan (kargak edo elektroiak). Maila mikroskopikoan, azalpenek kausa-efektu eskema sinple bat erabiltzen dute: kargen kontzentrazioak eremu elektrikoa edo potentzial-diferentzia sortzen du. Karga-kontzentrazioa aipatzen duten ia erantzun guztiek kablearen barruan (karga-kontserbazioaren printzipioaren urraketa) edo bateriaren poloetan (azalpen osatugabea) kokatzen dituzte kargak. Arrazoiketa kausal sinplea erabiltzen duten azalpen gehienak maila makroskopikoan egiten dira, %10.5etik %39ra. Arrazoibideak dio korrantea dela eremu elektrikoaren arrazoiak: ondorio okerra. Arrazoibide mota horrek azalpen-ahalmen txikia du, eta okerra da kausa-efektu erlazioa azaltzen duen mekanismoa deskribatzerakoan.

